

Zu hemen zaude.

goiena



Joseba Sarrionandiari elkarrizketa

Euskal Mendizale Federazioak 100 urte bete ditu

40 urte betetzen dituen Txapa Irratiak jaurtiko du Bergarako jaiei hasiera emango dien suziria / 18

Kanpanzarko errepidea berritzeko "aukerarik egokiena aztertzeko" eskatu dute alkateek / 2



Urre zuriaren festa ospatuko dute domekan Leintzeko gatzaren herrian

Azoka, mendi ibilaldiak, Gatz Museora bisita, tailerrak eta musika emanaldiak izango dira egun osoan / 17

Lanbroa Kultura Elkarteak sortu dute Bergaran, euskal kultura eta historia sustatzeko / 20

SINADURAK

	MONIKA MADINABETTIA MEDRANO / 6		INAZIO NARBAIZA / 20
	OIANA SANCHEZ / 9		ASIER LAUZURIKA ARRONDO / 29
	JULEN ABASOLO GALLASTEGI / 14		ANDERE ETXEBERRIA / 40



DUELA BOST URTE ESKURATUTAKOA BERRIRO LORTU GURAN

Elene Guridi Realeko jokalaria oñatiarra zapatuan saiatuko da lortzen 2019an Oihana Aldaik txuri-urdinekin lortutako Espainiako Erreginaren Kopa / 32

Elene Guridi Realeko jokalaria eta Oihana Aldai Realeko jokalaria ohia, joan den astean Azkoagainen, Oñatin. ANDER MONEDERO

AZKEN EGUNAK

PROGRESIBOEN HILABETEA

2x189 €

MÓ BETAURREKO PROGRESIBOAK

BATZUK EGUZKITAKOAK IZAN DAITEZKE

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



MULTIÓPTICAS

943 79 29 95
Otalora Lizentziaduna, 18
ARRASATE



eskatu hitzordua



943 76 15 75
Ibargarai, 16
BERGARA

www.multiópticas.com





Maidor Morras eta Julene Lazkano, eguenean Kanpanzar gainean egindako agerraldian. HASIER LARREA

N-636rako aukerarik onena aztertu nahi dute

Arrasateko eta Elorrioko alkateek egindako agerraldian, Arrasate eta Elorrio arteko errepidearen trazadura eraberritzeko hartutako erabakia bi udalen ikuspuntua "kontuan hartu gabe" egin dela diote, eta aukerarik egokiena "aztertze" eskatu dute

Iñigo Barrena ARRASATE

Joan den otsailean aurkeztu zuten Gipuzkoako eta Bizkaiko foru aldundietako Bide Azpiegituretako diputatuek Elorrio eta Arrasate batzen dituen N-636 errepidearen trazadura eraberritzeko plana. Hala, besteak beste, Kanpanzarren gainaldea zeharkatuko duen 830 metroko tunel bat egiteko asmoa erakutsi zuten. 42 hilabeteko epean proiektua idaztea eta obra osoa 2031erako amaitzeko asmoa azaldu zuten.

Kanpanzarko gainean Maidor Morras Arrasateko alkateak eta June Lazkano Elorrioko alkateak egindako agerraldian, proiektu horren aldeko hautua bi udalen ikuspuntua "aintzat hartu gabe" egin izana leporatu diete bi foru aldundiei, eta N-636 errepidearen trazadura eraberritzeko lanetan aukerarik egokiena "aztertze" eskaera egin dute. "Proiektu honetarako lau aukera zeuden, 60 eta 155 milioi euro artekoak. Guz-

tiek lurren mugimendua, desjabetzeak, lurzoru kutsatuak izatea, lurren okupazioak eta ingurumen afekzioak jasotzen dituzte. Horregatik uste dugu bi udalerriekin patxadaz eta soseguz hartu beharreko erabakia dela", adierazi du Maidor Morras Arrasateko alkateak.

Informaziorik ez

Erabakia euren kabuz hartzeaz gain, Arrasateko eta Elorrioko udalek proiektuaren gaineko informaziorik ez dutela jaso azpimarratu zuten Morrasede eta Lazkanok. "Teknikoki eragin handia duen proiektua da eta ez digute informaziorik eman. Esan gura dugu prest gaudela entzuteko eta informa-

LANDUTAKO LAU PROIEKTUEN KOSTUA 60 ETA 155 MILIOI EUROREN ARTEAN DAGO

zioa jasotzeko", dio Morrasede. Lazkanok ere azalpenen beharra aitortu du: "Bi herriengan eta mugikortasunean eragin handia izango du; beraz, bi aldundietako teknikariek egindako azterlaneko edukien eta xehetasunen inguruko gano-rak azalpenak ematea nahi dugu; izan ere, patxadaz hartu beharreko erabakia da, kaltea ahalik eta txikiena izateko".

Udaletxeko atea irekita

Kanpanzarko agerraldia aprobetxatu zuten, baita ere, Arrasateko eta Elorrioko udaletxeetako atea gaiaren inguruan hitz egin eta aztertze zabalik daudela adierazteko. "Lankidetzarako eta elkarlanean prest gaude; izan ere, herritarrek eta auzoak daude honen guztiaren atzean. Hala, gure barne teknikariek ere txostenak aztertze prest gaude, baina lankidetzaz eskatzen dugu", adierazi du Elorrioko alkateak.

Arrasaten erabakiko da zein den Gipuzkoako tripakirik onena

Bigarren urtez egingo dute Gipuzkoako Tripaki Lehiaketa, bihar, 18:00etan, Seber Altube plazan

I.B.K. ARRASATE

Ederto-Harakel Gipuzkoako Harakinen Elkarteak, Arrasateko Udalarren eta Dendartean Gipuzkoako Merkatarien Bilkuraren laguntzarekin, Gipuzkoako Tripaki lehiaketa antolatuko dute bigarren urtez; bihar izango da, arratsaldeko seietan, Seber Altube plazan. "Iazkoa arrakastatsua izan zen, eta ezin genuen aukera atzean utzi. Arrasateko herriak ere harrera ona egin zigun; beraz, bertan errepikatzea erabaki dugu", adierazi du Xabier Aldalurrek, Dendarteaneko teknikariak.

Hogei bat harategi izango dira dira lehian; tartean, hainbat debagoiendar. Besteak beste, Oñatiko Txantxiku harategia, Bergarako Antia eta Imaz harategiak, Arrasateko Agirre-Etxe eta Otamendi harategiak eta Aretxabaletako Jon harategia. Era berean, iazko irabazlea ere lehian izango da, Aretxabaletako Iosu harategia.

Guztien helburua Iosu harategiak lortutako txapelaren lekukoa hartzea izango da, baina, batez ere, Gipuzkoako tripaki onena egin izanaren izena bereganatzea. Dena dela, lehiaketak baditu bestelako helburu batzuk, Aldalurrek azaldu duenez: "Harategi txikiek mantentzen duten errezeta dira tripakiak, eta ikusten genuen merezi zuela produktuari balioa ematea. Hori dela eta, haien lana ezagutzera eman eta azpimarratzeko helburuarekin jarri genuen abian lehiaketa".

Luxuzko epaimahaia

Ehun kilotan banatutako hogei tripaki inguru dastatzeko, sabela ondo prestatu beharra dago, baina irizpide on baten beharra ere badago. Hori dela eta, aurten ere iazko luxuzko epaimahaikide berek errepikatuko dute. Josema Azpeitiagak –gastronomia-kritikari ospetsua–, Mailu Odriozolak –Ederto-Harakel Gipuzkoako Harakinen Elkarte ordezkaria– eta Asier Antiak –Arrasateko Ezkiña tabernakoa– izango dute horretarako ardura. "Iaz baino tripaki gutxiago izango dira, eta horrek lagundu egingo die bai sabelean eta baita lehen hirurak aukeratzeko", dio Altubek, umore kutsuan. Aurten, gainera, herritar bat ere ibiliko da epaimahai lanetan, herritarrek ere euren "lekua" izan dezaten, Xabier Aldalurrek adierazi duenez.

Tripaki dastaketa

Iaz egin zuten moduan, epaimahaikideek ez ezik, Seber Altube plazara joaten direnek ere izango dute tripakiak dastatzeko aukera. Prezio egoki baten truke, lehiaketara aurkezturiko tripakiak dastatu ahal izango dituzte, edari baten lagunduta.

HOGEI BAT HARATEGI ETA 100 KILO TRIPAKI INGURU EGONGO DIRA BIHAR JOKATUKO DEN BIGARREN EDIZIOAN



Ekimenaren aurkezpena martitzenean Kulturaten. JOKIN BEREZIARTUA

Klima larrialdia hizpide D2030en jardunaldietan

Jardunaldi nagusia maiatzaren 24an egingo dute, Arrasateko Kulturateko klaustroan, eremu askotariko adituekin. Horrez gain, herriz herri ibiliko den erakusketa bat ere antolatu dute: klima larrialdia eta trantsizio energetikoa ditu hizpide erakusketak

Iñigo Barrena DEBAGOIENA

Debagoiena 2030 ekimenak *Iraunkortasunari hamaika begirada* izenburupean klima larrialdiaz eta energia trantsizioaz hausnarketa egiteko jardunaldia antolatu du maiatzerako eta ekainerako, Debagoieneko Mankomunitatearekin eta eskualdeko udalekin elkarlanean. Ekimenaren helburua klima larrialdia Debagoiengan izango duen inpaktua ezagutzeko da, arlo eta ikuspegi desberdinak elkar josiz.

Ekimena dagoeneko martxan da eta aurrera eraman duten lehen ekintza herriz herri ibiliko den erakusketa bat da. Horrek klima larrialdia eta trantsizio energetikoa ditu hizpide. Horrez gain, Debagoieneko diagnostiko energetikoa eta bere inpaktuak ezagutaraztea, aukerak mahai-gaineratzea eta erronka horren inguruko hausnarketak partekatzea du helburu. Erakusketak gaur du azken eguna, Eskoriatzako Ibarraundi museoa, eta hortik Aramaio mugituko da, eta han maiatzaren 20tik 26ra egongo da. Erakusketan bertan, egun batean, Goienarren eskutik, energia fakturen inguruko azterketa egiteko aukera eskainiko dute. Eskoriatzan gaur egingo dute; Aramaion maiatzaren 24an.



Debagoieneko egoera eta aukera energetikoen gaineko erakusketa. IMANOL BELOKI

Erakusketa Bergarara eta Arrasatera ere iritsiko da.

Jardunaldi nagusia, 24an

Ekimeneko jardunaldi nagusia, berriz, maiatzaren 24an egingo dute, Arrasateko Kulturateko areto nagusian, 09:00etatik 16:30ak arte. Bertan, eremu askotariko adituak eta arituak izango dira, Debagoieneko errealitatearen berri hainbat ikuspegitatik emateko eta datozen erronken gainean aritzeko. Onintze Salazar (Euskalmet/Tecnalia), Iñaki Etxebeste

(Errez/Tantai), Adriana Aguirre (Tecnalia), Iñaki Antiguedad (EHU), Elisa Sainz de Murieta (EHU/BC3), Markel Peñalba (MU/Ikerbasque) eta Unai Pascual (Ikerbasque/BC3) izango dira hizlariak.

Jardunaldi nagusiaz gain, ekainaren 12rako, eskualdeko administrazio publikoek bizi dituzten erronka konplexuen aurrean bete beharreko rola ganean hausnartzeko saioa antolatu dute. Hori Oñatiko osoko bilkuren aretoan egingo dute, 09:30etik 13:00etara.



Garaia Parkean 2.520 eguzki plaka daude jarrita. GOIENA

Eguzki plakak maiatz amaieran konektatzea espero dute

Atzo Kulturaten egindako bileran eman zuten horren berri; ekainean, proba-fasean egongo da instalakuntza

I.B.K. ESKORIATZA

Leintz Bailarako Ekiola energia-komunitateko kideek hitzaldi informatiboa egin zuten atzo Kulturaten, proiektuaren nondik norakoak azaltzeko eta gaur egun proiektua zertan datzan argitzera emateko. Kontseilu Errektoreko kideak izan ziren bertan, eta, besteak beste, instalazio fotovoltaikoaren egoera eta egingo dituzten hurrengo urratsak zeintzuk diren argitu zuten. Dena ondo bidean, eguzki plakak maiatzaren amaieran konektatzea espero dituzte, eta, ondoren, proba fasean sartuko da, ekainean. Gaur-gaurkoz, bostehun wateko 2.520 panel daude ezarrita Arrasateko Garaia Gunean, eta, aurreikuspenen arabera, gai izango dira 1.375 megawatt sortzeko orduko. Halaber, 400-500 familiaren beharrak asetzeko instalazioa da. Gainera, kontsumo horren kostua jasan-

garria eta egonkorra izango dela adierazi zuten, merkatu elektrikoan gertatuko diren aldaketak ekidingo direlako.

Merkaturatzaile aldaketa

Bilerako beste puntu nagusietako bat bazkideen argindar enpresa merkaturatzailearen aldaketaren prozesuaren azalpena izan zen. Ekiluz enpresa izango da aurrerantzean Ekio-lako bazkideen merkaturatzailea eta enpresa bera izango da aldaketa egingo duena; hau da, bazkideek ez dute ezer ordaindu beharko.

Bazkidetza kanpaina zabalik

Bestetik, bileran gaineratu zuten bazkidetza kanpaina zabalik dagoela. Hain zuzen ere, leintz-bailara.ekiola.eus helbidean egin daiteke, formulario bat beteta. Interesatuekin harremanetan jarriko dira.

bertako
igogailuak | ascensores

HARRO!
www.bertako.eus

Mendizale Federazioak bihar egingo du ekitaldia

100 urte betetzen ditu Euskal Mendizale Federazioak, eta hura sortu zen herrian, Elgetan, ospatuko dute 'Mendiurrena'. 10:00etan emango diete hasiera ospakizunei, oroitzapenezko plakaren aurkezpenarekin, eta goiz osoa iraungo du ekitaldiak

Gontzal Belategi Zubia ELGETA

1924ko maiatzaren 18an sortu zen Euskal Mendizale Federazioa (EMF). Elgetan izan zen sorrera ekitaldia, jendetsua bezain ilusionagarria. Ondoren etorri ziren herrian bertan egindako beste hainbat batzar. Gaur egun ez da existitzen EMF, barne arazoak eta 36ko altxamendua tarteko Euskadiko eta Nafarroako federazioetan banantzeraren behartuak izan baitziren. Hala ere, bi federazioek hartuko dute parte urtemuga ekitaldian.

Ekitaldia

10:00etan emango diete hasiera ekitaldiari, oroitzapenezko plakaren aurkezpenarekin. Jarraian, 10:15ean, Euskadiko Mendi Federazioko eta Mendi eta Eskalada Kirolen Nafarroako Federazioko presidentek hartuko dute hitza. Bost minutuko hitzartzearen ondoren, ehun urtetik gorako mendi klubei aitortpena egingo zaie, eta Karmele Biurrun Samaniego Nafarroako klubetako bokal eta MEKNFko lehendakariordearen hitzaldia egongo da. Gainera, Cari Velez Asurmendik –MEKNFren lehendakari ohia 1992tik 1996ra– aginte makila Karmele Biurrun Samaniegori, MEKNFren lehendakariordeari –2020tik 2024ra–, pa-



1924ko maiatzaren 18ko sorrera ekitaldia Elgetako plazan. EMF ETA FNDME

sako dio. 10:45era arte izango da hori, eta jarraian, ekitaldi instituzionala hasiko da, Euskal Herriko ordezkari politikoekin.

Ordu laurden iraungo du ekitaldi instituzionalak, eta, ostean, EMFko eta FNDMEko presidente ohiei aitortpena egingo zaie. 11:30ean, Euskal Herriko Mendi Biltzarraren aurkezpena egingo dute. Mendi Biltzarra, duela 100 urteko federazioaren gisan, federazioen arteko entitate amankomuna izango da. Ekitaldia amaitzeko, Elgetako alkateak azken agurra emango du.

Bestelako ekimenak

Urtarrilean hasi zituzten urtemugaren inguruko ekitaldiak. Hala ere, egunean bertan beste bi ekimen egongo dira Elgetan, urtemuga jaiaren bueltan. Alde batetik, *Gailurretan izan gaitun* erakusketa bisita egiteko aukera izango da Espaloia Kafe Antzokian. Bestalde, 14:30ean hasita, herri bazkaria egingo dute herriko frontoian, eta musikaren bidez giroa aldatuko dute bazkalosteak. Hala ere, dagoeneko amaitu da bazkarian izena emateko aukera.

EAJk bat egiten du Berdindu zerbitzuaren adierazpenarekin

LGTBIQ+ fobiaren aurkako eguna da gaur, eta EAJk babesa erakutsi die kolektibo horretako kideei

G.B.Z. DEBAGOIENA

1990eko maiatzaren 17an, Osasunaren Mundu Erakundeak homosexualitatea ezabatu zuen buruko gaixotasunen zerrendatik. Geroztik, egun horretan LGTBIQ+ fobiaren aurkako Nazioarteko Eguna ospatzen da. Debagoieneko EAJk adierazi duenez, euren helburua beti izan da "sexu- eta genero-aniztasuna aldarrikatzeko politikak garatzea". Adierazi dutenez, hori izan zen Eusko Jaurlaritzak Berdindu zerbitzua sortzearen arrazoia. EAJk dioe-

nez, "LGTBI kolektiboari eta bere inguru osoari laguntzeko" helburua du zerbitzuak, baita "euskal hiritargo osoaren berdintasuna bermatzea, gizabanako bakoitzaren sexu-orientazioa eta generoa edozein direla ere, bai eta diskriminaziozko jarrerak ezabatuko dituen gizartea eraikitzeko oinarriak finkatzea". Amaitzeko, aniztasunaren defentsan jarraituko dutela adierazi dute: "Gizartearen aniztasuna gure indarra da, bai eta defendatu eta babestu behar dugun balioa ere".



LARRAITZ ZEBERIO

COVID iraunkorra, lehen lerrora

Debagoieneko ospitalearen atarian elkartu ziren Long Covid Euskal Herria elkarteak, COVID iraunkorra duten gaixoen egoera lehen lerrora eramateko asmoz. Haien ustez, gizarteak eta osasun sistemak alboratu eta isilarazi egin dituzte. Azaldu zuten, hilerok elkartzen jarraituko dute, hileko hamabosgarren egunean, EAEko hainbat tokitan, txandaka.

Agirre-etxe bigarren III. Hanburgesa Artisau Lehiaketan

Bigarren postua eskuratu zuen Arrasateko Agirre-etxe harategiak joan den zapatuan Azeptian jokatu zen, Gipuzkoako III. Hanburgesa Artisau Lehiaketan. Ederto-Harakel Gipuzkoako harakinen elkarrekin eta Dendartean Gipuzkoako merkatariek elkarrekin bilkurak antolatu zuten lehiaketa. Azeptiko Ermela urdaitegiak irabazi zuen.

Palestinaren alde mobilizatu zen Kontseilu Sozialista

Nakbaren egunean, maiatzaren 15ean, Deba bailarako Kontseilu Sozialistak deiturik, "Israelek palestinaren aurka egin duen eta egiten ari den sarraskia" salatuz zuten Arrasaten. Alderdi eta politikari profesionalen jarraitzaileak zuten, "bakearen aldeko promesak egin arren ez dutelako neurri errealik hartzen genozidioa gelditzeko".

Gernika-Palestina ekimenak kaleak hartu zituen

Gernika-Palestina ekimen herritarrek deituta, Euskal Herri osoan 50 herritan baino gehiagotan egin ziren elkarretaratzeak maiatzaren 11n; tartean, Arrasaten, Bergaran, Elgetan eta Aretxabaletan. Arrasateko kasuan, ordu erdiko mobilizazio isila izan zen, *Palestina Askatu! Genozidioa gelditu!* zioen pankarta zeramana.

Ate irekiak izango dira Gurutze Gorrian domeka honetan

Debagoieneko Gurutze Gorriak ateak irekiko ditu domeka honetan, maiatzaren 19an, Elorekin. Egiten duten lana bertatik bertara ezagutzeko aukera izango da. Besteak beste, Larrialdietako Berehalako Erantzuneko Taldeko eta Lurreko Bilaketa eta Salbamenduko Taldeko partaideetako kideak izango dira.

Merkal Calzadoseko langileek greban jarraitzen dute

2023ko urrian lan-baldintzak eguneratzeko eskaria egin zuten Merkale Calzadoseko langileek, baina bakarrik onartu zieten. Horren eraginez, greba deitu zuten apirila erdialdean. Geroztik, egubakoitz eta zapatu guztietan egin izan dituzte elkarretaratzeak, eta aurreko zapatuan Arrasateko denda partean izan ziren protestan.

Hezkuntza publikoko ia 400 profesional elkartuta

Mugimendu Autonomoa oinarri izan duen jardunaldia egin dute Arrasaten, Amaian, eta bertan izan dira EAEko hainbat txokotatik etorritako profesionalak. Informazio teorikoa jasotzeaz gain, Arrasate Herri Eskolako esperientzia gertutik ezagutu dute

Amaia Txintxurreta Guridi ARRASATE Euskal Autonomia Erkidegoko eskola publikoetako Haur Hezkuntza etapako ia 400 profesional inguru elkartu ziren atzo, eguena, Amaia antzokian. Mugimendu Autonomoa oinarri izan duten jardunaldi edo juntadizoa egin dute bertan.

Goizeko lehen zatian, Mugimendu Autonomoaren marko teorikoa aurkeztu zuten Biziberritze Nagusiko hiru kidek: Nere Indak, Ane Fernandezek eta Iratxe Ramirezek. Eta horren ostean, EAEko eskola publikoko arituek edo maisu-maistrek hartu zuten hitza eta ikasturtean zehar jasotako informazioa partekatu zuten gainontzeko profesionalekin.

Arratsaldean, berriz, Arrasate Herri Eskolako Bedoñabe eta Musakolako eraikinak bisitatu zituzten juntadizoa izan ziren 150 profesional inguruk, eta bertako hezitzaileek Mugimendu Autonomoa eskolan nola ahalbideratzen duten azaldu zieten gertutik.

Mugimendu Autonomoa

Haur Hezkuntzako Dekretua aurrera eramateko modu bati deritzo Mugimendu Autonomoa. Honela azaldu zuten Berritzegune Nagusiko Curriculum metodologiako Haur Hezkuntzako Mugimendu Autonomoko arduradun Nere Indak: "Haurra ikusteko eta begiratzeko modu konkretu bat da. Konpetentzia oinarritutako heziketa baten haurren garapena aintzat hartzen da, eta da eraldaketa bat profesionalontzat, maisu-maistrentzat. Benetan umeari kanpotik eragin beharrean, umeak badauka berezko gaitasun bat, eta gaitasun hori hezteko eta garatzeko gure esku-hartzea zein izan behar den zehazten du". Gaineratu zuten berezko mugimendu intrintseko bat dela eta garapeneko autonomia integral horren afektiboa,



Ane Fernandez, Anaje Ferreira, Nere Inda eta Iratxe Ramirez, jardunaldian. A.T.G.

sexuala, komunikatzekoa...- bideratze bat dela.

Azken zortzi urteetan dihardute horretan lanean, baina atzo aurkeztu zuten gaiari buruzko dokumentua.

Aldaketak ekarri ditu

Haur eskoletan ere eragina izan duen arren, momentuz, Haur Hezkuntzan dihardute Mugimendu Autonomoa lantzen, eta hainbat aldaketa ekarri dituela esan zuen Indak: "Aldaketa batzuk ikusi egiten dira; esaterako, geletan hainbat lengoaiatako ekosistemak sortu ditugu: matematika, hizkuntza, jolas simbolikoa... Baina sustraiak askoz sakonagoak dira".

Juntadizoaren helburua

Mugimendu Autonomoan lan egin nahi duten eskola publikoetako profesionalen formakuntzaz gain, atzoko saioarekin Haur Hezkuntzako hezitzaileak "saretu eta ahaldu" nahi izan dituzte antolatzaileek. Izan ere, diote Haur Hezkuntzan "eraikitzen" dela pertsonaren oinarria, eta esan daitekeela bizitzako etapa "garrantzitsuena" dela garai hori, hain justu.

"Haurrekin esku-hartzean, maisu-maistrek umearen bidelagun gara"

LOREA SUAREZ

ARRASATE HERRI ESKOLAKO BERRIKUNTZAKO ARDURADUNA

Arrasate Herri Eskolan 2020/2021eko ikasturtean hasi ziren eraldaketa metodologikoan lanean, Berritzeguneak emandako aholkularitzaren laguntzarekin, eta Mugimendu Autonomoko juntadizoa parte hartu dute.

Nolako esperientzia bizi duzue eskolan?

Aurretik zirkulazio librean ibilitako eskola gara; beraz, nahiz eta aldaketak egon diren, aurrekari hori izateak eragin positiboa izan du mugimendu honetan sartzeko.

Zein eragin izan du horrek zuen lanean?

Haurrekin esku-hartzean, maisu-maistrek umearen bidelagun gara. Izugarrizko garrantzia ematen zaio materialaren aurkezpenari, txukuntasunari, koloreen



A.T.G.

sailkapenari... Eta naturako elementuak gelara sartu ditugu; esaterako, egurra. Bestalde, lehen, kolore biziak genituen eskoletan; orain, neutroei ematen diegu garrantzia.

Zein eragin du horrek guztiak umearengan?

Horrek guztiak lasaitasuna ekarri du. Lanparak ere jarri ditugu geletan eta etxeko giro goxo eta lasaia transmititzen diegu gelan ere.



DEBAGOIENKO

PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
blasaga@icagi.net

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE
Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABAETA
Araba ibilbidea 20, behea
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ETXE ADMINISTRATIOAK

URIBESALGO ADMINISTRATIOAK
ARRASATE
Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.



ZABALIK

MONIKA MADINABEITIA MEDRANO

Faustoren patua

Fausto da kondaira alemaniar klasiko baten protagonista, XV-XVI. mendekoa. Agian, batzuentzat ezagunagoa, Johann Wolfgang von Goethe idazle alemaniarrek idatzitako moldaketagatik.

Nik beste moldaketa bat dakart oraingoan, berriagoa denboran, 2019koa, baina gai anakroniko eta unibertsala lantzen duena baita. *The fate of Fausto: a painted fable*. Euskarara ekarrita *Faustoren patua: fabula margotua* izan litekeena. Oliver Jeffers autore eta ilustratzaileak egindako lana da.

Liburuak harrokeriaz betetako Fausto protagonista irudikatzen du, berekoa, zekena, miserablea. Uste du bere inguruan ikusten duen guztia berea dela. "Zu nirea zara" esaten die loreari, ardiari, mendiari... bukaerarik gabe, ase ezinik, ohartu barik gehiegizko gutziak norberaren erorketa dakarrela. Sentitzen dut *spoiler-a*

"ZU NIREA ZARA" ESATEN DIE LOREARI, ARDIARI, MENDIARI... BUKAERARIK GABE, ASE EZINIK

izatea, baina hori da, azkenean, Faustori gertatzen zaiona, erori egiten dela.

Irudi lañoen bitartez, ia hitzik gabe, maisulan minimalista horrek gutizia,

kolonialismoa, boterea eta ekologismoa azalarazten ditu. Ume baten begietan, oso posible da umea konturatzea Fausto inozoa dela, ergela, pentsatzen duelako dena dela berea, arnasten duen airea baita. Pentsatu nahiko nuke helduok ere irakurketa bera egiten dugula. Agian (gutxi) batzuek?

Faustoren patua-k fabula garrantza dakarkigu, ezaguna eta gertukoa. Bertsio horretan Fausto azkenean erori egiten bada ere, bidean zapaltzen ditu lorea, ardia, mendia, zuhaitza, aintzira, Netanyahu palestinarrak zanpatzen ari den bezala, Konkordia Legeek frankismoan eta ondoren pairatutakoa ahantzarazi nahi duten bezala, edota gu geu, norbere desioak eta kapritxoak eskubide gisa aldarrikatuta, gure albokoa suntsitzen (uzten) ari garen bezala. Eroriko gara. Gure patua da. Gu ere Fausto gara.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



GUTUNAK

Mila esker!

XABIER ZELAIA

OÑATI ABESBATZAREN IZENEAN
OÑATI

Lerro hauen bitartez, Oñati Abesbatzako kide guztion izenean gure eskerrik beroena agertu nahi dizuegu joan den zapatuan, hilak 4, Bidaurretako elizan, abesbatzako kide zen Xabier Ugarteren omenez egindako kontzertuan gurekin izan zineten guztioi. Eskerrik asko Esteban Urzelairi eta Madrilgo Euskal Etxeko Orfeoiko kideoi, eskaini zeniguten kontzertu bikainagatik; mila esker Bidaurretako monasterioiko lekaime guztioi, eman

zenizkiguten erraztasunengatik; eta gure eskerrik beroena kontzertuan gurekin izan zintuztegun entzule guzti-guztioi. Oso hunkigarria eta motibagarria izan zen guretzat ere emanaldia hasi orduko eliza bete-betea zegoela jakitea. Eskerrik asko, bihotz-bihotzez!

Otso gogorak

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN
ARDURADUNA
BERGARA

Urte asko daramatzate Txernobyl inguruko otsoak ikertzen; erradioaktibitate handiko eremuetan bizitzeko

du ten gaitasunari azalpen bat eman nahian dabilta.

Ikerketak, baina, bere zailtasunak ditu: otsoei odol-laginak hartu behar zaizkie, eta azken teknologiako aparatuak ipini, distantziara jarraipena egiteko; tartean, beste arazo batzuk sortu dira: pandemia eta Ukrainako gerra. Baina, zailtasun guztien gaineratik, Care Love taldeak lortu ditu gizakiak minbiziari aurre egiteko informazio interesgarriak.

Hobekuntza guztiak ondo datoz, baina onena zentral nuklearrak desagertzea izango litzateke, eta, horretarako, hura erabiltzen duten enpresei ez erostea.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Gaiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa

arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Leire Etxebarria.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Kooperatiben balioek dute garrantzia XXI. mendean"

LOURDES IDOIAGA ARIZMENDIARRIETAREN LAGUNAK ELKARTEKO PRESIDENTEA

Gontzal Belategi Zubia ARRASATE Batzar nagusia egin zuen Arizmendiarrietaren Lagunen Elkarreak eguaztenean, eta bertan, 2024rako lan ildoak jorratu zituzten. Bertako presidente da, joan den urtea ezker, Idoiaga. **Garrantzitsua da zuentzat Arizmendiarrietaren legatua hedatzea?**

Bai; gainera, askorako balio duela esango nuke. Ez diogu haren doktrina erlijiosoari erreparatzen, humanismo eta pentsamendu sozialari baizik. Enpresetan, gizartean, zabaldu behar dira balio horiek. Arrasateko esperientzia kooperatiboa mundu osoan da erreferente, eta haren legatua enpresa baten balioak, irakaskuntzarako balioak, balio humanista horretatik egitea da. Horretarako guztirako bere funts dokumentala dugu. Ez zuen libururik idatzi, baina 6.000 erreferentzia baino gehiago aztertu ditugu. Azterketa hau ez da apal baten geratzeko egin, erabiltzeko egin dugu. Gainera, adimen artifizialetik abiatuta, Arizmendiarrietak idatzi ez zuen liburu hori idatzi nahian gabilta. **Eta egungo eredu kooperatibista?** Aspaldi konturatu ginen unibertsitateetan, curriculumean, ez dela Euskal



Lourdes Idoiaga, eguazteneko batzar nagusian. GONTZAL BELATEGI

Herri osoan hedatuta dagoen sistema kooperatibo honen inguruan ezer esaten. Horregatik, duela urte batzuk material bat sortu genuen, hitzaldi eta kurtsoak eman ahal izateko. Deustun, Mondragon Unibertsitatean eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan izan gara, kapitalean oinarritutako enpresek eta kooperatibok ditugun ezberdintasunak azaltzen. Gainera, geroz eta eskaera gehiago ditugu. Joan den urtean 50 ikastaro baino

gehiago eman genituen, eta 966 ikaslek hartu zuten parte. **Ikerketa esparruan Susperzen proiektuarekin zabilzate.** Bere garaian landu genuen *Susperzen* eta liburu bat argitaratu genuen, arrakasta handia izan zuena. Kooperatibetan zer dagoen aztertu genuen, etorkizunari begira. Ez zegoen gauzetako bat Mondragoneko esperientzian kooperatibek gizarteari egiten dioten ekarpena da; adibidez, bazterkeriaren aurka zer

egiten duen. Betiere, datuetan oinarrituta. Orain, bigarren zatia garatuko dugu, Aukerak Egia Bihurtzen izana daramana. Arlo berri bat irekiko dugu, etorkizunera begira kooperatibek izango dituzten erronkak aurreikusi nahi dira. Ideologian berrikuntza bat eman nahi da. **Ikerketaren esparruan lan ildo berri bat ere garatu duzue, ezta?** Hastapenetan dago oraindik, baina, finean, enpresa ereduaren kudeaketa aldatu nahi da, kooperatibisten ezagutza konplexua; hau da, diziplinartekotasuna eta belaunaldiartekotasuna alineatu eta hortik sorkuntza partekatu bat bultzatzeko. Honen helburua langileentzat aberastasun orokor bat sortzea da, baina ez materiala, intelektuala baizik. Modu horretan, ezagutza konplexu horretatik abiatuta metodologia berri bat osatu nahi da. Gu baino aurreratuago dauden ereduarekin ikasi eta hauek gurea ekarri nahi ditugu.

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluarekin ere lanean zabilzate.

Asko estutu da gure harremana beraiekin. Datorren urtean Kooperatiben Goren Kontseiluak liburu bat atera nahi du Euskadiko kooperatibismoaren inguruan, eta gure elkarteari eskatu diote ardura hartzeko Arizmendiarrietari buruzko atala aurrera eramateko. Bestalde, beste gogoeta eta mahai batzuetan ere parte hartu dugu. Gainera, 2025a

kooperatibismoaren nazioarteko urtea izango da eta horrako ere eskaerak konkretatzen gabilta. Elkarlan hau oso garrantzitsua da guretzat, Kontseiluak duen influentzia kooperatibetara ekarri dezakegulako.

XXI. mendean badu zentzurik eredu kooperatibista?

Bai, baina kooperatiben eredu oinarritzen den balio eta printzipioek dute garrantzirik handiena XXI. mendean. Ideologia humanista eta soziala da, hor ez dago doktrinarik. Orduan, kooperatibismoaren oinarri horiek gaurkotu eta esparru berrietara zabaldu behar ditugu. Zigor Ezpeletak atzo eman zuen ponentzian ere garbi ikusi zen eraldaketaren erronka dugula aurrean. Ponentzia horren sarreran Arizmendiarrietak berak esan zituen hitz zehatz hauek erabili nituen: "Mundua ez zaigu eman begiratzeko, eraldatzeko baizik".

"ARRASATEKO ESPERIENTZIA KOOPERATIBOA MUNDU OSOAN DA ERREFERENTE"

"KOOPERATIBISMOAREN OINARRIAK GAURKOTU ETA ESPARRU BERRIETARA ZABALDU BEHAR DITUGU"



Realaren eta Atletico Madrilaren arteko partidarako sarrerak **futbol zelaiko tokirik onenean**

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Atletico Madril norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeraturako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Partida Maiatzaren 25ean 21:00etan.

Parte hartzeko azken eguna: maiatzaren 19a.

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzue!

goiena^{''} kide

Okm: batzen gaituen distantzia

Herritar bakoitzak egiten duelako herria herri

Aniztasun Mahaia osatzen duten eragileek 2024ko Aniztasun Astearen egitarauaren berri eman dute; aste honetan hasita, hamar ekintza egingo dituzte, Arrasatek duen aniztasuna ikusarazteaz gain, eragileak saretuta daudela erakusteko helburuarekin

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Maiatzaren 21ean izango da Aniztasunaren Nazioarteko Eguna, eta, horren harira, ekintzaz beteriko egitaraua prestatu du Arrasateko Aniztasun Mahaia. Jasone Giraldo Ongizate Saileko zinegotziak azaldu duenez, aniztasuna "bere zentzu zabalenean" herritar guztiarekin ospatzeko helburua du egitarauak. "Herri anitza dugu eta horren adierazle garbia da Aniztasun Mahaia. Urte urte herriko eragile berriak batzen zaizkigu eta Mahaia osatzen duten eragileak, lan-lerro ezberdinetatik bada ere, aniztasunaren sare sendoa ehuntzeko gai izan dira, urteetako elkarlanaren ondorioz. Haiek izango dira protagonista Aniztasun Astearen", azaldu du zinegotziak.

Bestalde, Ekin Emakumeak Elkarteak kide Laura Buenok eta Oihane Pildainek azaldu dute egitarauaren helburu nagusia zera dela: "Herriak ikustea aniztasunari dagokionez saretuta gaudela, elkarrekin edo eragile bakoitzak bere ekarpena eginez. Bestalde, baliatuko dugu gure burua ikusarazteko; hau da, herriak ikus dezan existitzen garela eta lan egiten dugula urte osoan zehar. Izan ere, egitaraua zabal izan arren, urte osoan ere gauza asko egiten ditugu eta egunerokoan egiten dugu aniztasunaren aldeko apustua. Hori ere nabarmendu gurako genuke".

Aniztasun Mahaia askotariko eragileek osatzen duten arren, herritar guztiei dei egin diete ekintzetan parte hartzera. "Geroz eta adierazpen gehiago kontuan hartzen baditugu, orduan eta aukera gehiago izango ditugu dauden beharrei erantzuteko".

Askotariko eragileak Mahaian

Udalaz gain, asko dira Aniztasun Mahaian dauden eragileak, egitaraua antolatu dutenak. Hain zuzen ere, Arrasateko Nagusien Kontseiluak abiatu du egitaraua,



Aniztasun Mahaiko eragileak, martitzenean, aurkezpenean. MIREIA BIKUÑA

'IPUIN HEGALARIAK' KONTAKETA EGINGO DU GAUR MAIDER ALCELAYK, ANIZTASUN ASTEAREN BAITAN

San Isidro eguneko jaialdi inklusiboarekin (Ikus 10. orria).

Horrekin batera, Ekin Emakumeak Elkartearen eskutik, *Ipuin hegalaria* ipuin kontaketa egingo du Maider Alcelayk gaur, egubakoitza, 18:00etan, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan.

Eta maiatzaren 23an, Gipuzkoako biztanleria migratuaren eta LGTBIQ+ kolektiboaren egoerari buruzko hitzaldia egingo dute Ekinen lokalean, 18:00etan.

Ikastetxeek ere hartuko dute parte. Batetik, maiatzaren 24an, munduko jolasen lanketa eta jaialdia egingo dute hurrekin eta familiarekin, Arizmendi Ikastolaren eskutik. Arimazubi gunean izango da hori, 14:30ean hasita. Bestetik, Arrasate Herri Eskolak *Guk eiz guk jan* ekimena egingo du hilaren 25ean.

Egun berean, Txatxilipurdi Elkartearen eskutik eta boxeoa

ardatz hartuta, genero ikuspegia landuko dute, Erguingo gazte txokoan, 12:00etan.

Garagune eta Activos Por Un Mundo Solidario dira egitarauaren parte hartuko duten beste bi eragile, eta haien ekintza maiatzaren 27rako prestatu dute. Era horretan, *Gure nortasuna* proiektua aurkeztuko dute Kulturateko areto nagusian, 11:30etan.

Maiatzaren 30ean, halaber, kultura aniztasunaren jai egingo dute Arizmendi Ikastolakoek Santa Teresa gunean.

Azkenik, ekainaren 1ean bi ekintza egongo dira, egitaraua borobiltzeko: batetik, Amerika Elkartearen eskutik, Mugarik Gabe eguna egingo dute, Biteri plazan, 11:00etatik 23:00etara. Hala, Latinoamerikako azoka gastronomikoa eta dantza folklorikoak, ipuin eta poesia lehiaketa, pintxo dastatzea, Amerika Elkarte dantza taldearen aurkezpena eta La Klave musika taldearen emanaldia izango dira.

Bestetik, Begisare elkarteak informazio mahaia ipiniko du Biteri plazan, 11:30etik 14:00etara, eta ikusmen murriztua nola bizi duten erakutsiko diete herritarrei.



Oxel Etxebarria (Bexen Cardio) eta Maider Morras alkatea. AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ

Hamazazpi desfibriladore instalatuko ditu Udalak herrian

Bexen Cardio enpresarekin batera kokatuko dituzte; era berean, 200 boluntarioko sare bat sortu nahi dute

E.A.B. ARRASATE

Udalak hamazazpi desfibriladore instalatuko ditu herrian, Bexen Cardio enpresarekin; asteon hasi dituzte lanak eta espero dute hilabete amaierarako bukatzea, Maider Morras alkateak dioenez. "Helburua da osasun ekosisteman aurrerapausoak ematea, herri osasuntsua izan dadin, eta zerbitzu horrek bizitza asko salba ditzake".

Leku hauetan kokatuko dituzte: San Frantzisko elizaren alboan; Euskal Herria plazaren atzean; Musakolan; Makatzenan; Altamiran; Santa Teresan;

Etxeazpia kalean; Udalpen; Uribarri-Uriburur; Arimazubin; Garagartzan; San Andresen; Kataiden; Gesalibarren; Udalan; Bedoñan; eta Meatzerrekan. Batzuk totem laranja batean sartuta egongo dira -Musakolako, adibidez- eta beste batzuk, aldiz, eraikinetako paretetan.

Herritarrek, "ezinbestekoak"

Herritarren inplikazioa "ezinbestekoa" izango da sistemak funtzionatu dezan. Hala, boluntario sare bat osatuko dute eta hiru orduko ikastaro bat jasoko dute haiek; praktikak egingo dituzte.

Teknologia berriei buruzko bi saio, gurasoei zuzenduta

Udal Prebentzio Zerbitzuak teknologia berriei buruzko bi hitzaldi antolatu ditu, gurasoendako, horien erabilera arduratsua sustatzeko helburuarekin.

Hala, Orain prebentzio elkarrekin Mikel Cerezo gizarte hezitzailearen eskutik, teknologia berriak izango dituzte hizpide maiatzaren 27an eta 28an Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 18:00etan. "Ba al dakizu zure seme-alabak nola erabiltzen dituen sare sozialak eta Internet? Erabilera arduratsuz, arriskuen prebentzioaz eta jarduteko jarraibideez hitz egingo dugu", azaldu du. 943-25 20 00 telefono-zenbakian edo udal webgunean eman daiteke izena.

Loreak, ortuko landareak eta kale antzerkia azokan

Bihar, zapatua, egingo dute bertako produktuen azoka, 09:00etan hasita, Seber Altube plazan. Hamabost postu egongo dira, eta, ohikoez gain, loreak eta ortuko landareak izango dira protagonista; erosketa-tiketarekin, landareak ere banatuko dituzte: perrexila, piper txikiak, albaka eta tomatea. Hileko saskiaren zozketa ere egingo dute.

Azoka osatzeko, Zurrunka taldearen *Birakolore* kale antzerkia ere egongo da, 11:30ean hasita. Hain zuzen ere, Seber Altubetik abiatuta, Basilio eta Valeria kalez kale ariko dira, gurditxoak lorez beteta dutela, bizitza landatzen, haziak banatzen eta olerkiak eraitzen.

Domekan abiatuko dute Naturan Jolasean festa

Naturan Jolasean jaialdiaren bederatzigarren edizioa aurkeztu dute Leintz Eskola Kirolak, Besaide Mendi Elkarteak, Gaztetxeko Guraso eta Haur Asanbladak, Udalako Ingurumen Eskolak, 'Guraso.eus'-ek eta Txatxilipurdik. Etzi egingo dute lehen ekintza

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Azken hamarkadetakoko garapen ereduaren aurka, naturarekiko harremana mantentzea eta haren sustraietara lotuta jarraitzea du helburu Naturan Jolasean jaialdiak. "Azken hamarkadetakoko garapen ereduak natur eremuetatik urrundu eta hormigoizko hiri handietara bizitzera eramanez gaitu. Horrek ekarri du naturak eguneroko bizimoduaren aurrera egiteko eskaintzen dizkigun baliabideei muzin egitea", nabarmendu dute antolatzaileek.

Hala, naturaren balioa aintzat hartzea ezinbestekotzat dute eragileek, naturatik urruntzeak "kultura oso baten galera" dakarrela argudiatuta: "Jakituria, ohitura, erritu, legenda eta kontakizun herrikoiak; zuhaitz, landare eta animalien inguruak; landa-eremuaren, urtaroen eta, oro har, luraren inguruak; osasuntsu bizitzen laguntzen zigutenak eta, batez ere, gure bizitzari benetako zentzua ematen ziotenak".

Aldi berean, argi dute natura ordezkorik ez duen osasun, ongizate, ikasketa eta sormen iturri "agorrezina" dela. "Hori horrela, beharrezko ikusten dugu naturaguneekiko atxikimendua areagotzeko dinamikak sortzea", adierazi dute. Hain zuzen, horri

erantzutera dator, beste urte batez, Naturan Jolasean.

Akotorariko ekintzak, etzi hasita Etzi, 10:00etan eta 12:00etan, espeleologia txangoa egingo dute Montxongo koban, LHko 3. eta 4. mailetako ikasleentzako.

Maiatzaren 23an, 17:00etan, murala margotuko dute Biterin, eta 17:30ean kalejira berdea egingo dute, Biteritik Monterronera. Han bertan, 18:00etan, natura liburu berrien aurkezpena eta ekintza gidatua izango da, Sua argitaletxearen eskutik.

Maiatzaren 25ean, 18:00etan, Ziorlako begiratokira igoko dira, Zaldibartik abiatuta, eta han *Praktika onak mendian* tailerra egingo dute, 19:30ean, Amaia Etxebeste mendi gidariaren eskutik -izena eman behar da-. 20:30ean afaria egingo dute eta 21:30ean, Gaubela mitologikoa. Ondoren, *vivac* egiteko aukera egongo da Ziorlako begiratokian -izena eman behar da-. Azkenik, maiatzaren 26an herri gosaria egingo dute, 08:30ean hasita, eta 09:30ean jaitsiko dira herrira.



Antolatzaileak eta haurrek, Naturan Jolasean jaialdia iragartzen. NATURAN JOLASEAN



NIRE USTEZ

OIANA SANCHEZ

San Isidro

Nekazarien patroia dugu San Isidro. Beraz, gizakion lehen sistema ekonomikoaren patroia izanik, jarduera primarioenen patroia bada. Azkenaldian bizitako hainbat egoerak gizakiarengan nuen esperantza apurra galtzera behartu naute. Jatorriz biolentoak al gara? Zer da ekintza petralak egitera bultzatzen gaituena? Zergatik gara besteekiko hain krudelak? Gure oinarri basatia kontrolatzeko arazoak izaten ari garela dirudi eta taldean ibiltzerakoan arazoa geroz eta larriago bihurtu ohi da. Hala ere, beste aldean, ekintza ederrak egiteko kapazitateak ere liluratzen nauela aitortu beharra daukat. Adiskidetasuna, adibidez, edonori eta familia izan gabe maitasun desinteresatua emateko ahalmena edota besteentzako musu-truk eta ilusioz lan egiteko indar hori, nondik atera ote dugu? Sortzeko eta suntsitzeko ahalmena izanda, zer bultzatzen gaitu batera edo bestera? Gizakia, okerrenerako eta onenerako gai, betiko eta betirako kontraesana. On Isidro, nahiz eta sinesgabe eta atea izan, mesedez, barkaiezaguzula erregutzen dizut!

730 zuhaitz eta zuhaixka landatu ditu Udalak herri osoan

Arrasate "berdeago, jasangarri, ekologiko eta atseginagoa" erakitzeke helburuarekin landatu zituzten, urtarrilean eta otsailean; gehienak hirigunean, baina baita landa-auzoetan eta industrialdeetan ere: Erguinen, Santa Marinaran, Musakolan, Uribarrin, Altamiran, Garagartzan, San Andresen, Markuletan eta abar. Horrekin batera, bestelako interbentzio txikiak ere egin dituzte, berdeguneak sortuz eta horietan esku-hartze berriak eginez, Arrasate pasealekuan eta San Frantzisko eliza atzean. Azkenik, *basotxoak* izeneko zuhaitz guneak sortu dituzte, besteak beste, Uribarrin, Musakolan eta Zerrajeran.

OHARRAK

Suteen prebentzioa

Arrasateko Nagusien Kontseiluaren eskutik, Josu Mañarikua suhiltzaileak hitzaldia egingo du Kulturateko areto nagusian, astelehenean, 17:30ean.

Ikus-entzunezkoa

Pello Sarasuaren *Arantzazu. 36 zm, 5 mende, herri bat* lana Amaia antzokian proiektatuko dute martitzenean, 19:30ean. Sarrera bost euro da.

Hitzaldia Kulturaten

Aramaixo Bizirik, Orixol eta Askapena taldeen eskutik, Antonio Aretxabala geologoak hitzaldia egingo du martitzenean, 18:30ean, Kulturateko areto nagusian.

VITALDENT
ZURE AHOA DENA DA

%15EKO DESKONTUA
HORTZ-ESTETIKA⁽¹⁾



ARRASATE

Otalora Lizentziaduna kalea 1
943 06 03 22

(1) 24/05/01etik 24/06/30era bitarteko promozio baldinaz, biak berriz. Oinarritutako estetikan zuzen zerbateko osari aplikatuko da 250 €-tik gorako tratamenduetarako. Ez da metage-ria beste deskontu eta sustapen batuekin. Ez da bateragarria Vitaldentekin diruz lagundutako interesak dituen finantzaketa-motekin. Kontsultatu zure tratamenduarien tarifak zure Vitaldent Minikan. Medikarean agindutako tratamenduetarako, CS0775 osasun-argigintza, RPS 265-21



Gazteak eta nagusiak San Isidro plazako karpan txaloka, Udaleko ordezkariak agertokian hitza hartuta. A.T.G.

San Isidro eguna modu inklusiboan ospatu dute

Arrasateko Nagusien Kontseiluko kideek antolatuta, Musakola zentroko egoiliarrek kalera irten dira Institutuko DBH-2ko ikasleez lagunduta, eta San Isidro eguneko goiza elkarrekin ospatu dute. Ermita bisitatu dute eta musika eta luntxa ere izan dute

Amaia Txintxurreta Guridi ARRASATE Musakola zentroko egoiliarrek eguaztena modu berezian ospatu zuten. Izan ere, San Isidro eguna zela aprobetxatuta, Arrasateko Nagusien Kontseiluko kideek antolatuta, jai inklusiboa egin zuten eta egoiliarrek gazteen konpainia izan zuten goizean zehar. Eguneko zentrotik San Isidro ermitara joan ziren lehengo, han bisita gidatua egin zuten, eta, ondoren, San Isidro plazan eguneko zentroko pertsonen eta langileen omenaldia egiteko, Maider Morras alkateak eta Jasone Giraldo Gizarte Ongizateko zinegotziak hartu zuten hitza. Ondoren, festa giroa nagusitu zen, musika saioarekin eta luntxarekin.

Horrelako egunen garrantzia Nagusien Kontseilukoek aurretik ere egin izan dituzte irteera inklusiboak. Honelaxe azaldu du elkartearen presidentea Pili Iriartek: "Nagusien Astean egin genuen Iturbide egoitzakoekin

irteera desberdin bat San Andresko obra berria ezagutzera. Bertaraino eraman genituen eta asko emozionatu egin ziren, erresidentziatik irten gabe zudelako eta ez zutelako obra hori ezagutzen. Real Sociedad Fundaziokoekin egin genuen, beste behin, *Bizikletan adinik ez* ekimena, egoiliarrek kalera ateratzeko. Euren gustuak ezagutzen joan gara, eta oraingo irteeran musika saioa jarri diegu, konturatu garelako asko gustatzen zaiela".

Musakola zentroko Itsaso Aguinagalde eta Maria Asuncion Hernando langileek ere halako egunen garrantzia azpimarratu dute: "Garrantzitsua da, abiapuntuz hartzen dugulako

IRTEEREK EGOILIARREI LAGUNTZEN DIE BAKARDADE SENTIMENDUA MURRITZEN

eguneko zentroko adinekoak Arrasateko bizilagunak direla, asko Zigarrolakoak, eta komunitate horren parte direla. Horrelako jardueren bidez pertsonen arteko eta bizikidetzako harremanak hobetzen dira, autoestimua eta gozamenaren areagotzen da eta bakardade-sentimendua murriztu, eta, aldi berean, bizi-kalitatea hobetu".

Nagusien Kontseiluko Iriartek gaineratu du zahartzeko aktiboa lantzeaz gain garrantzitsua dela belaunaldien arteko harreman ere lantzea, gazteak kontzientzia daitezkeen nagusien arazoekin, besteak beste.

Lanaren aitortza Jaialdi inklusiboarekin eskertu nahi izan dute baita ere Musakola zentroko langileek egoiliarrekin egunero egiten duten lana, eta langileek adierazi dute adinekoen aldetik ere "asko" jasotzen dutela: "Jakinduria, maitasuna, esperientzia, aholkuak eta abar".

Kirol Orientazio Zerbitzuaren deialdi irekia hilaren 28rako

Musakolako kiroldegian izango da, aurrez izena eman behar da eta bitzta aktiboa sustatzeko helburua du

A.T.G. ARRASATE

Bagoiez Arrasate izenez ezagutzen den kirol orientazio zerbitzuak deialdi irekia antolatu du. Tresa praktikoak eta aholkularitza pertsonalizatua eskainiko dituzte bertan.

Adin guztietako pertsonen har dezakete parte, baina, bereziki, nagusiak dira programaren erabiltzaileak. Orientazio pertsonalizatua emateaz gainera, taldean egiten diren irteera eta aktibitateak ere izango dira.

Jarduera fisiko erregularrak osasunarendako dituen onurak


azpimarratu dituzte arduradunek: "Mugimenduak gaixotasun kronikoen arriskua murrizten du, hala nola gaixotasun kardiovaskularrak, hipertentsioa, bigarren motako diabetesa, koloneko eta bularreko minbizia... Horregatik, garrantzitsua da bitzta aktiboan urratsak egitea, eta horretarako gaude orientatzaile profesionalak".

Deialdi irekia Musakolako kiroldegian egingo dute hilaren 28an, 10:30ean, eta aurrez izena eman behar da, kiroldegian bertan edo 943-25 20 30 zenbakian.

GORA ETA BEHERA



Otalorako zebra-bideak, itxura ona



Otalora Lizentziaduneko bizilagunek aspalditik egin izan dute zebra-bidea jartzeko eskaera, eta diote "arriskua murriztu eta inguruko segurtasuna hobetu" egin dela zebra-bide berriarekin.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.

Hika tailerrean izena eman daiteke hilaren 20ra bitartean

AED elkarteak eta gaztetxeak Arrasateko hika, noka zein toka ezagutu eta ikasten hasteko tailerra antolatu dute. Maiatzaren 25ean eta ekainaren 1ean, 10:00etatik 13:00etara, gaztetxean. Izena maiatzaren 20ra arte eman daiteke, aed@aedelkarte.eus-era idatzita. Prezioa 10 euro da; langabeendako, ikasleendako eta AEDko kideendako, 5 euro.

Dolua hizpide hilaren 21ean Kulturaten izango den hitzaldian

AmaiDolua elkarteak antolatuta, *Familia sistemaren dolu bizi-pena eta belaunaldien arteko eragina* izenburua daukan hitzaldia izango da hilaren 21ean Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 18:00etan. Sara Ines Vitoria izango da hizlaria; bikoteen eta familien psikologo klinikoa da eta traumak prozesatzen laguntzen du, besteak beste.

Igoerarako kanporaketa faseak jokatzeko gogoz

Hirugarren sailkatua da Mondrate, azken jardunaldiaren faltan. 'Play-off' postuetan dago, baina emaitza positiboa lortu ezean igoerako postu horietatik kanpo gera liteke. Hain zuzen ere, Donipariren bisita jasoko du Musakolan

Gontzal Belategi Zubia ARRASATE

Txapelketako azkenengo jardunaldia jokatu du Mondratek zapatuan, 18:00etan, Musakola kiroldegian. Urte osoan sailkapeneko aurreneko postuetan sailkatuta egon da Arrasateko taldea, eta hoigeta hamargarren eta azken jardunaldira *play-off* postuetarako sailkatzeko aukerakin iritsi dira Aitor Cortizasen mutilak. Azkenengo lau jardunaldietan hiru garaipen eta berdinketa bat erdietsita, hiru puntuak lortuta amaitu nahi du denboraldia talde moreak. Horrela, *play-off*-ak jokatzeko postua ziurtatu, eta mailaz igotzeko lehia sartuko lirarteke.



Mondrateko jokalariek partidu baten ostean. GOIENA

Denetarik gerta daiteke

Aurreneko bi sailkatuek abantaila izango dute hirugarrenarekiko eta laugarrenarekiko; bada, etxean jokatu dute kanporaketako partidua. Hirugarrena da uneotan Mondrate, baina edozer pasa daiteke azken jardunaldian: denboraldia bigarren sailkatu gisa amaitzea, baina baita igoera postu horietatik kanpo gelditzea ere. Xabi Gorroñogoitiak, Mondrateko kapitainak, dio "aukera ezberdinak egon arren helburua irabaztea" dela: "Azkenengo partidura iritsi gara *play-off*-erako sailkatzeko aukerekin, eta, berdinketa batek balio digun arren, irabaztera aterako gara, eta helburu hori lortzeko konfiantza handia dugu".

Pasaiako Donipari taldearen bisita izango dute arrasatearrek. Joaneko partiduan 4-3 galdu zuten Mondrateko kideek, baina, hala ere, Gorroñogoitiak dio "garaipena eskuratzea" merezi izan zutela. Aurreko partidua ez bezala, herrian jokatu dute partidu hori, eta horrek beste ikuspuntu bat ematen dio jokoa-ri. "Gogorra izango den arren" partidu "polit" izango dela Musakolakoa eta "irabazteko kon-

IRABAZI EDO BERDINDUZ GERO, IGOERA FASEETAN IZANGO DA ARRASATEKO TALDEA

fiantzarekin" kantxaratuko direla gehitu du kapitainak.

Emaitza logiko guztiak izango balira, hirugarren amaituko luke denboraldia Mondratek, eta, horrela, etxetik kanpo jokatu luke *play-off*-eko partidua. Gorroñogoitiak dio Musakolan bizi duten giroa ez dutela beste edonon izango, baina etxetik kanpo ere zaleen babes izango luketela ziurtatu du, eta ziur dago arrasatearrek eurekin izango direla partidua diren lekuan izanda: "Kanporaketako partidua etxetik kanpo jokatu gero, ziur nago jendea partidua ikustera etorriko dela".

Zaleen babesa, ezinbestekoa

Igoerako kanporaketa partidua urrutu daude oraindik Mondrateko jokalarien ikuspuntutik. Guztiak "azkenengo jardunaldian" ziurtatu behar dutela nabarmen-

du du Gorroñogoitiak. Horretarako, errezeta zein den ere garbi du Mondrateko jokalariek, eta bide horretan zaleen babesa ezinbestekoa izango dela dio kapitainak: "Gure zaleek ez dute gonbidapen beharrik. Baina horren partidu garrantzitsua izanda, arrasatear guztiak gonbidatzen ditugu Musakolako kiroldegira, helburua guztion artean lortu dezagun".

'Mondrate eguna'

Donipariren aurkako partidu horri *Mondrate eguna* izena jarri diote taldeko kideek. Sare sozialetan iragarri dutenez, partidua ikustera doan edonork bi euro ordaindu beharko ditu leihatilan. Ordaindutako bi euro horien truk, sarreraz gain bi errifa banatuko dira. Taldeak iragarri duenez, bi errifa horiekin "zoketa berezietan parte hartzeko aukera izango du baikoitzak". Sare sozialetan ere jendeari dei egin diote arrasatearrei Donipariren aurkako partidara bertaratzeko, eta Musakola morez janzteko aldarria egin dute. Jokalariek herritarren beharra izango dutela azpimarratu dute.



Gari Nuñez, denboraldi hasieran, Mojategin. GOIENA

Gari Nuñezek ez du Mondra taldearen gidaritzan jarraituko

Mondra mailaz igotzea lortu duen arren, Nuñezek sare sozialen bidez iragarri du ez duela taldean jarraituko

G.B.Z. ARRASATE

Denboraldi bikaina egin du aurren Mondra Futbol Klubak Gari Nuñez entrenatzailearen gidaritzapean. Joan den urteko ekainean heldu zen Mondrara entrenatzaile legazpiarra, Aloñatik, eta denboraldi bakarrean taldea egonkortu eta joan den urtean galdutako mailara itzultzea lortu du; liga irabazita, gainera. Hala ere, maiatzaren 13an sare sozialetan zabalduko mezu baten bidez iragarri du ez duela taldea entrenatzen jarraituko.

Taldearekin eskertuta

"2023ko ekainean hasitako ibilbidea bukatutzat ematen dut idatzi honen bidez; motza izan den arren, ederra izan da! Plazera izan da talde honen parte izatea, zuek guztiok ezagutzea eta zuen ondoan lan egitea. Pentsaezina zen denboraldi hasieran horrelako urte zoragarria pasa-

ko nuenik, paregabeko emaitzeekin, eta helburua gauzatuz, gainera"; hori esanez abiatzen du mezua entrenatzaile legazpiarrek. Jarraian, igoeraren ospakizunaz eta herriaren babesaz ere mintzo da: "Itzela ospakizuna, herritarren berotasuna tarteko; egun ahaztezin eta polita".

Amaitzeko, taldearekin eskertuta ageri da Nuñez; bereziki, jokalariekin, denboraldian zehar izandako konpromiso mailagatik: "Nire partetik, eskerrik asko klubari, aukera hau eskaintzeagatik; kirol zuzendariari, emandako babesagatik; lantaldeari, momentu oro zuen ezinbesteko laguntzagatik; eta, nola ez, jokalariei, egunerokotasunean lana gogoz eta ilusioz egiteagatik, zuen konpromisoagatik eta erakutsitako gertutasunagatik".

Mondrako zuzendaritzak oraindik ez du iragarri nork hartuko duen Nuñezen lekukoa.

Emakumezkoen errugbi taldeak 30 urte bete ditu

1991-1992ko denboraldian egin zituzten lehen entrenamenduak Arrasateko Rugby Taldeko emakumeek. Entrenamendu haiek fruituak eman zituzte, eta 1993-1994ko denboraldian ligako lehen partidu jokatu zuten.

Urtemuga ospatzeko, omenaldi eguna antolatu dute maiatzaren 18rako. 12:00etan hasiko dute eguna, atek irekita Moja-

tegin, eta ostean poteoa egingo dute elkarrekin. 14:30ean, berriz, bazkaria egingo dute. Bazkari-rako sarrerak eta kamisetak 20 euroko prezioa dute.

Ikus-entzunezkoa

Arrasateko Errugbi Taldeko emakumeen historia jasotzen duen erreportajea egin du GOIENAK, eta maiatzaren 20an 19:30ean, 21:30ean eta 23:30ean emitituko da Goiena telebistan. Ondoren, *goiena.eus* atarian nahieran ikusi ahalko da.

Orkestra eta abesbatza, berriz elkarrekin

Pandemia ezkeru elkartu gabe zeuden, eta, orain, Udaberri Musikaldiko bigarren asteburuan elkartuko dira berriz ere. Kontzertua bihar izango da, San Frantzisko elizan, 19:30ean; horrez gain, beste bi hitzordu ere badaude bigarren astebururako

Iñigo Barrena ARRASATE

Udaberri Musikaldia bigarren asteburuan sartuko da gaur, eta hitzordu garrantzitsu batekin, gainera: Arrasate Musikaleko Orkestra Sinfonikoa eta Goikobalu Abesbatza berriz elkartuko dira kontzertua emateko; izan ere, pandemia tarteko, ez dute aukerarik izan elkarrekin kontzerturik emateko. Hainbeste itxarondako emanaldia bihar izango da, San Frantzisko elizan, arratsaldeko zazpi eta erdietan hasita.

Iker Olazabal gasteiztarrak zuzentzen du orkestra eta Iñaki Maidaganek berriz, abesbatza; biak ala biak gogotsu dira. "Orkestra eta abesbatza batzea musika klasikoan egin daitekeen nahasketa indartsuena da, eta gogotsu gaude", adierazi du Olazabalek Arrasate Irratikiko *Zaku bete kontu* saioan. "Abesbatzak gustuko du orkestrarekin gauzak egitea. Gainera, pandemia ezkeru ez gara elkartu; beraz, ilusioa dugu", aitortu du Maidaga-

nek. Joan zen zapatuan egin zuten elkarrekin lehenengo entsegua, eta atzo egin zuten orokorra. Orkestrako zuzendariak eta abesbatzakoak esan dute gauzak "doitzea" falta dela, baina "prest" daudela biharko.

Errepertorio indartsua

Bi zatitan banatuko da biharko kontzertua: lehenengoa instrumentala izango da eta Orkestra Sinfonikoa soilik joko du. Franz Schubert-en zortzigarren sinfonia joko dute instrumentalki, ondoren Kenneth Leightonen *Introduction and March finale* piezari paso eman aurretik. "Jotzeko gogorrak diren piezak dira, baina politak, era berean", dio Olazabalek.

PANDEMIA EZKERO ELKARTU GABE ZEUDEN ORKESTRA SINFONIKOA ETA ABESBATZA

Bigarren zatian sartuko da eszenan Goikobalu Abesbatza, Gabriel Faureren requiemean musikari ahotsa jartzeko. "Requiem intimista bat da. Ez da oso gogorra ezta zaratsua ere", adierazi du Maidaganek. Kontzertua borobiltzeko, beste klasiko baten aldeko apustua egin dute: Juan Arzamendiren *Udalamendi* abestiarekin agurtuko dute; Arzamendi hil zela hogeituro urte igaro dira, eta omenaldi moduan egin gura dute.

Bi kontzertu gehiago

Biharko kontzertuaz gain, beste bi hitzordu azpimarratu behar dira: bat gaurko eta bestea datorren eguaztenerako, hilak 22. Gaur, 19:30ean, San Frantzisko elizan, Kea Abesbatzaren kontzertuarekin gozatzeko aukera egongo da. Eguaztenean, berriz, Aitor Garitano tenore bergararra bakarlarri lanetan arituko da Juan Arzamendi Musika Etxeko auditoriumen, arratsaldeko zazpi eta erdietan hasita.

Arrasate Literatur Lehiaketak baditu irabazleak

Arrasate Literatur Lehiaketan, LH-5 eta DBH-2 mailen arteko ikasleek ilustrazio, bertso paper eta narrazio kategorietan parte hartzeko aukera izan dute. Eta DBHko 3. mailatik batxilergoko 2. mailara artekoek eta erdi mailako heziketa zikloetako 2. mailara artekoek, berriz, komikian, poesian eta mikroipuinean.

Aurkeztutako 348 lanen artean 22 sari banatu dituzte. Hauek izan dira lehen sarituak: narrazio atalean, Intza Arregi eta Jare Urrutia; ilustrazio atalean, Aimar Rebollo eta Aritz Llodio; bertso paperetan, Naira Escobar, Elene Medrano, Maider Fernandez de Arroioabe eta Jare Urrutia; mikroipuinean, Kerman Petralanda eta Ainhoa Ponferrada; poesia atalean, Aimar Mateos eta Ainhoa Ponferrada; eta komiki atalean, Elene Ormaetxea eta Muhammad Abdulla.

Bi kontzertu izango dira III. Mariatxi Festaren barruan

Ibai-artek hirugarrenez antolatu du Mariatxi Festa, eta bihar Mexikoko doinuez gozatzeko aukera egongo da. Tolin el Mariatxi - Santurtziko mariatxia - eta Txingones de la Rencle taldeak arituko dira kaleak girotzen. Lehen kontzertua 13:00etan izango da, Txoko taberna parean, eta, hain zuzen ere, Tolin el Mariatxik girotu-

ko du bermutaren ordua. Arrasatek Mexikora eramango ditu herritarrek haren rantxeekin eta boleroekin.

Txingones de la Rencle taldearen emanaldia, berriz, 19:00etan izango da, Herriko Plaza Nagusian. Iguzkitzako eta Iruñeko musikari gazteek osatutako mariatxi bat ikusi ahal izango dute plazara joaten direnek; bakoitzaren estilo eta nortasun propioarekin, notetatik haratago doan harmonia sortuz, rantxera ezagunenak joko dituzte.

Arrasate Musikalek atek irekiko ditu gaur arratsaldean

Ekintzak antolatu dituzte 17:30etik 19:00ak arte, eskolak duen eskaintza musikala erakusteko. Harrera, dantza, musika tailerra, musika hizkuntzako gela birtuala, Suzuki metodoa eta instrumentuak erakutsiko dizkiete 3 eta 7 urte bitarteko haurrei; izan ere, Arrasate Musikaleko eskaintza 3 urtetik aurrera hasten da.

Dantza saioa egingo dute Lore Gazteakeko beteranoek gaur

Arratsaldeko zazpitan Seber Altube plazan izango da saioa, eta hainbat eskualdetako dantzeekin osatutako emanaldia egingo dute. Arabako, Gipuzkoako, Bizkaiko, Nafarroako eta Iparraldeko hamar dantza egingo dituzte eta 40 minutu inguru iraungo du saioak. Euria eginez gero, Biteri plazan egingo dute emanaldia.

Isabel Alba idazlea literatura solasaldiak amaitzeko

Arrasateko Bibliotekan antolatzen dituzten literatura solasaldiak -gaztelerazko solasaldiak- amaierara iritsi dira, eta Isabel Alba idazlea izango da azken gonbidatua. Tertulia Jokin Zaitegi gelan izango da, datorren eguaztenean, hilak 22, 18:00etan; bertan, idazle madrildarraren *La ventana* azken eleberriaz jardungo dute.

Lie Detectors taldeak joko du datorren eguenean gaztetxean

Donostiako taldea hainbatetan izan da Arrasaten kontzertua ematen, eta, oraingoan, Kooltur Ostegunen barruan arituko dira datorren eguenean, hilak 23 (22:00). Umore kutsuko rock-and-roll, punk-rock eta garage estiloko eroango dituzte, beste behin, Arrasateko gaztetxeko oholtza gainera. Sarrerak zazpi eurotan egongo dira salgai.



Joan den zapatuan elkartu ziren orkestra eta abesbatza elkarrekin lehen entsegua egiteko. ORKESTRA SINFONIKOA



Sari banaketaren une bat. GOIENA

Ipuinak eta mikroipuinak saritu ditu Txirritolak

Joan den astean banatu zituzten Txirritola Euskara Elkarteak antolatzen duen ipuin eta mikroipuin lehiaketaren sariak, kultura etxe kanpoan. Eta 'Begixekin leiru, bihotzaz gozatu' ekimena hasi dute, beste urte batez, irakurzaletasuna sustatzeko

Gontzal Belategi Zubia ARAMAIO
Beste urte batez, ipuin eta mikroipuin lehiaketa abiatu zuen Txirritola Euskara Elkarteak apirilean, eta joan den astean amaitu zuten lehiaketa, kultur etxearen kanpoaldean egin zuten sari banaketarekin.

Guztira, 65 pertsonak hartu zuten parte eta 48 lan aurkeztu zituzten. Antolatzaileen arabera, eskolako ikasleen parte-hartzea erabatekoa izan zen. "Eskerrik asko benetan 65 pertsona hauei, zuten buruari bueltak emateagatik. Lan zoragarriak egin dituzue. Batzuek badute saria, baina gure partetik, bihotzez, denak zarete saridunak", adierazi zuten sari banaketaren hasieran Aitziber Aginagalde, Txirritola elkartearen kideak.

Saridunak

LH-1eko ikasleek taldeko ipuin bat osatu behar zuten, eta *Dordoka uretan* izeneko lana aurkeztu zuten. LH-3koek bakarkako ipuina aurkeztu behar zuten.

Ane Astolaren *Zaldun txikia* eta Ilare Errastiren *Zaldun moztu zen printzesa* lanek eskuratu zuten lehen eta bigarren postua, hurrenez hurren. Gai nontzekoek mikroipuinak egin behar zituzten. LH-4koen artean, Paule Abilaren *Mona Lisa* eta Oxanda Mujikaren *Asperten hasita gaude* lanek irabazi zuten. LH-5en, berriz Mairu Zubiaren *Basatiak* eta Ur Agirreren *Phoenixeko kartzelak* lanek eraman zuten diploma. LHko ikasleekin amaitzeko, LH-6koen artean, Lide Abarrategiren *Desabantaiak* eta Oxel Astolaren *Bi anaien abenturak* lanek eskuratu zuten saria.

Nerabeen sailean, Jone Nafarratek soilik hartu zuten parte, *Mendiak aske* lanarekin. Amai-

65 PERTSONAK HARTU ZUTEN PARTE LEHIAKETAN ETA, GUZTIRA, 48 LAN AURKEZTU ZITUZTEN

tzeko, helduen lehiaketan, Julen Arriolabengoaren *Kanpaijoleak* eta Rosa Mondragonen *Maitasun hitzak* izan ziren garaile.

Irakurzaletasuna sustatu

Irakurzaletasuna sustatzeko asmoz, beste urte batez, *Begixekin leiru, bihotzaz gozatu* ekimena jarri dute martxan. "Liburutegian kutxa bat egongo da. Norberak nahi duen ipuina irakurtzen du, euskaraz, eta paper batean gustatu zaiona idazten du. Kutxatxoan sartu eta hilabeteren ostean zozketa bat egingo da parte-hartzaile guztien artean", azaldu zuen Aginagalde. Irakurzaletasunari tiraka, Elkarren opari-txartel bat da zozketatuko dena.

Bestalde, ekainean Nerea Loiola izango da 7G liburua aurkeztu. Irakurzaletasuna sustatzeko *Ir a kurrin* ekimenaren 15. edizioan landu zuten liburua haur aramaioarrek. Aurkezpenean, liburuaren egilea zuzenean entzuteko aukera izango dute.

Bi aramaioar daude Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finalean

Anitz Abarrategi eta Iraide Onaindia dira bihar Aramaion jokatu den finalean kantuan izango diren bertsolariak

G.B.Z. ARAMAIO

Bihar izango da Arabako Bertso Eskolen Eguna, Aramaion. Bertan jokatu da 14 eta 18 urte artekoen Arabako Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren finala. Kultura etxean izango da, 19:30ean hasita. Sei bertsolari izango dira oholtza gainean; tartean, bi aramaioar: Anitz Abarrategi eta Iraide Onaindia. Haiekin batera Hegoi Amabizka, June Astegieta, Samu Rodriguez eta Urko Lafuente gasteiztarak izango dira kantuan. Lehen bi postuetan gelditzen

diren bertsolariek ekainaren 15ean Arantzan jokatu den Euskal Herriko finalean kantatzeko aukera izango dute.

Gaztetxoaren txapelketa

14 eta 18 urte artekoen finalaz gain, 12 eta 14 urte artekoek kuadrilla artekoa jokatu dute, kultura etxean, 17:00etan hasita. Hainbat eskualde eta herri-tako gaztetxoak taldean arituko dira kantuan. Kuadrilla artekoaren ostean merienda egingo dute, nagusien finala hasi arte iraungo duena.



ARAMAIOKO UDALA

Kartel txapelketako irabazleak

Jaietako kartel txapelketak baditu irabazleak. Helduen txapelketa Ane Arrizabalaga Zubiak irabazi du eta umeen txapelketa, berriz, Xan Agirre Ramilaren *Zonbiak* kartelak. 22 kartel aurkeztu dira, guztira, hamabi helduenak eta hamar haurrenak. Hilaren 17tik 24ra kultura etxean ikusgai egongo dira kartelak.

Sinadura-bilketa, osasun zerbitzua jarraitua izan dadin

Aramaioko Lagunkoia taldeak kanpaina bat abiatu du herriko kontsultategian oinarrituko zerbitzu jarraitua izateko. Sinadura-bilketa baten bidez, osasun zentroan mediku eta erizain zerbitzu jarraitua bermatzeko eskatzen diote Osakidetza.

Eskaera egiteko eredu bat sortu dute, euskaraz zein gazteleraz. Udaletxean eta liburutegian

daude eskuragarri eskaera-orri horiek, eta, behin beteta, leku berean utzi beharko dira maiztaren 31 baino lehen.

Ez da beharrezkoa nork bere eskaera eramatea; hau da, beste pertsona batek entregatu dezake. Hala ere, norberak sinatu beharko du eta entrega egiterakoan nortasun agiria eraman beharko du, udaletxean eta liburutegian haren kopia bat egin dezaten. Arrasateko pazienteen arreta zerbitzuan entregatuko dituzte jasotako eskaerak.



Komentuaren eraikineko lau gune: taberna, autonomia sustatzeko espazioa, erabilera askotariko aretoa eta sukaldia. M.A.

Komentuaren gunea urrirako abian izango da

Agustindarren komentua izandako eraikina eraberritzeko lanak maiatzean bukatuko dituzte eta han izango dute lekua Autonomia Sustatzeko Espazioak (ASE), taberna-jatetxeak, Basotxo elkartearen egoitzak eta erabilera askotariko aretoa

Mirari Altube ARETXABALETA

Aurreko agintaldian –2022ko azaroan, hain zuzen ere– hasi zituzten komentuaren guneko lanak, adineko pertsonen bideratutako zentro bat egokitzeko. Horretarako, eraikin horren beheko solairua eta sotoaren zati bat birgaitu dituzte, eta maiatzean bukatuta izango dira. Han kokatuko dituzten zerbitzuen artean egongo dira erabilera askotariko aretoa, Basotxo elkartearen egoitza, taberna-jatetxea eta Autonomia Sustatzeko Espazioa (ASE).

Autonomia Sustatzeko Espazioa

"Udaleko ardurak hartu bezain laster" ekion zion Udal Gobernuak zaintza ekosistema eraikitze proiektuaren lanetari, eta Foru Aldundiaren 32.000 euroko dirulaguntza jaso zuen horretarako. Proiektu horretan Autonomia Sustatzeko Espazioa nabarmendu behar da; gaur egungo memoria tailerren zerbitzuari hartuko dio lekukoa,

baina ez dela zerbitzu bera izango adierazi du Nerea Zubillagak, Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak: "Hainbat gune izango ditu, ariketak eta ekintzak egin ahal izateko. Horregatik, pertsonen autonomia sustatzeko eta mendekotasuna atzeratzeko baliabide garrantzitsua izango da". Komentua, gainera, "elkarrekintzarako gunea" ere izango da, beste pertsona batzuekin "harremanak eraikitzeko".

Zubillagak azaldu du hori guztia bideratzeko beste gizarte langile bat dagoela lanean azken hilabeteetan Udal Gizarte Zerbitzuetan: "Zaintza ekosistemaren diseinuz eta koordinazioaz gain, egoera autonomoetatik mendekotasunerako bidean jarraipen pertsonalizatuak egingo ditu".

Zerbitzu hori diseinatzeko orduan hainbat herritar elkarriketatu dituzte: "Egungo erabiltzaile eta profesionalak eta erabiltzaile potentzialak izan daitezkeenak".

Atzerapena eta gaitzespenak

Lanen amaiera-data atzeratu egin da, eta kostua esandakoa baino handiagoa izan dela azaldu du Ion Albizuk, Hirigintza zinegotziak, "gabezia eta obraren hasieran izandako aldaketa" batzuegatik: "Aldaketa eta gabezia horiek desbideratze bat ekarri dute, aurrekontu osoaren %10 ingurukoa; hau da, 200.000 eurokoa". Eta kopuru esanguratsuenak aipatu ditu: fatxada aldaketak, 38.406 euro; kanpoko saneamendua konpontzea, 21.226 euro; terrazako harmailak aldatzea, 11.291 euro; egiturazko errefortzuak, 19.505 euro; isolamendu akustikoa, 19.116 euro; instalazioetako egitura-aldaketak, 16.016; elek-

PERTSONEN AUTONOMIA SUSTATZEKO ZERBITZUARENTZAKO ARETOA EGOKITU DUTE

trizitatean aldaketak, 12.062 euro; eta sukaldearen aldaketak, 10.204 euro; kanpoko granitoaren desbideratzea, 9.368 euro.

Horiei gaineratu behar zaie 41.277 euro, legionellaren tratamenduaren gaineko arau-aldaketa bat tarteko proiektua aldatu beharra izan zutelako eskara berrietara egokitzeko, Albizuren esanetan. Halaber, eraikinaren hargune elektrikoaren lanak ere "bere gain hartu behar izan ditu Udalak", eta atzerapena ekarri du horrek.

Eraikina maiatzean bertan gertu egongo dela uste dute. Gero, altzariz hornitu beharko da eta tabernaren eta Autonomia Sustatzeko Espazioaren kudeaketa esleitu dituzte. Hain zuzen ere, eguaztenean egindako ohiko osoko bilkuran onartu zuten Autonomia Sustatzeko Zerbitzuen araudia, eta orain, 30 egunez ikusgai egongo da, alegazioak aurkezteko. Alegaziorik ez, behin betiko onartutzat emango dute eta proiektua ekainean aurkeztuko dute.

Lorategiko lanak

Lorategiaren eta Deba ibaiaren pasabideak ere baldintzatu duela komentuaren proiektua adierazi du Hirigintza zinegotziak. Ura Agentziak hasierako proiektuaren baimena "ukatu egin zuen uholde kontuengatik", eta proiektu horren ardura zuen ingeniariak enpresak hainbat aldaketa proposatu zituen: "Aurtengo otsailan Ura Agentziaren oniritzia jaso genuen. Aldaketa horiek, baina, Gobernu Taldeak proposatutakoak baino 200.000 euro gehiago eragiten zuten". Horregatik, beste proiektu bat egitea erabaki dute: "Bi helbururekin: parke eta pasabide irisgarriagoak egitea eta ekonomikoki bideragarriagoak izatea".

Lanek aurrera egin dezaten komentutik hurbilen dagoen gunea urbanizatuko dela lehenengo adierazi du. Horretarako, Errekabarren kaleko hormaren zatia bota egingo da eta alboko espaloia konpondu: "170.000 euroko aurrekontua du lan horrek eta helburua da komentuko parkerako sarbidea egokitzea". Hurrengo lau asteetan egingo dituzte lan horiek.

Behin horiek guztiak amaituta, komentuaren gunea, zerbitzu guztiekin, aurtengo urrirako abian egotea espero dute.



NIRE USTEZ

JULEN ABASOLO
GALLASTEGI

Sargaraiko zubixe

Zubixek jarraixen ez daazten jaiegunek lotuaz lan bako egun ilerie izeteko aukerie emuten dotzue gehixenoi. Erromako zubixe be, koloretsue, polit askue da.

Zubixen preminie betidanikue dou, betik eduki dou-ta hankak busti barik errekie alde batetik bestera pasatu biherrik. Koruetako erreka haundixen, esaterako, urtegixe egin aurreko kontuetan, Ugastein hasi eta Urkuluraino hamar bat zubi kontatu gittuen Gorkak eta bixok.

Elkarren arteko loturie galdute ikusten danien, zubixek eraiki biherraz asko berba eitten da gaur egun: kalie eta baserrixen, generaziñuek, kultura, kartzelaratuek edo etorkinek, esaterako.

Azatan Sargaraiko zubixe daukou, zutittu barrixe esango nauke, albergie eta karobixen gainetik gaur egungo oinezko bidie errepide ertzetik izen biherrien gune seguruaatik eroiena.

Lagun askok ebalten euela uste dot, baine aspaldixen ez da gauza. Aspaldi-aspaldixen, esango nauke. Ez dakittetena da zeatik ez dan konponketan zubixoi.

125 herritar inguru elkartuko dira bihar Erretiratuen Egunean

Ospakizun eguna antolatu die Udalak herriko erretiratuei, iaz legez, eta 125 lagun inguru elkartuko dira bazkaltzeko bihar, zapatua, Ibarra kiroldegian. Giro atseginean bazkaltzea da asmoa, kontu-kontari jardunda, eta, ondoren, opariak banatuko dizkiete. Eguna borobiltzeko, dantzaldia izango dute kiroldegian bertan, Iver DJarekin.

Euskaraz jardunda jai giroa sortzea helburu

Euskararen Eguna ospatuko du Loramendi elkarteak bihar, zapatua, eta herritarrak gonbidatu ditu antolatutako ekintzekin bat egitera: bertso-kalejira, bazkaria eta bingo musikatua, Albina Stardusten eta Divina Comediaren ikuskizuna eta dantzaldia izango dira

Mirari Altube ARETXABALETA

Euskararen Eguna bueltan dator. Loramendi elkartearen 30. urteurrenaren baitan berreskuratu gura izan dute eta herritarrekin batera ospatu. Horretarako, egun osoko egitaraua prestatu dute, "euskara ardatz hartuta jai giroa sortzeko".

Showa eta dantzaldia

Jaiari ekin aurretik, Errigorako saskiak banatuko dituzte goiz partean; 11:00etatik 13:00etara bitartean udaletxe zaharrera joan beharko dute jasotzera eskaera egindakoek.

Ondoren, jai giroan murgilduko dira. Lekaixoka bertso eskolakoek gidatuta, bertso-kalejira egingo dute 13:00etan, eta gero, 14:30 bueltan, bazkaltzeko elkartuko dira 50en bat lagun Durana kalean. Bazkalostea girtuko dute bingo musikatua-ekin eta arratsaldeko ekintzak 19:00etan hasiko dituzte Zuttik elektrotxarangarekin.

Gau partean giroak ez du behe- egingo. Albina Stardust eta Divina Comedia pertsonaia ezagunen showa izango da 21:00etan, Mitarte kaleko oholtzan, eta ondoren, 23:00etan, Gautegun taldearekin dantzaldia. "Herritarrak gonbidatu gura ditugu euskara eguneroko erabiltzera, baita jai giroan ere", adierazi dute antolatzaileek.

Logo berriarekin kamisetak

Urteurrenaren aitzakiarekin, Loramendiren irudia berri- tze egin dute. Ainhoa Sanchez teknikariak berak sortu du berria: "Letra borobildu egin dugu, bunbuiloa sartu diogu hizkuntza ardatz dela adierazteko, eta loreak gehitu, Loramendiren eragileak irudikatuz. Kolorea ere aldatu dugu, laranja sartuta, bizitasuna emateko". Horrekin kamisetak eta beste hainbat produktu aterako dituzte eta bihar salgai izango dira horietako batzuk.



Albina Stardust eta Divina Comedia. ALBINA STARDUST/DIVINA COMEDIA



Ainhoa Sanchez eta Jon Egidazu teknikariak, lanekin. MIRARI ALTUBE

Literatura lehiaketako sarituak

28. Loramendi literatura lehiaketaren sariak banatu zituen atzo euskara elkarteak. Loramendiren 30. urteurrena gai hartuta eskatu zituzten lanak, baita 40 inguru jaso ere. "Ohi baino gutxiago izan dira eta DBHko lanik ez da jaso. Dena den, jasotako maila polita izan da eta bertsoan abilak direla erakutsi dute batzuek", adierazi du Ainhoa Sanchez teknikariak. Hona hemen sarituak:

Lehen Hezkuntzako 4. maila

Bertsok: Elena Altube.

Lehen Hezkuntzako 5. maila

Bertsok: Nora Egia, Maddi Pazos eta Hintza Louvelli. Deskribapena: Garazi Igartua, Maren Axpe eta Paule Egia.

Lehen Hezkuntzako 6. maila

Bertsok: Egoitz Zabala, Oihane Galan eta Ariane Pinto.

Altxa Burua Atxabalta-Eskoitz- taldea abiatzear hitzaldi batekin

Telefonoaren erabileraren gaineko hausnarketa egin gura dute, bi adituk lagun eginda, maiatzaren 23an Arkupen

M.A. ARETXABALETA

Gaztetxoaren artean eskuko telefonoaren erabilerarekin kezkatuta, Altxa Burua mugimendua sortu dute Gipuzkoako hainbat herritan, eta Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Leintz Gatzagako gurasoek Altxa Burua Atxabalta-Eskoitz- taldea eratu dute. Haien helburua da lanketa bat egitea, onartuta "telefonoaren erabileraren ardu- ra gurasoena" dela, eta erabakiak modu kontzientean hartzeko erremintak izatea.

Horretarako, hitzaldia antola- tu dute, eta Maitane Ormazabal

eta Telmo Lazkano gonbidatu dituzte, Gipuzkoako mugimen- duaren aholkulariak eta *Nerabeen garrasia* liburuaren idazleak. "Liburu horretan nerabeen osa- sun mentalari buruzko haus- narketa sakona egiten da, eta sare sozialek haiengan duten inpaktu kognitiboa, emozionala eta mentala aztertu", adierazi dute antolatzaileek.

Gazteak eta mugikorrek hitzaldi maiatzaren 23an izango da, Arkupen, 18:00etan. Izena alde- z aurretik eman behar da: <https://labur.eus/GazteakEtaMugikorrek>.

Andramaixak iragartzeko kartel lehiaketa deitu dute

Andramari jaiak iragartzeko erabiliko duen irudia aukeratzeko kartel lehiaketa deitu du Udaleko Kultura Sailak. Edozei- nek har dezake parte eta teknika librea izango da. Antolatzaileek oinarrietan zehaztu dute ezingo dela adimen artifiziala erabili. Kartelak derrigorrez testu hau izan behar du: *Andramaixak 2024 / Abuztuaren 13a, 14a, 15a eta 17a / Aretxabaleta*. Lanak posta arruntez bidali ahal izango dira Arkupe kultur etxera edo posta elektronikoz honako helbide honetara: kultura@aretxabaleta.eus.

Uztailaren 4a baino lehen bidali behar dira eta irabazleak 300 euro jasoko ditu.

OHARRAK

Antzezlanaren umeentzat

Hika Teatroak *Atearen beste aldean* lana eskainiko die 4 eta 8 urte arteko umeei domekan, 17:00etan, Arkupen.

Odol ematea

Datozen bi astelehenetan, maiatzaren 20an eta 27an, izango da autobusa Durana kalean, 16:45etik 20:00etara. Odola ematera gonbidatu dituzte herritarrak.

Ikazkin Trail mendi lasterketa gertatzeko irteera bihar

Irailaren 7an jokatu den Ikazkin Trail lasterketa gertatzeko entrenamendu saioa antolatu du UDAk biharko, maiatzaren 18rako. Bi ibilbide izango dira aukeran: bata, 8-9 kilometro ingurukoa, Bedoña auzoan zehar; eta bestea, Ikazkin Trail 2024ari dagokion ibilbide motza, 15 kilometrokoa. 09:30ean abiatuko dira Herriko Plazatik.

Izena alde- z aurretik eman behar da galdetegi bat beteta: https://labur.eus/Ikazkin_Topaketa_Maiatzak_18

Mendi lasterketan izena emateko epea ekainaren 7an zabalduko dute eta berritasunak izango dira aurten, bi ibilbide aukeran, esaterako.





Iaz, Eskomotor Egunean ibilgailu klasikoaren erakusketan, Santa Marina plazan jarri zuten gunea. IMANOL SORIANO

Eskomotor jaia egingo dute hilaren 25ean

Eskomotor taldeak antolatuta, bigarren urtez jarraian egingo dute Eskomotor jaia. Uztailean egingo den Eskoriatzako ralliesprinterako dirua biltzeko antolatu dute egun osoko egitaraua, eta ekintza guztiak Joseba Iñurrategi frontoian egingo dituzte

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Aurreikuspenak ondo bidean, uztailearen 13an egingo dute Eskoriatzako ralliesprinta, eta, autoen lasterketa aurrera eramateko, Eskomotor jaia izango da maiatzaren 25ean. Hain zuzen ere, ralliesprinta antolatzeko dirua biltzea izango da jaia antolatzeko asmo nagusia. Egitarauari erreparatu, egun osoko programa antolatu dute, eta ekintza guztiak Joseba Iñurrategi pilotalekuan izango dira.

Kirola eta festa uztartuta

09:00etan ekingo diote Eskomotor Egunean bigarren edizioari, eta, horretarako, eskupilota txapelketa egingo dute -informazio guztia, *Esko_Motor* Instagram kontuan-. 10:00etan, berriz, ibilgailu klasikoaren erakustaldia egingo dute; iaz herriguneko lau gunetan egin zuten arren, edizio honetan Luis Ezeiza Herri Eskolako kantxan izango dira ikusgai; hau da, frontoiaren kanpoko kantxan. Bertan,

lasterketetako autoak, motorrak, 4x4 autoak eta auto klasikoak jarriko dituzte, zaleen gozamerako. 13:00etan, trikipoteoa egingo dute herrigunean, eta 15:00etan, bazkaltzeko frontoira bueltatuko dira.

Musika protagonista

Bazkariko menua honako hau izango da: urdaiazpikoa eta zainzuriak, risottoa, txerri-saiheskiak parrillan eta sorbetea. Txartelak salgai daude Inkernu tabernan, 25 eurotan, eta domeka honetara arte izango dute interesdunek erosteko. Aurten, berezitasun moduan, Julene eta Unai bikotearen kontzertu akustikoa izango da bazkalostea girotzen. Ondoren,

**AURTEN,
BAZKALOSTEA
MUSIKAZ GIROTUKO
DU JULENE ETA UNAI
BIKOTEAK**

18:30 aldera, eskupilotako finalak jokatuko dituzte. 20:00etan, aldiz, Kontralde, Oihu!, 112 eta Ostikoka taldeen punk-rock kontzertuak izango dira, eta, amaitzeko, Oier Mendizabal DJa arituko da musika jartzen.

Programako berrikuntzak

Iazko egitarauarekin alderatuta hobekuntza batzuk ezarri dituztela azaldu du Gorka Idigorasek, Eskomotor taldeko kideak: "Iaz egin genuen ibilgailu klasikoaren erakustaldia leku bakarrera mugatzea erabaki dugu Eskomotor jaiaren bigarren edizio honetan; horrela, festa-gune osoa han zentratzeko. Horrekin batera, bazkalostean musika pixka bat jartzea ere erabaki dugu, pilotako finalak jokatzeko hasi arteko hutsunea betetzeko. Horrekin batera, egitarauan ez agertu arren, barra jarriko dugu frontoian, eta herritar guztiak animatu nahi ditugu festa horretara, giro ederra izango dugu eta".



Duela bi urte Zazpi Elizateen Martxa hasi berri, plazatik Mazmelara bidean. GOIENA

Zazpi elizateak zeharkatu, horiek ezagutzeko asmoz

Domeka honetan, hilaren 19an, 07:00etan hasita egingo dute 29 kilometroko bidea duen oinezko martxa

I.B. ESKORIATZA

Eskoriatzako zazpi elizateen oinezko martxa domeka honetan egingo dute. Bi urtean behin egiten den martxa da eta edizio bakoitzean ibilbidea aldatzen da. Hori horrela, guztira, 29 kilometro dituen ibilbidea egingo dute parte-hartzaileek, eta, 07:00etan Fernando Eskoriatza plazatik abiatuta, honako hau izango da ibilbidea: Eskoriatza-Bolibar-Mendiola-Gellao-Apotzaga-Marin-Zarimutz-Mazmela-Eskoriatza. Hamarretakoa, berriz, San Adrianen emango dute.

Elizateak ezagutzeko asmoz

Zazpi elizateen oinezko martxa Txikirri-txikirri mendi martxarekin txandakatzen dute, eta aurten, Bolibar aldean egingo dute zirkularra. Parte hartzeko ez da dirurik eskatzen, eta antolatzaileek esan dute jendea pozik geratzen bada nahikoa

dutela. "Martxa honen jatorrizko espiritua domeka goiza pasatzea izan zen, Eskoriatza ezagutzeko, parte-hartzaileen arteko lehia barik, nor bere errit-mora. Hala, Jose Manuel Crespo *Santanderino*, Pako Izaguirre... eta haien lagunartea hasi ziren antolatzen oinezko martxa hori. Hala ere, zerbait informala izan arren, ambulanzia jarri behar zen, administrazioarekin gestioak egin, ibilbidearen markaketa... Atxorrotx Kultura Elkarteak sartu ginen antolakuntza horretan; betiere, Eskoriatzako Udalaren babesarekin eta herriko zenbait enpresaren laguntzarekin. Hala, egunean hamabi lagun inguru arituko gara antolaketan; batzuk elkarteak eta beste batzuk ez. Kontua ondo pasatzea izango da; martxa sortu zeneko ideiarekin jarraituz", adierazi du Edorta Barandiaranek, antolakuntza taldeko kideak.





Ausartak taldeko kideak asteon, entsegu batean. AUSARTAK ANTZERKI TALDEA

'Bendita locura' antzezlari berriaren estreinaldi bikoitza

Hilaren 25ean eta 26an aurkeztuko dute Ausartak Antzerki Taldekoek lan berria Zaldibar antzokian

I.B. ESKORIATZA

Bendita locura antzezlana estreinatuko dute Ausartak Antzerki Taldeko kideek maiatzaren 25ean eta 26an, 19:00etan, Zaldibar antzokian. Gaztelaraz izango dira bi saioak, eta bost eurotan daude salgai sarrerak Manuel Muñoz kiroldogian. Euren estiloari jarraituz, umorea izango da nagusi lan berrian.

Amaia, Pakita, Kati, Maribi, Mari Carmen, Mari Jose dira oholtza gainean arituko diren antzezeleak, eta iaz estreinatu behar zuten ikuskizuna berrartu eta ondo prestatu dute, hi-

laren amaieran herritarrei erakusteko.

Barrea eragiteko asmoz

"Mundu ero honetan zentzua izateak ez du zentzurik. Burua galtzea eta norbere buruari barrea egitea gure ongizate emozionalerako terapia bat da. Hori horrela, gure antzezlari berrian, sei emakume beren burua ulertzen saiatuko dira, euren erokeriak partekatuz. Barrea erabiliko dugu gizarteari dramatizazioa kentzeko tresna gisa", adierazi du Mari Carmen Fernandez antzezeleak.

Desfibriladorea erabiltzen ikasteko saioak, debalde

Eskoriatzako Udalak eta Bexen Cardio enpresak indarrak batu dituzte proiektu soziosanitario, parte-hartzaile eta komunitarioa garatzeko. Herrian hiru desfibriladore jarri dituzte; horietako bi, edonoren eskura eta operatibo 365 egunetan eta 24 orduetan. Boluntario sare bat eratu nahi dute, kideak trebatu eta bihotzeko baten aurrean azkar eta modu koordinatuan erantzuteko. Hiru orduko saio bakar bat izango da, doan. Hiru egun hauetan emango dira, herritarrek euren beharretara egokitutako eguna eta ordua aukera ditzaten: maiatzaren 28an eta 29an 17:00etatik 20:00etara eta ekainaren 4an 10:00etatik 13:00etara.

Talde-elkarrizketekin jarraituko dute datorren astean

Emun Aholkularitzako teknikariek atzo hasi zituzten Berdintasun Diagnostikoa osatzeko talde-elkarrizketak, kultura etxean. Helburua da Eskoriatzako errealitateak ezagutzea eta genero-berdintasuna lortzeko eman beharreko pausoak identifikatzea, eta han batu ziren herriko emakume migratuak, hezkuntza formaleko eta ez-formaleko eragileak eta mugimendu feministako kideak. Hala ere, datorren martitzenean eta eguaztenean ere egingo dituzte elkarrizketak: batetik, adineko emakumeak eta emakume pentsiodunak eta herrigintzako emakumeak; eta, bestetik, herrigintzako gizonezkoak.

Urre zuriaren festa ospatuko dute domekan

Turismo aktiboa, turismo gastronomikoa eta kulturala batzen dituen festa ospatu nahi dute domekan Gatzagan egingo den Gatz Egunaren zortzigarren edizioan, herrian hain preziatua den produktuari balioa emateko helburuarekin

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Gatz Museoan asteon aurkeztu dute domeka honetan izango den Gatz Egunaren zortzigarren edizioaren gaineko egitaraua. Horretarako, Azahara Dominguez Mugikortasuneko, Turismo eta Lurralde Antolaketako foru diputatua, Dorleta Elkorobarrutia Gatzagako alkatea eta Debagoieneko Mankomunitateko lehendakaria eta Aitor Larrañaga Gatzagako Udaleko teknikaria batu dira xehetasun guztiak emateko.

Gorritz markatutako eguna

Gatz Eguna Debagoieneko Mankomunitatearen, Gatzagako Udalaren eta Debagoaraia Landa Garapenerako Elkartearen elkarlanaren bidez antolatu dute, eta, horren baitan, Aldundian gorritz markatuta duten ekitaldi bat dela nabarmendu zuen diputatuak. "Ezin dugu ahaztu festa hau ezin hobeki egokitzen zaiola departamentutik bultzatzen ari garen estrategiari: lehenik, goi-denboralditik kanpo egiten delako, eta horrek aukera ematen digulako Gipuzkoako eskaintzen dituen turismo-jardueren egutegia aberasteko; eta bigarrenik, balioa ematen diolako lurraldearen barrualdeko turismo-erakargarritasunari".

Lurraldebuseko zerbitzua

Gainera, jakinarazi duenez, Lurraldebuseko zerbitzua indartu egingo dute domekan. "Egun osoan, autobusak, normalean eskarripekoak direnak, ordu-tegi finkokoak izango dira. Horrela, festa horren ingurumen-inkaptua murrizten lagunduko dugu", aurreratu du. Horren baitan, "Debagoieneko Mankomunitateak eta Gatzagako Udalak, Gatz Egunean jasagarritasuna bultzatzeko asmoz, herritarrek autobus zerbitzua erabiltzera edo herriraino heltzeko dauden oinezko



Gatz Egunaren aurkezpen amaieran ateratako erretratua. I. BELOKI

LURRALDEBUSEKO ZERBITZUA INDARTU EGINGO DUTE, ORDUTEGI FINKOKO AUTOBUSAK JARRITA

ibilbideak ezagutu ditzaten animatzen ditu", gaineratu zuen Dorleta Elkorobarrutiak.

Ondoreari balioa emateko jai

Turismo aktiboaz gain, turismo gastronomikoa eta kulturalarekin lotzen du Gatzagak Debagoiena, duela hainbat mendetatik gatz ekoizpenarekin lotuta dagoen eskualde gisa. "Gainera, azpimarratu beharra dago ez Euskal Herri osoan ez Iberiar penintsula osoan ere ez dagoela bertan ekoizten den moduan gatz egiten den beste tokirik", adierazi zuen Aitor Larrañagak, egitarauaren xehetasunak eman aurretik. "Gatz eta bertako produktuen azoka, bisita gidatuak, *showcooking*-a, mendi irteerak, musika, jolasak eta ikuskizunak izango dira, hain preziatua den produktua ezagutu eta balioa emateko helburuarekin".

Egitaraua

DOMEKA, HILAREN 19A

- **10:00** Gatzaren eta bertako produktuen azoka. Plazan.
- **11:00** Aretxabaletako tomate-landareen banaketa. Plazan.
- **12:00** *Showcooking*-a. Plazan.
- **10:00** Mendi irteera: PR-GI-37. Hiruerreketa.
- **11:00** Gatz Museoan bisita gidatua. Euskaraz.
- **12:00** Gatz Museoan bisita gidatua. Gaztelaraz.
- **11:00** Gatz-xaboiak egiteko tailerra. Frontoian.
- **11:00** Zurezko plaza jokoak. Frontoian.
- **12:00** *Pisua asmatu* jokoak. Frontoian.
- **14:30** Herri bazkaria, Sei Pistols Eta Trabuko Bat taldeak girotuta.
- **18:00** Dantza eta musika ikuskizuna: Tio Teronen Semeak.

laskurain
ITURGINTZA_FONTANERIA

Erreformak - Zoru erradiatzaileak
Elbarritasun egokitzapenak - Galdara aldaketak
Gremioen koordinazioa eta aholkularitza

Jai zoriontsuak bergararrei!

Barrenkalea 44 • 20570 BERGARA Gipuzkoa
☎ 943 76 24 89 - 610 20 54 99

LOREA ALBENIZ
ESTETIKA ZENTROA
aholkularitza eta tratamendu estetikokoak

665 02 13 52
Toki Eder plaza 5, behea, Bergara

Ondo ibili jaietan!

BERGARA
PNEUMATIKOAK

Pneumatikoak • Olio aldaketa
Mekanika azkarra

Ondo ibili jaietan!

Lelzeaga 1B BERGARA / Tel.: 943 76 36 27 - ☎ 638 26 77 64
nfo@bergarapneumatikoak.com / www.bergarapneumatikoak.com

Industrias UGATU s.l.

Finkatze mota guztietarako konponbideak

Ondo ibili jaietan!

Webgune berriua!

Tel.: 943 76 98 23 • www.ugatu.com • ugatu@ugatu.com



Txapa Irratiaren 2018-2019ko denboraldiko programazioaren berri emateko festa, kartzela zaharrean. GOIENA

Irrati librearen suziritik, jaiez aske gozatzeko deia

Aurten 40 urte beteko dituen Txapa Irratiko kideek "sorpresaz, arduraz eta pozik" hartu dute jaietako txupineroak izateko gonbita. Bestalde, eraso matxistei aurre egiteko 'Aske maite haut' kanpaina sortu dute; hiru egunez Irizar jauregian arreta-gunea egongo da

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Heldu dira Pentekosteak. Gaur 20:00etan Bitorianatxo udaletxera jaitsi eta hilaren 21ean kontrako bidea egin bitartean jai giroak ez du etenik izango Bergaran.

Gorka Artola alkateak, besteak beste, Jai Batzordearen lana azpimarratu du: "Pentekosteak gogo biziz eta alaitasunez gozatzera gonbidatu nahi zaituztet. Izan ere, zuok gabe honek guztiak zentzua galtzen du, Pentekosteak herritik eta herriarentzat direlako, eta zuen parte-hartzea funtsezkoa da jai hauek benetan gogoangarri bihurtzeko". Egun berezi hauetan ezin dut nabarmendu gabe utzi Jai Batzordeak eta jaien bueltan lanean aritzen zaretenon lan izugarria. Lan nekaezin horri esker, geroz eta jai inklusiboagoak, anitzagoak eta parte-hartzaileagoak ditugu gurean. Bergaran gure komunitatearekiko daukagun konpromisoa deskribaezina da, eta zuek guztiok horren adibide zarete.



Txapa Irratikoak, Artekalean zegoen lehen lokalean, 1985eko azaroan. TXAPA IRRATIA

Udaletik gure esker on eta mi-resmen guztia daukazue".

Gainera, jaiak errespetuz gozatzearen garrantzia ere azpimarratu du alkateak: "Ospakizun egunotan errespetuak duen garrantzia gogorarazi nahi dut. Gozamenaren erdian, ingurukoekiko errespetua funtsezkoa da. Bihurrtu ditzagun jaiguneak denontzako espazio seguru eta abegikor. Eta ez dezagun ahaztu: soilik bai da baietz".

Artola: "Ahaztu egunerokoa"

Jaiez gozatzeko dei egin die alkateak bergararrei: "Goza ditzagun Pentekosteak eta sor ditzagun ahaztezinak izango diren momentuak. Barre eta dantza egin, gozatu familia eta lagunekin, sendotu gure arteko loturak eta, posible bada, ahaztu eguneroko arazo eta buruhaustek. Aurtengoa ere sekulakoa izango da, seguru nago".

Txupineroak, Txapa irratikoak 2024ko azaroan 40 urte beteko dituen Txapa irrati libreko kideek botako dute gaur Pentekosteei hasiera emateko suziria. Hasierako Txapa-kideak herriko sindikatu batek utzitako



Protokoloaren aurkezpena: Bitorianatxo, Maite Usabiaga, Amaia Azpeitia, Ainhoa Lete, Naia Berraondo eta Ane Ormaetxea. A.R.

lokalean hasi ziren emititzen, 1984an; eta 1989an, Udalarekin lortutako akordio baten ondoren, Zabalotegi dorre azpira pasatu ziren. Urte horietan guztietan hainbat herritar pasatu dira, eta mota guztietako programak egin dira. Gaur egun kartzela zaharretik emititzen dute eta irratia Bergarako herriari irekita dago, bertako jende, kolektibo eta taldeek euren ideiak, kezka eta proiektuak plazaratu ditzaten.

"Sorpresaz eta arduraz" hartu dute Txapakoek jaiei hasiera emateko ohorea: "Ez genuen espero Udalaren partetik proposamena jasotzea, sorpresa izan da. Bestetik, arduraz ere hartzen dugu proposamena, uhinetan informatzen eta zabaltzen ditugun gainera arduraz izatera ohituta gauden arren herritar guztien aurrean azaltzea eta jaiei hasiera ematea berezia izango da. Sorreratik irratia libre garen heinean, gure jardunak boluntarioak eta militanteak dira, baina errekonozimendua jasotzea ere pozgarria da gure kolektiboarentzat".

Informazio librea eta kolektiboa

Suziria bota aurretik zer aldarrikatuko duten galdetuta, honako hau erantzun dute irratia libreko kideek: "Aldarri nagusiak informazio askatasuna eta kolektibotasuna izango dira, gure 40 urteotako jardunaren ardatz nagusiak izan dira-eta, jarrera ez-merkantilistaz gain. Batetik, izaera herrikoia eta asanblearioak kolektibotasunean dauka bere adierazpena; eta, bestetik, ezin dugu ahaztu munduko hainbat gatazkatan kazetariak erailak izaten ari direla; Palestinan edo tokian tokiko gobernuek edo buruzagiek, Pablo Gonzalezekin gertatzen ari den moduan, ka-

zetariak espetxeratu edo zigortu egiten dituzte".

Amaitzeko, txupineroek jaiez gozatzeko gonbidapena egin diete bergararrei zein bisitariei: Ondo pasatu, kaleak bete, antolatutako ekintzetan parte hartu, dantza egin, txandetan izena eman eta elkar zaindu. Jaietan eta urtean zehar badaude gauzak aurrera eroateko modu desberdinak, eta ahaztu: gogoz, ilusioz eta elkarlanean oinarrituta, sinistuko ez genituen gauzak egiteko gai gara! Txapa irratia 40 urtez uhinak astintzen!".

Udalak Txapa goraiatu du

Pentekosteak Txapa irratia parte direla ere gaineratu dute: "Urte luzez garatu izan dugu elkarlana Xaxaurekin eta aurtun ere domekako txosnaguneko afaria Txapako kideok prestatuko dugu".

Bestalde, Udaleko Kultura zinegotzi Maite Usabiagak Txapa irratia lana goraiatu du: "Euskal Herri osoan irratia gutxi dago 40 urteko ibilbidea duena. 40 urte hauetan belaunaldi berriak eta ideia berritzaileak izan dituzte, eta lau hamarkadaz irratia bizirik mantentzeak sekulako meritua dauka. Aldi berean, prentsa librearen aldeko aldarria egiteko aukera aproposa izango da".

'Aske maite haut' kanpaina

Udaleko Berdintasun Sailak eta herriko Martxantera eta Oñez-tua talde feministek agerraldia egin zuten eguazten iluntzean

**ERASO MATXISTEN
AURKAKO GUNEA
IRIZARREN JARRIKO
DUTE HILAREN 17AN,
18AN ETA 20AN**

Aske maite haut kanpainaren berri emateko. Eraso matxistei aurre egiteko arreta eta esku hartzeko gunea jarriko dute Irizar jauregian –sarrera lora-tegitik izango da– maiatzaren 17an, 18an eta 20an, 22:00etatik 06:00etara; telefono-zenbaki bat ere eman dute: 747 44 84 56. Ordutegi horretatik kanpo larrialdiak (112), Udaltzaingoa (092) eta 24 orduko arreta eskaintzen duen 900 84 01 11 telefono zenbakiak martxan egongo dira.

Irizar jauregiko arreta puntuan hasierako arreta emozionala eta laguntza, eskubideei buruzko informazio egokia eta aholkularitza eta autodefentsa feministari buruzko informazioa emanango dute; lan horretarako Emagin enpresa kontratatu du Udalak. Hain zuzen ere, Udaleko berdintasun zinegotzi Ainhoa Letek mugimendu feministarekin egin-dako elkarlana jarri du balioan: "Jaiak egun bereziak izaten dira, modu aske eta lasaian gozatzeak. Tamalez, baina, badakigu jakin egun horietan eraso matxistak sortzen direla eta horregatik badira urte batzuk mugimendu feministarekin batera eraso matxista horiei aurre egiteko neurriak diseinatzen ditugula".

Autobus zerbitzu berezia

Bisitariei begira, ohikoa denez, gaueko autobus zerbitzua indartu egingo dute Udalak eta Lurraldebus. Eibar eta Eskoria-tza arteko linean gaur gaueko zerbitzua indartuko dute; bihar-ko zerbitzua ohikoa izango da. Bestalde, Antzuola eta Elgeta arteko linean hilaren 17ko eta 18ko zerbitzua indartuko dute.



Jaietako egitarau osoa ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.



20 urte
goiena
seguru bizi

Ondo ibili jaietan!

Zurradero kalea 2 - Bergara
Tel. 943769765 - goiena@goienaaseguruak.com
<http://www.goienaaseguruak.com>

Gogoratu!
**IRTEERAK ARRASATETIK
ETA BERGARATIK:**

- Irailean Toscanara
- Urrian Argentinara
- Azaroan Thailandiara
- Abenduan Dubaira

Jai zorientzuek guztici!

Informazio gehiago:
Bidekurutzeta kalea 6 - Bergara
943 03 27 42
bergara3302@halconviajes.com

Halcon bidaiak

RPS: 83/24

astiazaran
CLÍNICA KLINIKA

Gora Bergarako jaiak!

Iparragirre kalea 12 - Bergara
Tel. 943 76 27 95 - info@astiazaranclinica.com
<http://www.astiazaranclinica.com>

Elosuko gaztelua nafarra zela ez dute batere garbi

Lanbroa elkarte sortu dute, askotariko gaien gaineko hitzaldiak eta ostean afariak egiteko. Adibidez, ez dute uste Elosuko gaztelua nafarra zela: "Esteban Garibaik akats bat egin zuen, eta Elosua eta Ausa nahastu; beste ikuspuntu batetik begiratu behar da"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA "Bergarako lagun talde txiki baten desiratik sortu da Lanbroa Kultura Elkarte, euskal kultura, euskal sinboloak, tradizioa eta historia sustatzeko eta hedatzeko. Nondik gatozen ahalik eta ondoen jakitea garrantzitsua da, nora goazen aurrekusteko. Gaiak gizarte ikuspegitik lantzea da gure asmoa, ez, horrenbeste, eztabaida politikoetan sartzea". Ander Errastiren hitzak dira, sortu berri den Lanbroa elkarte presidentearenak; maiatzaren 3an egin zuten lehenengo saioa, Irizar jauregian, eta areto goraino bete zen.

Entzuleei gonbita afarirako

Askotariko gaiak jorrazteko hitzaldiak antolatuko dituzte, eta berezitasun aipagarri bat da hitzaldien ostean afariak egingo dituztela elkarre gastronomikoean. "Ikusi izan dugu hitzaldiak amaitu ostean galderen tartea motz geratu ohi dela, eta pentsatu dugu afaritxo bat prestatzea hitzaldi-osterako. Hitzaldira datozen herritar guztiak gonbidatuko ditugu elkarteren baten afaltzera. Afaltzeaz gain, nola ez, hitzaldiko edukiaren gainean eztabaidatzeko aukera egongo da. Horrez gain, mahaiaren bueltan hitzaldi edo ekimen berriak antolatzeko ideiak irten daitezke", dio Errastik.

Hurrengo hitzaldia maiatzaren 31rako antolatu dute, *Hauteskundeak Katalunian. Eta orain zer?* izenburupean. Josu Tornay izango da hizlaria.

Esteban Garibairen "akatsa"

Andoni Larrañaga historiazale bergararra izan da Lanbroa elkartearen egitaraua estreinatuko duena; hitzaldia egin zuen maiatzaren 3an Irizar jauregian, *Elosuko gaztelu nafarra. Egia ala mito?* Beste ikuspuntu bat izenburupean. "Bergararrok beti entzun eta irakurri izan dugu



Andoni Larrañaga eta Ander Errasti San Pedro elizako arkupeetan, asteen. J.B.L.

MAIATZAREN 31KO KATALUNIAKO HAUTESKUNDEEK UTZI DUTEN EGOERA AZTERTUKO DUTE

Elosuan gaztelu nafarra egon zela 1200an, Gaztela sartu eta irabazitako gaztelu-zerrenda luze baten ageri delako. Informazio apur horretan sakontzen saiatu arren ez nuen ezer aurkitzen, eta ez nuen ulertzen zergatik. Eskoriatzako Atxorrotzeko gazteluaren inguruan informazio idatzi badago, eta baita informazio arkeologikoa ere, baina Elosuan ezer ez. Hortik tiraka, sorpresa batzuk agertu zaizkit, eta horregatik uste dut Elosuko gaztelua beste ikuspuntu batetik ere aztertu behar dugula", adierazi du Larrañagak.

Sorpresa aipagarriena Felipe II.aren kronista izan zen Esteban Garibai arrasatearraren akats bati egotzi dio Larrañagak: "XVI. mendean Garibaik 40 bat liburu idatziko zituen orduko historia jasotzen dutenak, eta idatzi horietan, besteak beste, aipatu

zuen Elosuan gaztelu nafar bat egon zela. Baina hanka-sartzea da, egungo Zaldibia eta Albatzisketa artean dagoen Ausa izeneko gaztelu bat nahastu zuen-eta Elosuarekin. *Ausa* idatzita egon arren denboraren poderioz hitzekin aldaketak izan zirela eta *Elosua* zela esan zuen; Garibai ospe handiko historialaria zenez, haren ostean etorri zirenek akats hori errepikatu zuten... gaur egunera arte".

"Indusketa sakona" behar

Harago ere badoa Larrañaga, eta dio, besteak beste, Arrasateko Goikobalu gaztelua ere ez zela nafarra izan: "Gaztelaren konkistan ze gaztelu nafar agertzen ziren ikertu dut, eta Elosukoa ez dago zerrendan, ezta Arrasatekoa ere; gainera, bikoiztasun bat dago *Aizorrotz* eta *Aitzorrotz* artean, eta hori ere akats bat da, gaztelu nafar bakarria delako. Arkeologia ikuspegitik garatu nahi izan dut ikerketa, eta, tamalez, Elosuan bi lan arkeologiko egin dira, baina oso arinak. Nire hipotesia da ez zela gaztelu nafarra izan, baina ezingo dugu ziur jakin han indusketa lan sakona egin arte".



NIRE USTEZ

INAZIO NARBAIZA

'The zone of interest'

Horrela deitzen da aspaldi ikusi dudana pelikularik interesanteena, Auschwitz ondoan pozik bizi den familia naziaren ingurukoa. Pentsatzera bultzatzen duen pelikula. Niri zera ekarri dit burura, ez ote garen gu nolabait antzekoak. Palestinako sarraskia gertatzen ari dela, gu hormaren beste aldean geure bizitzaz ahal dela gozatzen, orain jaiak direla...

Nire irakasle bizitza osoan, besteak beste, honetan saiatu naiz, giza eskubideen aldeko borrokan, eta jarduera honetan, indarrak batuz, informatuz, pentsatuz, ekinez... gauzak lortzen direla: Lemoiz gelditu zen, soldaduska pikutara, generoan eta arlo laboralean aurrerapenak... Baina genozidio honen aurrean, orain, zer egin dezakegu? Non gelditzen dira giza eskubideen aldeko diskurtsoak? Nola kalifikatu estatu gehientsuenen portaera? Non dago Europa? Zer da gaur egun Europa? Zer da Israelgo gobernuak nahi duena? Belaunaldietarako gorrotoa ziurtatu nahian? Etsaiak norberaren taldeari batasuna ematen dio. Horixe al da? Ezin dugu etsi, irudimenaren indar eraldatzailean sinistu, amets egin eta borrokarako bide berriak asmatu behar ditugu.

Egoera ekonomikoa eta soziala aztertuko beste ikerketa bat

Udalak ikerketa bat jarriko du martxan Bergarako egoera sozioekonomikoaren gaineko azterketa eguneratzeko. 2019ko lanketatik abiatuta, hainbat alderdi jorrazteko ikerketa berriak, hala nola demografia, ekonomia, enplegua, hezkuntza, merkataritza, gizarte zerbitzuak, euskara, berdintasuna, zaintza, ingurumena, kultura eta turis-

moa. Udalak 20.000 euro inbertituko ditu Ikei Research enpresak egingo duen azterketan.

Diagnostikoaz gain, etorkizunera begiratzea ere bada helburua: "Lana diagnostiko soil batetik harago doa; izan ere, Bergarako egoera sozioekonomikoaren ikuspegi orokorra bilatzeaz gain, etorkizunera begira udal ekintzako lehentasunei erantzutea ere bilatzen du". Lehen fasea asteen jarri dute martxan, herritarren iritzia jasotzeko telefono bidezko inkestekin.

OHARRAK

Plaza libreak daude oraindik udaleku irekietan

Izen-emate epea amaitu den arren, plaza libreak geratu dira udaleku irekietan; izena eman nahi dutenek umearen izen-abizenak eta jaiotza-urtea zehaztu beharko dituzte maiatzaren 24ko 14:00ak baino lehen: udaletzeko.BAZen@gazteria@bergara.eus.

Odol Emaileen Elkarte: hurrengo ateratzea

Odola emateko hurrengo eguna maiatzaren 22a izango da, 16:30etik 20:30era; San Joxepe erretiratu elkarte Arin eguneko zentzura joan beharra dago.

Bergarako Erreal Zaleak taldearen irteera

Realeko lagunarteak ekainaren 2an ospatuko du denboraldi amaierako festa, eta Lizarrara joango dira. Lagunarteko bazkideek 55 euro ordaindu behar dute eta gainerakoek, 70 euro. Izena emateko azken eguna hilaren 27a da.

EAJ: posta bidezko botoa emateko aukera

Ekainaren 9ko Europako hauteskundeetan botoa posta bidez emateko aukera irekita dauka EAJk; batzokian egongo dira astelehenetik egubakoitzera, 10:30etik 12:30era (943-76 47 00).



Gasteizen bizi den Ehl Malick senegaldarraren kontzertua Aramaioko Iturrieta sagardotegian, 2022ko uztailean. GOIENA

Ndank Ndank, segregazio egoerei aurre egin nahian

Nazioarteko Kultura Aniztasunaren Eguna eta Afrika Eguna ospatzeko, egitarau berezia antolatu du Ndank Ndank elkarteak; lortutako dirua herriko segregazio egoerei buelta ematera bideratu nahi dute: "Ume guztien aukera berdintasuna bermatu nahi dugu"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Maiatzaren 21ean Nazioarteko Kultura Aniztasunaren Eguna eta maiatzaren 25ean Afrika Eguna ospatzeko direla-eta, Ndank Ndank elkarteak egitarau berezia antolatu du.

Lehen ekintza maiatzaren 24rako antolatu dute. Kontzertu solidarioa egingo dute Seminarixoan (20:00): "Gasteizen bizi den eta jatorri senegaldarra duen Ehl Malick etorriko da bere taldekide gasteiztarrekin batera. Sarrera libre izango da, baina dohaintzak jasoko ditugu", adierazi du Ndank Ndank elkarteak Eli Dominguez bergararrak.

Desfilea eta munduko jakiak Maiatzaren 25erako kulturarteko moda desfilea antolatu dute Seminarixoan, 18:30ean hasita: "Ndank Ndank elkarteak bere bilduma berria aurkeztuko du, Senegaldik ekarritako arroparekin. Jah Gal izan da jantziak sortu dituen artisaua. Era guztietako jantziak sortu ditu,

emakume, ume eta gizonentzat. Jah Galen bildumaz gain, Gasteizko bi neska gaztek ireki berri duten dendako jantziak ere aurkeztuko dituzte".


Maiatzaren 26an, berriz, Novisi elkartearen eskutik, Togoko dantza eta musika ikuskizuna izango da San Martin plazan (13:00), eta, ondoren, munduko jakiak dastatzeko aukera egongo da: "Bergarako jatorri askotariko lagunekin egingo dugu; gehienak, San Martin eskolako gurasoak. Gogotsu gaude festa herriarrek batera ospatzeko. Askotariko jakiak egongo dira: Maroko, Bolivia, Senegal, Nigeria, Turkia... Oraindik kide berriei irekita gaude". Txartelak jarriko dituzte salgai plazan

NDANK NDANKEK GOGORATU DU ZABALIK DUELA EKARPENAK EGITEKO KONTU KORRONTEA

bertan: edariak euro baten, osagarri edo postreak hiru eurotan eta platera bost eurotan.

Segregazio egoerei aurre egin Malicken kontzertu solidarioko ekarpenetatik eta munduko jakien dastatzetik lortutako diruarekin Ndank Ndankekoek erabakita dute zer egin: "Herrian eta ikastetxeetan segregazio egoerak gertatzen dira. Haur guztiek ez dituzte aukera berak aisialdi ekintzetan parte hartzeko; arrazoi ekonomikoengatik badira ikastetxeko irteeretan parte hartu ezin duten ikasleak. Uste dugu garrantzitsua dela gai hau gizarteratzea eta horren kontzientzia hartzea, ume eta gazte guztien eskubide berdintasuna bermatzeko. Bide komunitarioak ireki nahi ditugu elkarlanean erantzuteko".

Dohaintzetarako kontu korronte zenbakia ere ireki du Ndank Ndankek, kontzeptu gisa *Poltsa soziala* jarrita: ES86 3008 0169 5224 5922 8025.



Oxironon kokatuta egongo den Elikaenea gunea, artxiboko argazki batean. J.B.L.

EAJk salatu du Elikaenea gunea "nahierara" esleitu nahi dutela

Jeltzaleek diote EH Bilduk dena duela prest azokako gune berriaren kudeaketa Ereindajani lehiaketa barik esleitzeko

J.B.L. BERGARA

Oxirondo azokan kokatuko den Elikaenea gune berriaren kudeaketaren bueltan kezka adierazi du EAJk. Jeltzaleen arabera, EH Bilduren Udal Gobernuak "dena du prest" gune berri hori herriko Ereindajan elkarteari "zuzenean" esleitzeko.

EAJ: "Zein da arrazoia?"

Jeltzaleen bozeramaile Mikel Letek salatu du Elikaenea izango denaren kudeaketa Ereindajani esleitu nahi diotela administrazio emakidarako "kontratu atipiko" baten bidez: "Kontratu horretan, hurrengo hamar urteetan 350.000 euro inguru bermatuko zaizkio denda eta sentsibilizazio kanpainak kudeatzeko, eta beste 50.000 euro jarduera horiek sortzen dituzten gastuentzat".

EAJko ordezkariak gogora ekarri dute proiektu horri Eli-

kadura Mahaian eman zitzaioela hasiera eta uste dute eraikin horri buelta bat emateko eta merkatua bultzatzeko unea dela erabiltzaileentzat zein ekoizleentzat: "Eraikin honi buelta bat emateko eta merkatua bultzatzeko unea dela uste dugu, baina EH Bilduren Udal Gobernuak azaldu beharko du zergatik egingo dion hamar urterako esleipen zuzena Ereindajan enpresari".

Jeltzaleek gogoratu dute Gorkako kantina eta Agorrosoingotaberna kudeatzeko oinarriak azken egunotan argitaratu direla, biak lehiaketa ireki bidez esleitzeko, eta galdegin dute ea zein den arrazoia 400.000 euro zuzenean esleitzeko, Udala hamar urterako "horren modu irregularrean" lotuz.

EAJren salaketarekin lotuta, EH Bilduk ez du adierazpenik egin nahi izan, "gaia ez dadin komunikabideetan lokaztu".



Herri Artekoa eta Bergara Hiriko txapelak jokoan

Herri Arteko txapelketako bigarren kanporaketako joaneko lehia jokatuko du Bergarak gaur, Amezketaen aurka (18:30). Bestalde, hilaren 20ko Bergara Hiriko finaleran Ander Murua arrasatearra da txapelerako favorito Endika Uriondorekin batera, nagusien mailan

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Herri Arteko Pilota Txapelketako lehen kanporaketa irabazten hasi zuen Bergarak; maiatzaren 10eko itzuleriko partiduetan pilotari bergararrak nagusi izan ziren Amasa-Villabonako pilotarien aurka. Aritz Etxabe eta Arkaitz Ilarduia kadeteek 22-7 irabazi zuten; gazte mailako Aratz Ormaetxeak eta Peru Alberdik 22-3; eta, azkenik, senior mailako Gorka Martinek eta Harri Oterminek 22-12.

Herri Artekoan, Amezketa

Sei pilotari horien entrenatzailea Ander Muruamendiaraz da, baina lehen kanporaketako itzulerakoan BKEko pilota saileko Julen Aranburu aritu zen entrenatzaile lanetan: "Kadeteen eta nagusien emaitzak ikusita ematen du erraz irabazi zutela, baina kostata irabazi zuten; batez ere, nagusiek. Gazte mailan, berriz, oso erraz irabazi zuten". Bigarren kanporaketa Amezke-



Hilaren 10eko Herri Arteko kanporaketan ateratako talde argazkia. IMANOL BELOKI

tako pilotarien aurka jokatuko dute bergararrek; joanekoa gaur jokatuko dute, Bergarako udal pilotalekuan, 19:00etan hasita. Aranbururen arabera, aukerak badituzte Amezketa gaintzeko: "Hasiera batean, hiru partidue-

tan ditugu aukera asko irabazteko. Gure bikote indartsuena kadeteak dira, eta, beraz, ea kanporaketa ahalik eta ondoen hasten dugun, ahalik eta alde handiena ateratzen tantoei dagokienez. Badakigu, hala ere,

euren kadete bat indartsu datorrela". Gazteen eta nagusien mailako lehien inguruan galduta, honako hau dio Aranburuk: "Gazte mailan asko borrokatuta irabazteko aukerak izango ditugu; betiere, gure lanak ondo egiten baditugu. Eta nagusien mailan ea Etxaniz bere maila onena emanda inposatu daitekeen; Harrik maila ona eman zuen joan den asteburuan, eta ea horren fin aritzeko gai den. Gure helburua da kanporaketa aldeko eramatea Amezketa, ahalik eta tanto-alde politenarekin".

Ezin da ahaztu, gainera, Pentekosteetako lehen egunaren testuinguruan jokatuko direla partidua, eta hori ere bada pizgarri berezi bat: "Jaiak dira, eta ondoren afaria egingo dugu elkarrekin. Ilusio bereziarekin gaude; ea dena ondo irteten den".

Bergara Hiriko finalak

Bergara Hiria txapelketako finalak astelehenean, hilak 20, jokatuko dira, frontoian, 18:30ean hasita. Promes mailan Oier Ibarluzeak eta Markel Calvok Oier Zabaletaren eta Urko Bullonen aurka neurtuko dituzte indarrak; eta, nagusien mailan, berriz, Unai Amianok eta Beñat Garmendiak Ander Murua arrasatearra eta Endika Uriondo izango dituzte aurkari.

Martitzenean jokatu ziren Bergara Hiria txapelketako azken finalerdiak; promes mailan, Za-

baletak eta Bullonek 22-17 irabazi zuten Labakaren eta Garciaren aurka. "Zabaleta eta Bullon favorito izan arren, hasieratik ikusi zen egun aldrebesa zutela; erabaki txarrak, pilota errazak huts egiten... Hala, 6-18 jarri ziren aurretik Labaka eta Garcia, baina, favoritoen erreazioaren eta Labakaren eta Garciaren kale erraz batzuen ondorioz, Zabaleta eta Bullon izan ziren nagusi".

Nagusietan, ordea, Muruak eta Uriondok 22-11 menderatu zuten Canabal eta Apeztegia: "Muruak eta Uriondo oso indartsu hasi ziren: 10-2. Tarte batean Canabalek eta Apeztegiak partidua gogortu egin zuten, baina Muruak eta Uriondok kontrolpean izan zuten lehia. Finalerako eurak dira favorito", dio Aranburuk.

Profesionalak, jaiak itxeko

Jaietako azken eguneko klasiakoetako bat izan ohi da pilotari profesionalen jaialdia. Maiatzaren 21ean 17:00etan hasiko da, eta lehen lehiaren ostean hasiko da partidua nagusia: Ezkurdia-Zabaleta bikoteak Etxeberria-Rezustaren aurka neurtuko ditu indarrak.

BERGARA HIRIKO FINALAK HILAREN 20AN JOKATUKO DIRA, UDAL PILOTALEKUAN, 18:30EAN HASITA

Banda: betiko doinuekin hasi, eta kontzertuan hiru pieza berri

Bandak ohiko 'Pobres y alegres' abestiarekin abiatuko ditu festak gaur; etzi lehen aldiz joko dituzte hiru kantu

J.B.L. BERGARA

Bergaran urte osoan kultura eskaintza bereziki zabala izanda ez da harritzekoa Pentekosteetan ere kulturak presentzia berezia izatea (Ikus egitarau osoa 19. orriko QR kodean). Zuzeneko musikak, esaterako, jaietako egun guztietan izango du presentzia, Xaxauren Bideberriko txosnagunean, San Martin plazan, udal pilotalekuan edo Irala kalean izan. Eta jaietan hutsik egiten ez duen eragile kultural beteranoena da, zalantza barik, musika banda.

Euria bada, frontoian

Bitorianatxo jaitsi eta festak ezteza egiteaz bat (20:00), *Pobres y alegres* ezagunarekin abiatuko du kalejira bandak. "Jai giroa beti da berezia, herri giroa baita. Jaiaren hasierako kalejira polita izaten da, kaleak jai gogoz dauden herritarrez beteta egoten dira-eta", adierazi du bandako zuzendari Enrike Txurrukak.

Ohikoa den moduan, domekan, hilak 19, emango dute kontzertua (12:30). Espolotan egin nahi dute, baina euria bada frontoian izango da: "Urtero saiatzen gara



Bandako kideak kalejirarako prest, Bitorianatxoren jaitsiera hasi berritan. GOIENA

jaietarako kontzertu indartsua gertatzen, eta aurtan ere hala izango da. Pieza klasikoak eta berriak izango dira, hiru pieza lehen aldiz jota", dio Txurrukak. Pieza hauek joko dituzte etzi: *Musica y vinos* (Manuel Morales),

La forza del destino operaren obertura (Guiseppe Verdi), Amaya operako *Ezpata dantza* (Jesus Guridi), *Three inventions* Broadwayrako pieza (Sheffer), *Encanto* (Robert W. Smith) eta *Isn't she lovely* (Stevie Wonder).

Baionako Kortsarioen erakusketa irekiko dute gaur Aroztegin

Baionako Kortsarioen galeriako artistek erakusketa irekiko dute gaur Aroztegi aretoan, eta ekainaren 2ra arte egongo da ikusgai. "Baionako artistak Bergarara iritsi dira; gure elkarrekin arteko bi urtez behingo erakusketa-trukeak aukera ematen digu, aurtan ere, Baionako Kortsarioen lantaldea fitxaketa berriekin berrituta, talde-erakusketa batera hurbiltzeko. Mugaren beste aldetik, aire ezberdinekin etortzen zaizkigu, aberastasun plastiko nabarmena eta askotariko aniztasun estilistikoa berresten dutenak. Gure ongietoririk beroena Baionako kortsarioei", adierazi du Beart elkarreko presidente Xabier Agirrek.

BERGARAKO JAIAK GOIENAN



KUADRILLEN ARTEKO XIV. OLINPIADAK

ZUZENEAN 'GOIENA.EUS'-EN

MAIATZAREN 20AN, ASTELEHENA, 12:30EAN HASITA

ZUZENEKOA



'HEMEN DEBAGOIENA' JAIETAN

GOIENA TELEBISTAN

MAIATZAREN 20AN, ASTELEHENA, 18:00ETAN,
20:00ETAN ETA 22:00ETAN

BERGARAKO JAIEN HASIERA SAN MARTIN PLAZATIK



'JAIAK' SAIO BEREZIA

BERGARAKO PENTEKOSTEAK

MAIATZAREN 22AN, EGUAZTENA, 19:00ETAN,
21:00ETAN ETA 23:00ETAN

goiena

Zu hemen zaude.



Niganeko kideak –alkandora gorriarekin, Mata; alboan, beizez, Etxaniz– Herri Eskolako eta Udaleko kideekin. TXOMIN MADINA

Barrura begiratu, kanporatzeko

Meditazio gela ireki berri dute Antzuola Herri Eskolan, ikasleek eta irakasleek ez ezik gurasoek ere isiltasunean egoteko leku bat izan dezaten. Nigan egitasmoko kideak aritzen dira saio horiek ematen, eta herrian ere gero eta zabalkunde handiagoa dute

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

Nigan egitasmoko sustatzaile Jesus Mari Mataren eta Amaia Etxanizen hitzetan, "irteera barrurantz doa"; alegia, "modu iraunkorrean bizitzeko bidea barrura begiratzea ez ezik", elkar ezagutzea dela, eta "mundu mentala, emozionala eta sakona kudeatzen ikastea". Haien arabera, edozein gizakik egin dezakeen bidea da, eta, beraz, baita gazteenek ere. Hala, hori aintzat hartuta, Antzuola Herri Eskolarekin batera, saioak eskaintzen hasi ziren ikasleei, eta, orain, ikastetxearen ekimenez, meditazio gela bat ireki dute eskolan bertan.

Proiektua, beraz, ez da hutsetik sortu, Nigan ekimenak hamazazpi urte baitaramatza lanean. "Zalantzarik gabe, gela honen irekiera mugarri bat da,

ekimen hau urteetan atzetik bultzatu nahian ibili dena", adierazi du Etxanizek. Haren hitzetan, haien semeetako bat haurra zela nabaritu zuten gazteek bazutela isiltasunean egoteko beharra, meditatzea eta, aldi berean, adimen emozionala eta ongizate mentala lantzekoa. "Jesus buru-belarri aritu zen ikeritzen ea zer egin genezakeen, orduko hartan ez baitzegoen inguruan horrelako ezer".

Esan eta egin. Matak azaldu duenez, "isiltasunean egotea" posible dela erakusten dihardute egun umeei, eta hor egonik "sentitzen eta pentsatzen duten hori kudeatzen saiatzen", batik bat, meditazio praktikarekin. Hala ere, ez da tresna bakarra: "Aurten isiltasunean gustura egotea erdietsi dugu, baina proiektua urte batzuetarako da: adimen emozionala landuko

dugu ondoren". 3 urtetik 12 urtera arte sumatu baitute horrelako guneak "pozarren" hartzen dituztela: "Patroi bat da: oso gustura egoten dira arnasa hartzen, isilik, eta asko lantzen dugu euren arteko maitasuneko kontaktua ere; ez da hitzik jartzen, baina asko adierazten dugu kontaktuarekin".

Hori berretsi dute Amalur, Axel eta Amaiur ikasleek ere. "Zapatilak erantzten ditugu, lehengo, gelara sartzeko, eta, gero, masajeak eta egiten ditugu; baita bihotza ukitu ere, lasaitzeko. Gu horrela lasaiago egoten gara. Lo ere hartu dugu noizbait...".

Lehendabizi, irakasleak

Eskolako ikasleek gutxienez astean behin izango dute meditazio gelara joateko aukera, baina baita irakasleek ere, eurak baitira, hein batean, lehen urra-



Antzuola Herri Eskolako ikasle batzuk meditazio gelan. T.M.

Goxo atondu dute meditazio gela

Koltxonetek, kuxinek, argi suabeak, musika lasaiak eta abarrek osatzen dute Antzuola Herri Eskolako meditazio gela, espazio goxo bat eskaintzeko ikasle zein irakasleei; baita gurasoei ere. Xedea isilik eta lasai egotea da, barrura begiratzeko tarte bat hartuz.

tsak egin zituztenak ikastetxean, Niganekin batera: "Ohartu ginen formakuntza mordo batzuk jasotzen genituela hezkuntzari dagokionez, baina hutsune bat zegoela norberaren zaintza eta ongizate emozional horretan: bada, gu zainzaile bagara, nola zaindu beste batzuk gu ez bagaude ondo?", adierazi du Silvia Ezpeletak, Antzuola Herri Eskolako zuzendariak.

Duela hiru ikasturte inguru hasi ziren irakasleak saio horiek jasotzen, eta horrela jarraituko dute aurrerantzean ere, ikastetxeko espazio inauguratu berria baliatuz. Ezpeletak, gainera, azpimarratu du gurasoendako ere zabalik dagoela espazioa: "Komunitate osoa pasa daiteke, gurasoak tartean, euren meditazioak eta erlaxazioak egiteko".

Ane Miren Etxeberria da, esate baterako, gurasoetako bat,

eta azaldu du gurasoek egokitzat jo zutela proiektua ikasle guztiei zabaltzea –gurasoek ere jaso dituzte saio batzuk–, eta "pozik" daudela emaitzarekin: "Eskolaz harago doa, etxean ere nabaritzen baita saioetan ikasitakoa, urdu-ri eta daudenean arnasketak egiten baitituzte; aurrera jarraituko dugu honekin datorren ikasturtean, eta gurasoek etxean gehiago inplikaturik agian gauza gehiago egin daitezke".

Herrira zabalik

Meditazioarako propio atondu dute gela eskolako kideek, Goiz-

IRAKASLEEK JASO ZITUZTEN LEHEN SAIOAK, ONGIZATE EMOZIONALA ETA ZAINZA OINARRI

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

**MUJKA
HARATEGIA**

Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

perren eta Udalaren dirulaguntzak jasota.

Olatz Lezeta alkatearen hitzetan, "ederra" da espazioa, eta "lan ona" egin dute: "Oso inportantea da umetatik norberaren sentimenduak kudeatzen ikastea. Matematika, euskara, ingelesa eta abar ikasi ohi dugu, baina bizitzarako garrantzitsuena dena, aldiz, ez". Hark esandakoarekin bat egin du Inma Beristain Hezkuntza zinegotziak ere, erantsita "antzuolar pila bat" dabilela alor horretan murgilduta, eskolatik harago baitoa Niganen eguneroko jarduna.

Udalak "orain" eman dio bultzada gai horri, Niganeko kideek "herri mailan forma emateko beharra" antzeman baitzuten. "Eskolan hori gertatu da, baina aurten proiektua Udalean onartu da; herri mailakoa da. Eskolan ez ezik, gurasoekin eta bestelako helduekin ere ari gara gaia lantzen, gai konkretuetan eta adin ezberdinetan", berretsi dute Matak eta Etxanizek.

Hiru urteko formakuntza eskaintzen dute Niganeko partaideek, progresiboa: hasierako tailerrak, sakontzekoak eta mantentzekoak. Baita ikastaro monografikoak ere, bi hilabete-koak, hala nola mindfulness praktika, autoerreakia, esker ona eta kontziente izatea lantzeko. Horiek guztiak gurasoei, nerabeei eta 65 urte baino gehiagoko herritarrei zuzenduak dira, xede nagusi batekin: "Barrura begiratzea, kanpora ateratzeko".

UDALAK ERE NIGANEN PROIEKTUA BULTZATU DU, "HERRI MAILAN FORMA EMATEKO BEHARRARENGATIK"

Garapen pertsonala lantzea, onura

Niganeko kideen hitzetan, hainbat dira garapen pertsona lantzearen onurak gizaki batentzat, "osotasunean bizitzeko" bide eman diezaiokelako: "Pozean, bakean hasten zara bizitzen". Hala, hamaika onura zerrendatu dituzte.

Puntuak puntu:

- Dispersio mentala gutxitzen da.
- Ikasteko gaitasuna areagotzen da.
- Erabakitze gaitasuna garatzen da.
- Sormena eta berrikuntza bultzatzen ditu.
- Osasun fisiko eta psikologikoa hobetzen da, eta estresa eta sufrimendu mentala gutxitu.
- Bizitza gehiago gozatzen da, bere dimentsio osoan bizitzeko gaitasuna garatuta: autoerrealizazioa.
- Asertibotasun handiagoz jokatzeko dugu.
- Enpatia eta errukia areagotzen da.
- Geure burua hobeto ezagutzen dugu.
- Norberarekiko konfiantza areagotzen da.
- Osotasun baten parte izatearen esperientzia ahalbideratzen du, zentzuz eta askatasunean biziz.

San Isidro azoka egingo dute bihar goizean

Ganadua ez ezik jan-edanerako eta artisauen postuak egongo dira azokan; horrez gain, jaietako zapiaren kolorea hautatu ahalko dute herritarrek. Artzain txakur txapelketa –lehen aldiz– eta San Isidro Pilota Txapelketa izango dira arratsaldean

A.R.K. ANTZUOLA

San Isidro eguna ospatuko dute bihar antzuolarrek. 09:30ean hasiko da azoka, eta ganadua izango da protagonista; aurten, gainera, beste aldietan baino baserritar gehiagok hartuko dute parte, hamabi baserritak jaitziko baitituzte abereak azokara. Hain justu, astoak, behiak, behorrak, zaldiak eta ardiak izango dira ikusgai, eta lehen aldiz, gainera, ahuntzak.

Horrez gain, erakusmahaiak eta jan-edanerako postuak ere izango dira: hamar ekoizle eta artisau etorriko dira Antzuola kanpotik, eta antzuolarrak, berriaz, hamasei izango dira; tartean,

baita aihertar bat ere gazta saltzen. 12:30ean, gainera, antzuolarraren eta aihertarren gazta eta sagardoa dastatzeko aukera izango da: Udalak bi eurotan jarriko ditu basoak salgai, eta nahi adina edan ahalko da.

Bada ekintza berezi bat ere: hemendik aurrera, herriko jaietarako zapi berbera erabiltzeko hautua egin du Udalak, eta, beraz, herritarrek kolorea aukeratu ahalko dute goizean zehar, hautestontzi bat egongo baita.

Artzain txakur txapelketa

Artzain txakur txapelketa egingo dute Ibarreko zelaian, 16:30ean; lehenengo aldia du. Sei parte-har-

tzaile arituko dira lanean euren txakurarekin eta artaldearekin batera, eta antzuolarrak dira bi: Javier eta Xabier Gastañaga aita-emeak.

San Isidro Txapelketa

San Isidro Txapelketako finala 19:00etan hasita jokatu da: Naroa eta Laia Gastiainek Irati Benito eta Keltze Bikarregi izango dituzte aurkari; Maria Balerdik eta Larraitz Galardik, berriz, Nahia Sorondo eta Arhane Rey. 18:15ean, lau eta erdiko Gipuzkoako Txapelketako partidu bat jokatu da, eta tartean izango dira Nagore Galeano eta Olatz Insausti antzuolarrak.

Akinibai errota bisitatzeko aukera izango da domekan

Gipuzkoako Erroten Eguna dela-eta, Akinibai errota bisitatzeko aukera izango da domekan, hilaren 19an, Joxe Mari Iturbere eskutik, ate irekiak egingo baitituzte 10:00etatik 18:00etara; horrez gain, 10:00etatik 11:30era Abaro iturburua ezagutzeko aukera izango da. Izen-ematea: iturbe55@gmail.com edo 943-76 62 46 eta 943-78 70 65.

'Faith' liburua izango dute hizpide irakurle taldean egunean

Euskarazko irakurle taldea batuko da maiatzaren 23an, egunean, udal liburutegian, eta Lander Garro idazlearen *Faith* liburua izango dute hizpide, Elaine Agirrerren gidaritzapean. Arratsaldeko seietan hasiko da saioa, eta han izango da Garro ere bere argitalpenaz eta literaturaren bestelako gaiez jarduteko parte-hartzaileekin.

Aiherra auzoko lanak direla-eta, trafikoan aldaketak izango dira

Ezlatatik iritsitako urak bideratzeko lanak hasiko dituzte Aiherran astelehenean, ekainaren amaierara arte; ondorioz, eskolatik hasi eta Kalebarreneraino noranzko bakarrean zirkulatu ahalko da, eta Olanaren eta frontoi atzean aparkalekuak egokitu dituzte. Bestalde, zaborren zintzilikariak eta edukiontzia mugitu egingo dituzte.



GIPUZKOA BERTSOTAN
24

www.bertsozale.eus
www.bertsosarrerak.eus

2. FASEA

ANTZUOLA

Maiatzak 25, larunbata, 17:00

Torresoroa eraikina

Antolatzailea:



Babesleak:



Loguntzailea:



"Animatzen dut jendea tomate beltza landatzera"

AITZIBER OTEGI ABURUZA KIMUBAT TALDEA

'Baratzeko erregina' esaten diote tomate-landareari, baina ez da jatorriz hemengoa eta hezetasunak askotariko gaitzak eragiten dizkio; tailerra egin dute baratzeko parkean

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Aspaldiko ezaguna da Elgetan Aitziber Otegi (Asteasu, 1982). Sortu zenetik ezagutzen du bertako baratzeko parkea.

Sanisidrotan landatu ohi dira tomateak; Elgetan ere bai?

Argi dago Elgetak duen kokalekua dela-eta landaketa garaiak atzeratu egiten direla. Hala ere, landaketa garaia egiten duen eguraldiaren arabera zertxobait aurreratu edo atzeratu dezakegu. Aste honetan euria eta fresko egin duenez, nik datorren astera arte utziko nuke eta datorren astean eguraldi ona egiten badu orduan landatu. Baina landaketa garaia egokiarena ez da zientzia zehatza, eta urtearen arabera aldatzen doa.

Izozteak dira landare-tomatearen etsai nagusietako bat?

Izozteek eta hotzak landaketa garaia baldintzatzen dute, baina hortik aurrera hezetasuna eta temperatura epelen konbinazioa izaten da etsairik handiena, gorrinari –mildua– egiten baitio mesede.

Zeintzuk dira zaintza gomendio garrantzitsuenak Elgetarako eta ekologikorako?

Gorrina ingurune hauetan dugun hezetasun handia dela-eta ateratzen da. Beraz, hori ekidin behar dugu. Tomate-landarea gutxi ureztatu behar da, landatzerakoan espazio nahikotxo utziz landatu behar da eta altsamak edo txupoiak kendu behar dira. Hala ere, tomateek gorrina harrapatuko dute eta kobreakin tratatu beharko ditugu; neurrian, noski.

Zenbat tomate barietate landatzen dira gure inguru honetan?

Azken urteetan lortu ahal ditugun tomate barietateak asko ugaritu dira. Bakoitzaren gustuen arabera aukeratu ahalko dugu. Zaporeari garrantzia ematen diogun, produkzioari, berezia izateari... Horren arabera, denarik dago; tomate beltzak,



Aitziber Otegi. GOIENA

"TOMATE-LANDAREA GUTXI UREZTATU BEHAR DA, ETA KOBREAREKIN TRATATU BEHAR DA"

urdinak, horiak, gozoak, mami asko dutenak...

Ohikoenak edo gurean ondoen ateratzen direnak zeintzuk dira?

Gorrinari egokien aurre egiten diotenak Cherry tomateak izaten dira, baina jende askok ez ditu

askorik estimatzen. Gainontzean, eta lehen aipatu dudana bezala, gustuen arabera gehiago izaten da barietate bat aukeratzeko orduan.

Tentatuko zenuke jendea beste barietate batzuk probatzera? Zeintzuk?

Bai; ni beti saiatzen naiz jendeak tomate barietate eta barazki proba ditzan. Gero, bakoitzak erabaki dezala zein duen gustukoena. Tomate beltzak probatzera animatuko nituzke... Izan ere, oso zapore gozoa eta berezia edukitzen dute.

Zenbait gomendio lagungarri

Gipuzkoako altitude handienetako herrietako bat da Elgeta. Leku hotzagoa da eta izozteak, esaterako, Zarautzen baino geroagora arte gertatzen dira. Tomatea, bestalde, ez da hemengo landarea eta hezetasuna ez du gustuko. Uda zenbat eta lehorragoa izan, orduan eta arazo gutxiago.

Kalkulatzen da 1.320 hazi barietate daudela inguruko hazitegietan. Erabilienak, orain arte, *Jack*, *Robin* eta *Raf* izan dira. Gipuzkoan hamar bat barietate daude autoktono moduan kontsideratzen direnak. Aretxabaletako tomatea *Mozkorra*, Getaria aldeko *Loidi* eta Azkoitiko *Korta* dira ezagunenetakoak. Kimubat-eko lagunaren proposamena da betiko tomatea landatzeaz gainera lursailaren zati bat barietate berriekin aproba egiteko erabiltzea.

Mugikorren erabileraren gaineko formakuntza gehiago

Heziketa Digitala lantaldeak proposatu ditu; Gipuzkoako Altza Burua ekimenarekin harremanetan daude

L.Z.L. ELGETA

Udal liburutegi zerbitzuak koordinatuta, Heziketa Digitala lantaldeak martxan jarraitzen du, eta martitzenean Macsonrisa ekimenak gidatutako saioa egingo dute LH-5eko eta LH-6ko seme-alabak dituzte gurasoendako. Formakuntza 17:30ean hasiko da. Saioak ordu eta erdi iraungo du.

Elgetako lantaldeak, bestalde, bat egin du Gipuzkoako Altza Burua mugimendurekin, eta Antzuolako eta Bergarako taldeekin elkarlanean ari da. "Hiru herrietako gaztetxo gehienek Bergaran egiten dituzte DBHko ikasketak, eta herri bakoitzeko gurasoak saretzea bezain aberasgarria da hiru herrietako lantaldeen arteko saretzea", esan du Geaxi Ezpeleta liburuazainak. Hala, ekintza bateratua antolatu dute. Miren Ros adituaren *Haurrak, nerabeak eta pantailak*

hitzaldia izango da ekainaren 6an, Antzuolan.

Epe berriko paktuak

Bestelako lanketan ere badihar- du taldeak: "Duela hilabete batzuk proposatutako gurasoen arteko paktuen ekainera arteko konpromisoa betetzear da, eta epe berriko paktuen proposamena luzatu egingo dugu, maiatz amaiera aldera". Hurrengo bilerako data zehazteko dago. "Jakinarazpena guraso talde guztietara bidaliko da, eta liburutegiko Telegram kanalean iragarriko da".

Heziketa Digitala lantaldea ekainaren 14ko herri azokan parte hartzekoa da. "Dinamikaren nondik norakoak ezagutarazteko, edozein zalantza argitzeko eta proposamenak entzuteko, han aurkituko gaituzte herritarrek".

Kantsatzekek antolatuta, domekan itzulia Aloñari

Maiatzeko mendi irteera proposamena da, eta antolatzailleek lau bat orduko mendi buelta zehaztu dute. Autoetan egingo dute Urriagainerainoko bidea, eta handik abiatuko dira mendiaz gozatzera, "mendi goietako larreak eta pagoak berdez jantzi berri direla aprobetxatuz. Biozorniako leporaino joango gara igotzen poliki-poliki, al-

dapa handirik gabe, baina beti gora". 700 bat metroko desnibela pistaz egingo dute ia osorik, eta artzain-txabolen para-jeetatik joango dira Aloñaren hegoaldea ezagutzen. Biozornian hamaiketako egin eta beherakoan, laster hartuko dugu ezkererantz. Bidezidor polit batetik –oraingoan, Aloñaren iparraldetik–, eta, gero, alertze eta, batez ere, pago artetik iritsiko gara Urriagainera". Taldea goizeko zortzietan abiatuko da, plaza barrenetik.

OHARRAK

'Mendiurrena'

Zapatuan izango da mendeurreneko ekitaldi nagusia (Ikus 5. orria).

Podologoia

Astelehenean izango da kontsulta. Txanda hartzeko, deitu: 669 99 81 65.

Elgetako abesbatza

Emanaldia egingo dute egunean Espaloian, 17:30ean.

Ferixa Nagusiko jaietako kartel lehiaketa martxan da

Oinarriak ikusgai daude *Elgeta. eus* webgunean. Kartel proposamenak hilaren 24ra bitartean aurkez daitezke. Lanek originalak beharko dute eta esaldi hau izan beharko dute: *Ferixa Nagusiko Jaixak 2024 Elgeta*. Herriarrek aukeratu dute irabazlea, online egingo den bozketatik bitartez. Irabazleak 100 euroko saria jasoko du.



Maite Barrainkua eta Mikel Irazabalen postua Salbador kaleko artisautza azokan. ELGETAKO UDALA



Astrotopaketa saioko une bat; atzean, Intxorta Txiki argizatuta. GOIENA



Unai Cantabrana. ELGETAKO UDALA



Herri-burruntzia. ELGETAKO UDALA



Menditour film laburren proiektzioak. ELGETAKO UDALA



Bergara-Elgeta mendi irteera. MENDITXIK

Irteerak, musika, dantzak eta askoz gehiago Puntaik Punta jaialdian

Adin guztietako jendeari zuzenduta, askotariko ekintzak egon ziren Elgetan zehar banatuta. Kultur ekitaldiak, azokak eta mendi irteerak nabarmendu daitezke hiru egunean egon ziren ekintzen artean joan den asteburuko Puntaik Punta jaialdian

Julen Murua Mesonero ELGETA

Zortzigarrenegun egin da aurten Puntaik Punta bailaran, Debagoieneko Bidezidorren Jaialdia, eta egitarau zabala izan zuten eskuragarri bertaratuek. Eguraldia lagun izan ez bazuten ere, *Geure(r)a* dantza bertikalaren ikuskizuna izan zen bertan behera gelditu zen bakarra.

Nabarmenezkoa izan zen Gozategi taldearen kontzertua, jende gehiena batu zuen emanaldia izan baitzen. Elgetako Udaleko eta Debagoieneko Mankomunitateko ordezkariak ez dute oraindik jaialdiaren gaineko baloraziorik egin; datorren astean dute batzarra, besteak beste, gai hori lantzeko.

Herriko eragileen ekarpena

Hainbat ekintza antolatu zituzten herriko eragileek; besteak beste, *Herrixa dantzan* dantza-festa, Kantsatzeke mendi taldearen irteera, astrotopaketa eta herri-burruntzia. Agustin Beretxinaga izan zen herri-burruntzian txahala erre zuena: "230 kilo ingurukoa",

hain zuzen. "Jende gutxi samar" hurbildu zela dio Beretxinagak, besteak beste, eguraldia kaxkarra izan zelako. Zapatuan 22:00etan jarri zuen haragia erretzen, eta, hamalau ordu geroago, 12:30ean, hasi ziren errazioak banatzen bertaratu ziren guztiei. "Erre genuen txahalarekin, normalean, 1.200 bat pintxo atera daitezke, eta guk 800 bat atera genituen. Eguraldia dela eta, espero baino jende gutxiago etorri zen, baina bertan izan zirenak gustura aritu ziren, eta gu ere bai. Batzuek pintxo errepikatu eta guzti egin zuten, eta, oro har, giro ona izan genuen".

Egitekoarekin pozik amaitu zuten astrotopaketako antolataileek ere. Gorka Buruagaren esanetan, "60 bat pertsona" batu ziren ekimenera, eta, "zerua estalita" egon arren, "ilargia ikusteko" eta, "besteak beste, konstelazioen mitologiaren gainean" aritzeko aukera izan zu-

ten. Horrez gain, Mendratxu – Intxorta Txiki bezala ezagunak argizatzen zen ikusi zuten, eta "izugarria" izan zela dio Buruagak. Kantsatzeke mendi taldeko kideek antolatutako irteeran parte hartu zuten ia 140 lagunek argizatu zuten Intxorta Txiki, eta, bertako kide Enaitz Ezpeletaren hitzetan, "berezia eta hunkigarria" izan zen unea: "Balorazioa oso positiboa da. Askotariko profilak elkartu ginen, eta espektatiba guztiak gainditu zituen". Eragile horiez gain, aipatzekoa da Gazte Asanbladak, Amantalak talde feministak eta Goibeko euskara elkarteak kudeatu zutela plazan kokatutako txosna.

HERRIKO HAINBAT ERAGILEREN PARTE HARTZEA IZAN DU 2024KO PUNTAIK PUNTA JAIALDIK

Energiaren gaia lantzeko egitaraua egin du Udalak

'Energiaren zikloa aktibatu' izeneko programarekin, herritarrak gonbidatu gura dituzte ekintzetan parte hartzera, "energia eredu inguruan hausnartzeko, energia komunitatez jarduteko eta herriko energia azpiegiturak ezagutzeko"

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Energiaren zikloa aktibatu izeneko ekimena aurkeztu dute astean Izaro Elortzak, Oñatiko alkateak, eta Xabier Igartuak, Oñatiko Udaleko Zerbitzuetako batzordeburuak. Aurreko agintaldian aurkeztu zuten Energia Planaren baitan egindako "beste urrats bat" dela adierazi du alkateak, "energia berriztagarriak, eredu justu bat eta auto-sufizientzia oinarri" izaten jarraituta. Era berean, ekimenak "energia eredu inguruan hausnartzeko, energia komunitatez jarduteko edo herriko energia azpiegiturak ezagutzeko aukera" emango duela esan du.



Xabier Igartua eta Izaro Elorza, udaletxean, martitzeneko aurkezpenean. J.M.

Energia Planaren segida

Eta energiaren gaiak "barnebiltzen dituen erronka desberdinei, oraingoei zein etorkizunekoari", erantzuteko, ekintzen egitarau bat ere prestatu dute. "Lankidetzan oinarrituriko sarea osatzen joatea" da Udalaren helburua, Elortzaren esanetan, eta, horretarako, "herritarren parte hartzea beharrezkoa" izango dela aitortu du. Gaineratu du ekimena "iazko partaidetza aurrekontuekin oso lotuta" dagoela eta "plangintza integral baten pieza esanguratsua bat" izango dela energia komunitateena. Hala ere, aitortzen du ez dutela horretara mugatu gura: "Harago egin gura dugu".

Herritarrekin lankidetzeta bilatze aldera, hainbat ekintzaz osatutako egitaraua aurkeztu dute: hiru hitzaldiz, erakusketa batez eta irteera batez osatutakoa, hain justu. Xabier Igartuak azaldu duenez, "herritarrei azalpen batzuk ematea" da euren helburutako bat: "Esateko nondik gatozen edo zer aukera dau den herrian". Gaineratu du "ikusita herriak berak ere badituela bere azpiegiturak" uste dutela "guztion artean aukera handiak egon daitezkeela herrian

EKIMENA IAZKO PARTAIDETZA AURREKONTUEKIN OSO LOTUTA DAGOELA ESAN DU ALKATEAK

proiektu energetikoen inguruan aurrerapausoak emateko".

Kultura etxean dira hitzaldiak

Hitzaldiak kultur etxean izango dira, 18:30etik 20:00etara. Lehenengo astelehenean izango da, hilak 20, eta herriko egoera eta aukera energetikoen inguruan jardungo dute. Erakusketan, berriz, bailako aukerak ikusiko dira; Debagoiena 2030 iraunkortasun sarea sortutakoa da erakusketa. Egitarauan jasotako ekintzak erabilgarriak izango direla esan du alkateak: "Hastear dugun bide honetarako". Alde horretatik, herritarrak animatu ditu antolatutako ekintzetan parte hartzera: "Urte erabakigarriak ditugu, eta bagoaz. Izango ditugun hitzaldi, irteera eta erakusketa interesgarriak aprobetxatzera animatu gura ditugu herritarrak".

Prestatutako egitarauak dakarrena

Maiatzak 20

- 18:30 Hitzaldia: *Oñatiko egoera eta aukera energetikoak.*

Maiatzak 22

- 18:00 Bisita Olateko zentral hidroelektrikora eta Oñargiren Bustinzuloko azpiestaziora.

Maiatzak 28

- 18:30 Hitzaldia: *Argindarraren merkatuak.*

Ekainak 5

- 18:30 Hitzaldia: *Energiaren gaiari erantzun kolektiboak.*

Ekainak 24-28

- 10:00 Erakusketa: *Debagoieneko egoera eta aukera energetikoak.*

Udalak ez du ebazpenaren aurkako helegiterik aurkeztuko

Esan du hasieratik zuela onartuta kontratazioan izaniko akatsa eta kalte-ordaina emateko prest zegoela

O.E.G. OÑATI

Udalak jakinarazi duenez, EAE-ko Justizia Auzitegi Nagusiak hartutako ebazpenaren aurka ez egitea erabaki du, talde juridikoarekin gaia aztertuta. Baina, azken asteotan zenbait mediotan argitaratu bezala, "harriduraz" hartu du kalte-ordain nagusia, 30.000 eurokoa, argitaratu barik dagoen txosten batean oinarrituta egote hori; alegia, erabakiak, onartu eta argitaratu barik dagoen arau bat du oinarrian", eta azaldu du "horrek eragina izan dezakeela konpentsazioaren zenbatekoan, ez direlako arau horren balizko zehetasunak, salbuespeneko kasuak... ezagutzen -tardean, kasuaren berezitasunak bat etor zitezkeen salbuespen horiekin edo arintzeekin-. Beraz, ez da indarrean diren araubideetan behar moduan oinarrituriko kalte-ordain

erreal bat". Gogorarazi du "Oñatiko kasua bere horretan" ez dela salbuespena; bai, ordea, "ebazpenean jaso den erabakia".

Udalak onartu du legalki aplikatu beharreko izan arren ez zaiola bidezkoa iruditzen Langileen Estatutuaren 56. artikulua eta Lan Arloko Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 110. artikulua araberako 493,49 euroko kalte-ordaina. "Horixe zen Udalak aplikatu behar zena, hori baitzen kasu hau aurreikusia zuen oinarri juridiko bakarra. Erakunde batek araubideetan oinarriturik hartu behar ditu erabakiak. Ezin daiteke ahaztu funts publikoak kudeatzaren ardura duela". Gehitu du hasieratik zuela onartua kontratazio prozesuan izaniko akatsa eta hasieratik agertu dela prest langileari kalte-ordaina ordaintzeko.

Txanda elkarteak 4.200 euro zozketatuko ditu

Txanda herriko merkatarien elkarteak beste kanpaina bat jarriko du martxan datorren astelehenean, maiatzak 20. Guztira, 4.200 euro zozketatuko ditu herriko bost establezimendutan zigitatutako txartela aurkezten duten bezeroen artean. Kanpaina parte hartuko duten merkatariak *Oñatiko erosketa-pasia* izeneko txartel bat emango die-

te erosketak bertan egiten dituztenei. Txartel horretan, herriko bost dendatiko zigituak lortu behar dituzte oñatiarrek zozketan parte hartzeko; beraz, txartela aldean eramateko gomendioa egin du Txanda elkarteak: "Egiten duzun erosketa bakoitzeko zigituak jartzeko".

Pasea zigitatuta entregatzen dutenen artean 4.200 euro zozketatuko ditu Txandak: 200 euroko 21 sari, 50 euroko bonuetan. Zozketa ekainaren 19an egingo dute.

Eskolako eguna ospatuko du Urgainek bihar, zapatua

Goizean muntaia lanak egingo dituzte Oñati institutuaren aurrean, eta 11:00etan hasiko da eskolako eguna ospatzen Urgaineko komunitatea. Kalejira, trikitilari gazteen emanaldia eta abestiaren dantza egingo dituzte bazkaltzen hasi aurretik. Osterako antolatu dituzte bingoa eta haurrendako jolasak, besteak beste. Musika ere egingo da.

Nekazaritzari buruzko liburua dakar Pimentelek

La venganza del campo izeneko liburua aurkeztuko du egunean, hilak 23, Manuel Pimentelek, Jose Maria Aznarren Gobernuaren Lan ministro izandakoak; egun, editorea eta *Arqueomania* tebibista saioko aurkezlea da. Solasaldia ere egingo da, Xabier Iraolarekin, Batis Otaegirekin eta Andoni Altunarekin. 18:30ean, kultura etxean.

"Hiztegiaren arkitektoak ziren gure arbasoak"

KEPA DIEGEZ BARAHONA IDAZLEA

Euskal Herrian zehar eguraldiari lotuta dauden berbak jaso ditu liburu batean; tartean, Oñatikoak. Horiei buruz jardungo du martitzenean, liburutegiak gonbidatuta

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI
Eguraldiaren euskara. Aro-bidaia Euskal herrian barrena liburua-ekin izango da Kepa Diegez (Bilbo, 1960) idazlea martitzenean zinema-aretoan, 19:00etan. Euskal Herriko 99 herritan eguraldiari lotuta dituzten hitzak daude liburu horretan. Oñatikoak ere jaso ditu, eta horien inguruan egin gura du berba herritarrekin aurkezpen horretan.

Zergatik edo nola hasi zinen hitz horiek batzen?

Berben eta kulturaren arteko lotura ikaragarria da eta iruditzen zait eguraldiaren lexikoa dela kultura ondoren islatzen duen elementuetako bat. Eta berbak erabili egin behar dira. Kultura bultzatzeko gauza asko egiten dira; bada, berbak erabiltzea ere bada kultura mantentzea.

Zenbat hitz bildu dituzu?

Ikaragarri oparoa da eguraldiaren gaia eta mordo bat pilatu ditut. Liburuan, guztira, 1.100 inguru jaso ditut.

Oñatikoak daude tartean; zelan egin duzu berbak jasotzeko lana?

Oñatikoak, esaterako, Kandido Izagirrerren hiztegia eskuetan hartuta egin dut. Aberatsenetakoa da, egia esan. Oñatik badu bere presentzia liburuan, bai.

Adibidez, kuku-izerdia dator jasota liburuan.



Kepa Diegez. ALBERDANIA

Txori alferra da kukua, eta hitz horrek esan gura du ez duela euri askorik egin. *Azaixa bustitiko eurixa* esamoldea ere badator. Azeriak ez du ura, euria, maite, eta hura bustitze-ko moduan euria egiten duenean, xehe, esateko erabili izan da Oñatin esamolde hori. Eguraldiaren hizkuntza oso poetikoa da, benetan ere.

Behaketa eta sormena, beraz, berba askoren zergatian?

Hiztegiaren arkitektoak izan ziren gure arbasoak. Hitz batzuek beste batzuek baino arrakasta

eta erabilera handiagoa izan dute; komunitatean onartuak izan direnak, alegia. Sormena eta onarpena dago berben atzean. **Getxon hasten da liburua eta Es-kiulan bukatu; errepikatu ere egin-go dira hitzak herri batean eta bestean, ezta?**

Aro-bidaiari bat dago liburuan herriz herri dabilena, eta konturatzen da horrekin, bai, errepikapenak ere ikusten ditu. Fenomeno batzuen inguruan jarraikortasuna duten hitzak daudela ikusten du.

Zein da aro-bidaiari hori?

Liburuan irakurrita jakingo da hori. Lan hau saiakera da, batetik, baina saiakera eleberritua. Hau da, istorio bat ere kontatzen du, bere protagonista duena. Eta aro-bidaiari hori dabil Euskal Herriko herri batetik bestera. Askotan, haizeak lagunduta, haizeak darama, sarri, toki batera edo bestera.

Eleberrri baten moduan irakurri behar da, orduan, liburua?

Hori da aukera bat. Baina batutako hitzen aurkibidea ere badakar, eta hori kontsultatuz ere irakur daiteke: hitz bat bilatu, zein herri edo eskualdetan esaten den eta ze erabilera duen ikusi... Ondorio antropologikoak ere atera daitezke liburua irakurrita.



NIRE USTEZ

ASIER LAUZURIKA ARRONDO

M17, LGTBIfobiaren aurkako eguna

Duela 34 urte erabaki zuen OMEk homosexualak ez ginela gaixo mentalak. Ezkontzea zein haurrak adoptatzea legez onartu zaigu. Trans pertsonak NANKo generoa alda dezakete. Zer gehiago nahi dugu? Hiritar funtzionalak izan gaitzke nortasun agiri, senar-emazte eta seme-alabekin. Ireki zaigu "normalak" izateko aukera. Heteroarauak ordea jarraitzen du gorputzak, identitateak eta desirak diziplinatzen.

Norbere azaletik ez bada, zaila da zapalkuntzez jabetzea. Azalari utziko bagenio esango liguke tatuaturik duela eskolan jasotako "marikoi" bakoitza. Orbainetan irakurriko genituzke kaleetan bizitako beldurrak, jasotako kolpeak. Azal azpitik entzungo genituzke isildutako desirak eta ukatutako plazerak. Hitz egingo lukete lantokian, familian, komunikabideetan edo osasun sisteman jazarriak diren gorputz eta identitateak. Eta sentituko genuke gureak ere badirela; igandean Argentinan hil zituzten lesbianen azal erreak bezala, Israelen "gayfriendly" bombek erretzen dituzten palestinarren azalak bezala.

65etik gorakoek deskontua dute zineman zapatuetan

Espainiako Kultura Ministerioak sustatzen duen *Cine senior* kanpainarekin bat egin du Oñatiko Udalak, eta zapatuetako bi emandietan deskontua izango dute 65 urtetik gorako herritarrek.

Zapatu honetan hasiko dira beharpena aplikatzen. Deskontua jasotzeko, filma ikusteko sarrera leihatilan erosi behar dute 65 urtetik gorakoek; online erositakoetan ez da aplikatuko. Sarreraren prezio murriztua bi euro izango da -bost euro da ohiko prezioa- eta nortasun agiria erakutsi behar dute leihatilan sarrera erostekoan. Asteburu honetan hasi eta 2024. urte amaierara arte iraungo du kanpaina horrek.

OHARRAK

Oñati Vizirik

Oñati Vizirik ekimenaren biraren bigarren geldialdia Arrasateko gaztetxean izango da, zapatuan, 20:00etan. Han joko dutenak dira: Lizartxo, Letagin, Malko, Aiert eta Aitor Regueiro.

Liburu aurkezpena

Astelehenean, maiatzak 20, egingo dute *Olabartarrak* izeneko liburuaren aurkezpena. Olabarrieta auzoko elkartearen izango da, 18:00etan.

Klima aldaketa

Klima aldaketaren nor-nor-nork. Mundukideko Beñat Arzadunek 21ean, Euskaldun Berria gelan, 19:00etan.

Grupo Asegi Oñatira iritsi da

Espezialista talde bat dugu zure neurria egindako zerbitzu global bat eskaintzeko. Zure enpresaren beharretara eta tamainara egokitzen gara.

ZURE AHOLKULARITZA IZAN NAHI DUGU

📍 Ramon Irizar Kalea, 3 - 20560 Oñati, Gipuzkoa 📞 94 401 94 85

asegi asesorías

ZURE NEURRIA

"Kanpandorreak bost harrobitako harriak ditu"

JOXE RAMON ARRAZOLA URQUIAGA IDAZLEA

Joxe Ramon Arrazolak Oñatiko kanpandorrearen historia jaso du liburuan. San Miguel parrokiako sakristian aurkeztu du, lagunez eta senitartekoz inguratuta

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Duela 240 urte bukatu zituzten Oñatiko San Migel parrokiako kanpandorrea eraikitze lanak. Bost urte iraun zuten, 1779an hasi baitziren eta 1784an bukatu. Elizaren azken eraikuntza da –neoklasikoa–, sarrera nagusiarekin –barrokoa– batera. Jose Ramon Arrazola Urquiagak (Oñati, 1948) *La torre campanario de la iglesia parroquial San Miguel Arcángel Oñati* liburuan jaso du haren historia.

Zergatik kanpandorreari buruzko liburua?

Hondarribikoaren liburua atera zutela jakitean erabaki nuen Oñatikoaren historia ere jasotzea. Gordeta nituen oraindik duela 40 bat urte egindako haren krokisa eta mapa bat. Horretaz gain, beti izan dut harreman ona horren bueltan lotura izan duten Jabier Bikuña harginarekin, Bernardo Santa Cruz errementeriarekin eta Jose Mari Agirrebaltzategi apaizarekin, eta haien bidez informazio asko nuen batuta; Federiko Mendizabal bizilagunarekin batera neurriak hartu genizkion behin, gailu berezi batekin.

Nolakoa izan da prozesua?

Hiru bat urte iraun du. Datuak batzen, artxiobotan arakatzeko, eroso ibili naiz. Astunagoa izan da batutako guztiari forma ematea eta liburuan jasotzeko moduan prestatzea.

Ze bitxitasun nagusi ditu parrokiako kanpandorreak?

Adibidez, bost harrobi ezberdinetako harriak erabili zirela egiteko. Kareharriz egindakoa dela dirudi kanpotik begiratuta, baina barruan baditu gehiago. Goian dauden estatuak, egiteko, adibidez, Oñatiko udaletxean dagoen armarrria egiteko harri bera erabili zuten, Araba aldetik ekarritakoa. Aguraingoa, Bergarako, Oñatiko Azkontegikoa eta Narriako harrobiak bisitatu ditut, esaterako, informazioa



Joxe Ramon Arrazola, liburua egilea, parrokiako sakristian.. M.A.

"HAMAR KANPAI DAUDE ETA KALETIK IKUSTEN DITUGUN LAU HANDIENEK IZENA DUTE"

osatzeko, haietatik zenbat harri eta nola ekarri edo ordaindu zuten jakiteko, adibidez.

Artxiobotan topatu dituzu datuak?

Bai, baita Donostiako elizbarrutiko liburu batean ere. Kontabilitate kontuak, esaterako, liburu horretan zeuden jasota. Baita 1778ko plano bat ere. Sekulako sorpresa izan da plano hori aurkitzea. Hurrengo urtean, 1779an, hasi ziren eraikitzen, eta bost urte iraun zuten lanek, 1784ra arte.

Erlojua eta kanpaiak ere kanpandorrearen parte dira.

Aztertu ditut horiek ere. Erlojuak ez du aparteko historiarik; 1902an Benito Yeregiren –Urrusolakoa ere harena da– erlojua jarri zuten eta 1944an elektrikoa jartzea erabaki zuten. Kanpaiak, ordea, aberatsagoa dute. Hamar daude, guztira, eta kaletik ikusten ditugun lau handienek, adibidez,

bakoitzak bere izena dauka: plazara begira dagoena Errepika da, Santa Ana aldera dagoenak Mikel Aozaraza izena du, San Juan alderakoak Santa Barbara eta Institutu aldera dagoenak Ama Birjina. Ordu osoak eta laurdenak ematen dituztenak goi-goian daude. Bestalde, goraino 251 eskailera daudela ere badakar liburuak.

Testuaz gain, beste zer elementu datur liburuan?

Argazki asko datoz, eta baita mapak eta ilustrazioak ere. Amaieran, esaterako, herriko margolarien koadroetan ere kanpandorrea zenbatetan agertu den erakusteko adibide batzuk jarri ditut, lehengoak eta berriagoak. Oñatiko pintoretan ez ezik argazkietan eta ilustrazioetan ere askotan agertzen da parrokiako kanpandorrea. Herriaren sinboloetako bat da, eta neuk ere horrela ikusi dut beti.

Non eskura daiteke liburua?

Neuregura etorrira, adibidez, baina Protokoloen Artxioban eta Soraluez hotelean ere badaude salgai, 40 eurotan. Udal liburutegian, artxioban, elizbarrutian eta Koldo Mitxelenan ere badaude, kontsultatzeko moduan.



Torreuzoko krosaren hasieran parte-hartzaileak korrika. ABIXARAN

Izen ematea zabalik dago 25. Torreuzoko kroserako

Abixaran taldeak antolatzen duen zazpigarrena da eta ekainaren 30ean izango da, "helburuei tinko eutsiz"

O.E.G. OÑATI

Lasterketaren izaera herrikoia gordetzea eta emakumeen partaidetza sustatzea zituen helburu Abixaran taldeak Torreuzoko krosa antolatzen hasi zenean, 2016an. Aurtengoa zazpigarren aldian izango da eta "betiko helburuei tinko eutsiz" egingo dutela baieztatu dute.

Taldeko parte-hartzea

Hori lortzeko, batetik, korrikarietako taldeka parte hartzeko deialdia egin dute hasieratik Abixaran taldeko kideek: "Emakume asko hala entrenatzen direlako eta ariketa fisikoari jarraipena emateko taldearekiko konpromisoa oso lagungarria dela uste dugulako". Eta aurtur ere horixe egin dute. Bestetik, herriko dendarien eta ostalarien laguntzarekin sariak eta opariak gehitzen saiatu dira, eta aurtur, 25. urteurrena ospatzeko, sor-

presak ere prestatzen ari direla aurreratu dute. Jarraitzen dute, bestalde, "zailtasunen gainetik kirola guztiontzat onuragarria dela bistartzeko ahaleginean", eta aniztasun funtzionala duten gaztetxoak eta mugikortasun mugatua duten lasterkariak ere parte hartzera gonbidatuta daude aurtur ere.

Zilarrezko ezteietako kartela eta logoa, bestalde, berriro egin dituzte, "hitzorduen filosofia eta egungo errealitatea hobeto irudikatze asmoz. Familia edo lagun artean korrika egitea, gizonak eta emakumeak parez pare eta kirolaren balio integratzailea aldarrikatu nahi ditugu kartel berriarekin".

Izen ematea zabalik dago

Izena online bakarrik eman daiteke, www.herrikrosa.eus webgunean sartuta. Epearen arabera prezioa aldatu egingo da.

Ibilketa nordikoko bi saio egingo dituzte Zubikoan maiatzean

Ibilketa nordikoa ezagutzeko eta egiten ikasteko bi saio egingo dituzte Zubikoa kiroldegian hilabete honetan, maiatzean, E-goitek zerbitzuak antolatuta. Hilaren 22an eta 29an izango dira saioak, 16:15etik 17:15era. Plazak mugatuak dira eta aurrez eman behar da izena: hamabost euro Zubikoako bazkideek eta 20,30 euro bazkide ez direnek.

Nafar erresumako gazteluetara izango da maiatzeko irteera

Nabarralde elkarteak kideek gidatutako ibilaldia izango da Aloña Mendiko mendi sailak maiatzeko antolatuta duena. Domekan, hilak 19, egingo dute, eta Nafarroako erresumako mugak babesten zituzten Roita eta Sos del Rey Catolicoko gazteluak ikustera joango dira. Ohikoa den moduan, postetxetik abiatuko dira, 07:00etan.

Hau da hau
desastria egin dotena.
Oin, baten batek konpondu
biherko dost hau.



DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n

goienaOkmgida

Debagoiengan baldin badago,
hemen dago.



Goiena
Okm Gidaren
eskaintza osoa.

Xabier Urtzelai OÑATI

Bost urte pasa dira Realak Granadan Erregina Kopa irabazi zuenetik. Oihana Aldaik (Aretxabaleta, 1992) egun hura –eta ondorengoak– ez ditu inoiz ahaztuko; Realeko bigarren atezaina zen, eta, finalean jokatu ez bazuen ere, jokalaria batek izan dezakeen ametsetako bat bete zuen. Hala, bost urte geroago, Elene Guridi (Oñati, 2002) oso egoera antzerakoan dago. Erdilari oñatiarrak aurten egin du Realeko lehen taldearekin debuta, hain justu, Bartzelonaren kontra, eta bihar-ko finalera begira (La Romareda, 19:00) deialdian sartu du Natalia Arroyo entrenatzaileak. Finalaz berba egiteko, GOIENAK Azkoagaingo berdegunean egin du hitzordua biekin.

Elene, zer moduz finalaren atariko egun hauek?

Elene Guridi: Ondo! Tira, egia da dagoeneko hasi garela sahelean urduritasunak igartzten. Egunerokoari dagokionez, bes-telako asteen errutina berbera mantendu dugu, baina bai, zapatuko finala hor dago eta igartzten dugu, bai. Ea zapatuan urduritasunak alboratu eta guk egin beharreko lanean ondo zentratzen garen.

Azken jardunaldian irabazi izanak konfiantza emango dio taldeari, ez zeundeten boladarik onenean.

E.G.: Ez; emaitzei dagokienez, denboraldiko azken zati hau ez da batere ona izan. Joko aldetik partidu batzuetan sentsazio onak izan ditugun arren, ez ditugu emaitza onak batu, eta azken jardunaldian Tenerifekoa moduko zelai zail baten partidua irabazi izanak konfiantza eta motibazio puntu hori eman dizkigu; sentsazio horiek oso garrantzitsuak dira final baten atarian.

Halako final bat jokatzera da jokalaria batek izan dezakeen ametsetako bat?

E.G.: Zalantza barik, eta, gainera, zure txikitako taldearekin jokatzeko baduzu... Duela bost urte Realera etorri nintzenetik amestu izan dut halako esperientzia bat bizi izatea, eta zapatuan izango dugu horretarako aukera. Irabazi edo galdu, biziko duguna nirekin eramango dut bizitza osoan.

Oihana, nola bizi izan duzu Realak ostera ere Kopako finalerako sailkatu izana? Barrenak mugitu dizkizu?

Oihana Aldai: Poztasun eta emozio handiarekin. Atletico

"Finala partidu batera da, ezustea eman dezakegu"

ELENE GURIDI ETA OIHANA ALDAI REALEKO JOKALARIA ETA ATEZAIN OHIA 2019an Oihana Aldaik Realarekin Kopa irabazi zuenean Elene Guridi talde txuri-urdinera iritsi berri zegoen; zapaturako deialdian sartu du Natalia Arroyok



Elene Guridi, ezkerrean, eta Oihana Aldai, eskuman, Azkoagainen. ANDER MONEDERO

Madrilen kontrako finalerdietako partidua Reale Arenan ikusi nuen, harmailetan, eta emozio handiko norgehiagoka izan zen. Egia da aste barruan izan zela eta asteburuan izan balitz harmailetan askoz jende gehiago egongo zela, baina, hala ere, asko ginen partidua ikustera joan ginenak. Zapatuan lana daukat eta ezin izango naiz Zaragozara joan, baina, modu batera edo bestera, jarraituko dugu partidua, bai.

Bartzelona beste maila batean dago, baina duela bost urte Atletico de Madril Realak baino talde hobea zen, eta...

O.A.: Bi finalei antzekotasun handia ikusten diet; izan ere, orduan Atletico oso talde indartsua zen, eta, hala ere, finala irabazteko gauza izan ginen, ezustekoa eman genien. Eta orain, gauza bera gertatzen da, Bartzelona da faboritua, baina partidu batera edozer gerta daiteke.

E.G.: Bartzelona mundu mailan dagoen talde onenetakoa izango da, onena ez bada. Besteak baino koska bat gorago daude eta garbi dugu gure lana oso ondo egin beharko dugula finala ira-

"ERASOAN AUKERAK APROBETXATU EGIN BEHARKO DITUGU, ETA ATZEAN SENDO EGON"

bazteko. Ez ditugu aukera asko izango, baina izango ditugunak ondo aprobetxatu behar ditugu, eta gero, atzean oso sendo egon behar dugu.

Ez dakit Bartzelonaren halako nagusitasunak emakumezkoen futbolari mesede egiten dion...

O.A.: Batetik, bai, halaxe da. Azken urteotan ia dena irabazi dute. Esan daiteke Bartzelona liga batean dagoela eta besteak beste liga batean. Azken batean, talde hori Txapeldunen Ligan nabarmentzeko diseinatuta dago, eta liga desorekatu samar gertatzen da; gaur egun, inork ez die itzalik egiten.

E.G.: Baina beste alde batetik, Bartzelonak gainontzeko taldeei erakusten digu nora iritsi behar dugun, zein den helburua. Alde horretatik, positiboa da erreferentziatzeko talde bat izatea.

Oihana, baduzu Elenerendako gomendiorik?

O.A.: Halakoak oso partidu bereziak dira, eta goza dezala ahalik eta gehien. Egia da gaur egungo jokalaria gu baino ohituago daudela ikusle askoren aurrean jokatzera. Izan ere, emakumezkoen futbola bost urte hauetan asko aldatu da. Nik ez dut gogoan gure finalaren atarian halako ikusminik piztu zenik. Zentzu horretan, Realak bidea egin du, emakumezkoen futbola berak ere bai, komunikabideek... Eta partidura begira egon daitezela elkarrekin, izan daitezela talde bat. Momentu zailak izango dituzte, eta hor elkarrekin egon behar dute Bartzelona moduko bati min egiteko.

Granadan Realak bi mila zale izan zituen harmailetan...

E.G.: Ba, zapatuan Zaragozan izan daitezela lau mila! Kar-kar. Egia da Zaragoza Granada baino gertuago dagoela, eta dagoeneko badakigu zale asko joango direla finala bertatik bertara ikustera [Realak 4.000 zale izango direla aurreratu du dagoeneko, eta, guztira, 25.000 ikusle aurreikusten dituzte finalean]. Bereziki guk asko eskertuko dugu zaleen berotasuna.

O.A.: Granada lekutan dago, eta final hartan harmailetan horrenbeste elastiko txuri-urdin ikustea emozionantea izan zen. Zaragoza Bartzelonaren eta Gipuzkoaren erdibidean dago; hor antolatzaileak argi ibili dira. Seguru giro paregabea izango dela.



Muko jokalariai, domekan, lauko finala irabazi berritan, zaleekin ospatzen. ANGEL AYASTUY

Granadan dago LF2ra igotzeko azken geltokia

SASKIBALOIA Domekan Euskadiko lehen mailako lauko finala irabazi eta gero, moreek hilaren 23an hasiko dute igoera fasea. Multzo zailena egokitu zaie arrasatearrei: Granadako, Zaragozako eta Caceresko erreferentziazko taldeak izango dituzte aurrean

Xabier Urtzelai ARRASATE

Ointxe!-ko emakumezkoen taldea 2022an Euskadiko Lehenengo Mailara igo zenean Arrasateko klubean inor ez zen lasaitu. Mondragon Unibertsitatekoek bi denboraldi baino ez dituzte behar izan kategoría horretan ere erreferentziazko talde bilakatzeko, eta joan den asteburuko lauko

finalean borobildu zuten orain arteko lana, finalean Easori 56-59 irabazi eta LF2rako (Liga Femenina 2) igoera faserako sailkatuta. Horrek esan gura du maiatzaren 23tik 26ra bitartean Granadan jokatu duten igoera fasean moreek Espainiako emakumezkoen Hirugarren Mailara igotzea eskura dutela, horren gainetik

Challenge Liga eta Emakumezkoen Lehenengo Maila baino ez daude eta.

Ez da ezusteko lorpena

Ointxe!-ko kirol arduradunak, baina, lortutakoak ez ditu sorpresaz harrapatu. "Egia esateko, aurrekusi baino azkarrago lortu dugu hona iristea, baina aurreikuspenetan geneukan,

Igoera faseko ordutegia

Eguena, maiatzak 23

- 19:00 Mondragon Unibertsitatea - Granada Mas Baloncesto.

Egubakoitza, maiatzak 24

- 17:00 Stadium Casablanca - Mondragon Unibertsitatea

Zapatua, maiatzak 25

- 17:00 Mondragon Unibertsitatea - Alter E. Al-Qazeres.

Domeka, maiatzak 26

- 13:00 3. multzoko bigarrena - 4. multzoko bigarrena.

gure ibilbide-liburuan sartuta geneukan. Pentsa, duela bi hilabete lauko finala prestatzen hasi ginenean igoera fase hau ere aurrekusi genuen; lauko finala irabaztea ondorio bat baino ez da izan", adierazi du Iñaki Ogara *Arri-k*.

Arrasateko neskek astelehena atsedean hartzeko aprobetxatu zuten, eta aste barruan fase berria prestatzen ibili dira. Datorren martitzenean egingo dute azken lan-saioa eta eguaztenean egingo dute Granadarako bidaia, eguenean bertan hasiko dute eta igoera fasea. Hala, fase horretarako hamasei talde sailkatu dira, eta lau multzotan banatu dituzte. Multzo bakoitzeko lehenengo sailkatua eta bigarren sailkatzen diren bi onenak igoiko dira LF2ra; sei talde, guztira.

Multzo zailena

Arrasatekoak Granada Mas Baloncesto, Stadium Casablanca eta CB Al-Qazeres B taldeekin daude multzoan. "Egia da multzo zailena egokitu zaigula, baina dena ematera goaz. Granada Mas Baloncesto taldeak etxean jokatu du, eurek antolatuko dute fasea, eta azken hiru ur-

teotan fase horretarako sailkatu dira. Apustu sendoa egin dute klubetik, mailaz igo nahi dute eta sekulako denboraldia egin dute ligan: jokatu dituzten 22 partiduak irabazi egin dituzte. Casablanca, berriz, Zaragozako emakumezkoen bigarren taldea da. Hiriburu horretan saskibaloiak indar handia du, eta horiek ere kontrario gogorra izango dira. Azkenik, Al-Qazeres taldea Caceresko saskibalo klubaren bigarren taldea da, harrobiko taldea. Euren jokalaria batzuek badakite Challenge ligan [maila bat gorago] jokatzeari zer den, euretako batzuek beka dituzte eta eskarmentu handiko taldea da. Hori horrela, badakigu fasean aurrera egitea oso zaila izango dela, baina partiduak kantxan irabazi behar dira, partiduak bost bosten kontra jokatzeari, eta, lehen esan moduan, gauzak ahalik eta ondoen egitera goaz".

HAMASEI TALDE BATUKO DIRA IGOERA FASEAN ETA SEI TALDE IGOKO DIRA KATEGORIAZ

Vollering-en ondoan denak

ZIKLISMOA

Gaur-gaurkoz emakumezko ziklista onena den Demi Volleringek irabazi zuen domekan Itzulia Women, eta sari banaketa ekitaldian ondoan izan zituen Gipuzkoako ziklista gazteak –bezperan Zumaian egindako Gipuzkoako erlojupekoan nabarmendu zirenak–. Ezkerrean, JMA taldeko Ainhoa Plaza eta Bizipozeko Ane Atorrasagasti.



BIZIKLIK

ERREMONTA Bergaran eta Arrasaten egingo dituzte jaialdiak

Astelehenean aurkeztu zuten *Erremontari herriz herri* jaialdiaren bigarren edizioa, eta aurten erremontea Debagoienaraino iritsiko da. Izan ere, Bergarako eta Arrasateko frontoietan erremonte partiduak antolatuko dituzte. "Erremontari saioak erremontea euskal herritarren artean ezagunago eginge lortu du. Hori dela eta, erre-

montea beste herri batzuetara zabaldu nahi izan dugu, eta jendeari kirol hori modu zuzenean eta ikusgarrian ezagutzeko aukera eman", azaldu zuten aurkezpenean. Aurten, baina, herri bakoitzak bere egutegira egokituko du jaialdi hori, festa garaian edo herriko ekintza berezirenean. Hala, Bergarara maiatzaren 24an iritsiko da jaialdia (22:00) eta Arrasaten irailerako antolatuko dute, Uarkape frontoian 25. urteurrena ospatzeko egitarauaren barruan.

Doke Antzerki Taldearen ibilbidea, liburu batean

Antzerki taldeko kide Josemari Velez de Mendizabalek idatzi du 'Doke Antzerki Taldearen historia (Barnetik azaldua)' liburua; maiatzaren 22an herritarren aurrean aurkeztuko dute, Amaia antzokian, 19:00etan, eta liburua dohainik banatuko dute

Aitziber Aranburuzabala Juldain

ARRASATE

2002an hasi eta hurrengo hogeita bi urteetan egindako ibilbideari balioa emateko, Josemari Velez de Mendizabalek sinatutako liburua argitaratu du Arrasateko Doke Antzerki Taldeak. Izenburuan adierazi duten moduan, barrutik idatzita dago, eskualdeko ondare eta historia kontuen zalea eta aditua izateaz gainera, Dokeko kidea ere bada eta Velez de Mendizabal idazlea. Argitalpeneko hitzaurrean aitortu duenez, ez da lan samurra izan liburu hori idaztea, "bihotzak buruaren gainetik agintzeko arriskua" aipatuta. Liburua eskuetan, baina, argi utzi nahi du kontatu duen istorioa Doke Antzerki Taldearen historia dela. "Islatu nahi izan dugu, hurrengo belaunaldiek jakin dezaten, hasiera bat izan zela antzerki talde iraunkor bat egiteko; izan ere, lehenago ere baziren herrian antzerki-esperientzia batzuk, baina gurea izan da talde iraunkor moduan lehenengoa, eta, orain arte, bakarra. Liburuaren bidez, testigantza bat utzi nahi dugu, baina honekin ez dugu adierazi gura taldearen amaiera denik, jarraitzeko asmoa dugu-eta", kontatu du Velez de Mendizabalek.



Doke Antzerki Taldekoak liburu berriarekin. IÑIGO BARRENA

Dokeren aurrekariak

70 orrialde ditu argitalpenak, guztira, eta, taldearen istorioari heldu aurretik, Arrasateko antzerkigintzaren aurrekariaren gainbegiratu egin du idazleak. "XVIII. mendean Aramaion jaio eta Arrasaten bizi zen Pedro Ignazio Barrutiak idatzi zuen penintsulako Euskal Herriko lehen euskal lana, *Acto para la Noche Buena* izenekoa; obra hori Arrasateko euskal antzerkiari eskainitako ekarpenik sendoena izan da eta guk ere aitortza hori egin izan genion, 2005ean obra

taularatuta. Joxe Markiegi Arrasateko apaiza eta alboan izan zuen Benatzio Gastañares ere aipatzekoak dira, buru-belarri ibili ziren-eta herriko euskal antzerki mugimenduan XX. mende hasieran, eta 90eko hamarkadan sortu zen Tunantes del Norte antzerki taldeak ere mezezi du aipamena, ibilbide labur baina intentsitate nabarmeneko izan zuen eta. Ondoren etorri zen Dokeren jaiotza, ekitaldi bat egiteko enkarguz abiatu zena eta dagoeneko hogeita bi urteko ibilbidea egin duena".

'Eskuak elkarri', lehenengo lana Goikobalu abesbatzaren hamaibosgarren urteurreneko ospakizunen aitzakian, Arrasateko historiari buruzko testu bat idazteko proposatu zioten Velez de Mendizabali, eta eskaera hori izan zen Dokeren hazia erein zuena; hau da, *Eskuak elkarri* ikuskizuna. "Sabin Salaberrik konposatu zuen musika, Goikobaluko abeslariak kantatu zuten eta aktore lanetarako SUDCen bueltako jendea fitxatu genuen eta Itziar Rosadori eta Mikel Irastorzari eskatu genien zuzendari lanak egiteko. Emaizarekin gustura eta antzerkigintzaren harra barruan sartuta, Doke Antzerki Taldea abiatu genuen ondoren".

Ondorengo urteetan sortu zituzten, hurrenez hurren: *Acto para la Noche Buena*; *Iragana Iragan*; *Paradisuko atean*; *Galderak*; *Aingeru ala kurrioi?*; *Hamaika amaren seme (alaba)*; eta 2023an estreinatu zuten *Hemen ez du inork ordaintzen* obra.

Etorkizunera begira, "gogotsu"

Kide berriak batzen joan dira, baina badira hastapenetatik jarraitzen dutenak ere; Mariasun Pagoaga, adibidez. "Gustura ari gara, eta horregatik jarraitzen dugu, baina, aurrera begira, errelebo behar dugu, eta horretarako sortu genuen Doke antzerki eskola, eta arrakasta handia du. Gure etorkizuna hori da, eta pozik gaude", azaldu du Pagoagak.

Herritarrei oparitzeko

Herritarrekin partekatu gura dute liburua, baina ez dute salgai jarriko; izan ere, doan banatuko maiatzaren 22an, eguaztena, Amaia antzokian egingo duten ekitaldian.

Gipuzkoa Bertsoan-eko lehen itzuliko azken saioa

Oñatiko Santa Ana antzokian jokatu dute azken kanporaketa gaur, egubakoitza, 19:00etan

A. Aranburuzabala OÑATI

Aimar Sorazu, Andoni Rekondo, June Aiestaran, Lierni Rekondo, Maddi Aiestaran eta Maite Garmendia bertsolariak izango dira Oñatiko antzokiko agertokian lehiatuko diren Aizpea Garmendiak jardungo du gai-jartzaile lanetan, eta Leire Beloki, Maite Sukia, Mikel Lersundi eta Unai Munian izango dira epaimahaikideak.

Bertsosarrerak.eus atarian daude gaurko emanaldirako sarrerak eskuragarri: zazpi eurotan ohikoa eta bost eurotan gazteendako eta Bertsozale Elkarteko bazkideendako.

Datorren astean, Antzuolan

Gaurko saioa amaitutakoan jakinaraziko dute bigarren itzulian parte hartuko dutenen bertsolarien zerrenda. Lehenengo itzulian moduan, bi multzotan banatuta lehiatuko dute: Antzuolan abiatuko dute A multzokoek eta Pasaian besteek.

48 bertsolariak jardungo dute lehiatuko dute, zortzi saiotan banatuta. Zerrenda zehatza oraindik jakiteke, aukerak dituzte Eskoriatzako Haizea eta Oihana Arana ahizpek, Arrasateko Ane Zuzubiskarrek eta Oñatiko Mainer Arregik, Urko Arregik, Urko Egañak eta Aitor Tatiegik.

ARRASATEKO EMAKUMEZKOEN ERRUGBI TALDEAK 30 URTE

GOIENA TELEBISTA, ERREPORTAJEA

ASTELEHENEAN, MAIATZAK 20, 19:30EAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.



IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

Bergara. 3 logela eta igogailua duen, eta Poligono inguruan kokatuta dagoen etxebizitza erosi-ko genuke. Lan egongo-korra duen bikote gaztea gara. 673 35 95 98

Debagoiena. Etxebizitza erostea nahiko nuke. Ez zait zein egoeratan dagoen etxebizitza. Momentuan egin dezaket ordainketa. 623 17 95 37

104. ERRENTAN HARTU

Alokairua Arrasaten. Etxebizitza errentan hartuko nuke Arrasaten. Alaba bat duen pertsona langile eta arduratsua naiz. 646 47 59 02

Bergara. Bi edo hiru logela dituen etxebizitza baten bila gabilta. Igogailua izatea gustatuko litzaiguke. Biok egiten dugu lan. 645 72 92 87

2. GARAJEAK

201. SALDU

Garajea salgai Bergaran. Bergarako Tokieder plazan dagoen garajea saltzen dit. Garaje itxia da eta ate automatikoa du. 607 94 08 65

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Bergarako Labegarieta tabernan lan egiteko pertsona bila gabilta. Interesa izanez gero, tarbenara etor zaitzke curriculuma uztera. 688 78 89 18

402. ESKAERA

Arrasate. Emakumezkoa etxeetan garbiketak egin eta nagusiei lagundu edo zaintzeko prest. Etxetik kanpo bizi izaten lan egingo nuke, orduka, goiz, arratsalde zein gauetan. 672 78 04 30

Arrasate. Neska arrasatearra, arduratsua eta atsegina, umeak zaintzeko eta nagusiei paseatzera lagundu edota konpainia egiteko gertu. Telefonoa: 695 73 87 95

Arrasate. Umeen zein nagusien zaintzan edota garbiketara lanetan aritzeko prest. Goizetan lan egingo nuke arratsaldetan lan egiten baitut. Soziosanitario titulua dut. Telefonoa: 634 94 30 78

Bergara edo Antzuola. Emakume euskalduna arratsaldetan hiru edo lau ordu artean lan egiteko gertu. Zaintza lanak edo

laguntzaile lanak egingo nituzke. 637 52 89 83

Bergara eta inguruak. Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago. 642 11 57 74

Bergara, Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriazta. Bergarako neska pertsona nagusiak zaindu edota etxeetan garbiketara lanak egiteko prest. Orduka lan egingo nuke. Soziosanitario titulua dut. 696 84 19 51

Bergara. Neska bergararra, udan umeak zainduko nituzke. Deitu telefono honetara: 634 43 71 49

Debagoiena. Pertsonen zaintzan lanean esperientzia duen emakumea. Berehala lanean hasteko aukera. Malgutasun osoa. 677 14 64 27

Debagoiena. Emakumea garbiketara lanetan orduka lan egiteko prest. Telefonoa: 666 07 42 98

Debagoiena. Emakumea goizetan lan egiteko prest. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketara lanak egingo nituzke. Telefonoa: 651 96 78 69

Debagoiena. Emakumea prest garbiketara lanak egin edota haurrak eta pertsona nagusiak zaintzeko. 671 64 11 25

Debagoiena. Emakumea prest goizetan pertsona nagusiak zaintzeko. Deitu 642 37 01 92 telefono zenbakira.

Debagoiena. Emakumea zaintza edota garbiketara lanak egiteko gertu. Etxetik kanpo bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. 671 18 50 83

Debagoiena. Emakumezkoa asteburuetan lan egiteko prest. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketara lanak egingo nituzke. 624 81 93 71

Debagoiena. Emakumezkoa pertsona nagusiak zaintzeko edota garbiketara lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Deitu telefono honetara: 677 00 90 26

Debagoiena. Erizain laguntzaile ikasketak dituen emakumea, umeak eta pertsona nagusiak zaindu edo laguntzeko edota garbiketara lanak egiteko prest. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 613 16 97 02

TABERNARIA.

Bergarako Labegarieta tabernan langilea behar da. Interesatuok utzi curriculuma tabernan.

Debagoiena. Esperientziadun emakumea pertsona nagusiak zaindu edota garbiketara lanak egiteko prest. Orduka lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zainduko nituzke baserri zein etxeetan. 672 55 67 35

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten, etxetik kanpo bizitzen zein orduka lan egiteko prest nago. Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Soziosanitario ikasketak ditut, baita legezko agiriak ere. Deitu telefono honetara: 603 26 70 87

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten, orduka eta asteburuetan lan egiteko prest dagoen neska gaztea. Garbiketara lanetan, zaintzan edota tabernetan lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 624 09 84 65

Debagoiena. Etxetik kanpo bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Asteke edo zein egunetan lan egiteko prest nago. Pertsona nagusien zaintzan esperientzia asko duen gizonzkoa naiz. Telefonoa: 615 37 43 11

Debagoiena. Etxetik kanpo bizi izaten pertsona nagusien zaintzan lan egin nahi dut. Asteburuetan eta gauetan etxe zein ospitaletan lan egiteko prest. Soziosanitario ikasketak ditut. Deitu telefono honetara: 602 80 15 38

Debagoiena. Gizonzkoa pertsona nagusiak zaindu edota garbiketara lanak egiteko prest. Soziosanitario eta garbiketara ikasketak ditut. Eskarmentu handi dut lan hauetan. Legezko agiriak ditut. Malgutasun osoa dut, etxean bertan bizi izaten edo kanpoko langile bezala lan egin dezaket. Deitu 643 47 39 37 telefono zenbakira.

Debagoiena. Gizonzkoa prest etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egiteko. Pertsona nagusien zaintzan lan egingo nuke, baita enpresetako karga-jasogailu gidari ere. 614 11 43 60

Debagoiena. Neska euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Beste lan batzuk ere egingo nituzke. Soziosanitario ikasketak ditut. Gidabaimena eta autoa ditut. 656 79 28 37

Debagoiena. Pertsona nagusiak edota garbiketara lanak egiteko nituzke, baita sukaldari laguntzaile lanak ere. Telefonoa: 603 26 66 18

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketara lanak egiteko prest dagoen emakumezkoa. Orduka lan egingo nuke. 643 50 58 27

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketara lanak egiteko prest dagoen emakumea. Kanpoko langile gisa edo orduka lan egin nahi dut. Soziosanitario titulua ateratzen ari naiz. Telefonoa: 604 23 18 20

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzke lanaldi osoan edo erdian. Soziosanitario ikasketak ditut. 602 64 68 17

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzke orduka, etxe zein ospitaletan. Egunean zehar eta gauetan lan egiteko prest. Deitu telefono honetara: 647 31 48 17

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen gizona. Soziosanitario ikasketak eginak ditut. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Malgutasun osoa. Deitu telefono honetara: 643 21 04 28

Debagoiena. Pertsona nagusiak zein umeak zaindu edota garbiketara lanak egingo nituzke. Soziosanitario titulua dut. Arratsaldetan zein asteburuetan lan egiteko prest. Deitu telefono honetara: 625 25 57 78

Debagoiena. Pertsona nagusiak zein umeak zainduko nituzke edota garbiketara lanak egin. Deitu 631 30 15 86 telefono zenbakira.

Oñati eta Arrasate. Pertsona nagusiak zaintzeko gertu dagoen gizonzkoa. Soziosanitario ikasketak egin ari naiz. Legezko agiriak ditut. Malgutasun osoa dut, etxean bertan bizi izaten zein orduka lan egiteko prest nago. Deitu 644 78 30 45 telefono zenbakira.

6. MOTORRA

602. EROSI

Land rover Defenderra erosiko nuke. Land rover Defenderra behar dut baserriko, berdin dio ze egoeratan dagoen: ITV gabe, matxurata, kolpearekin. 623 17 95 37

7. ANIMALIAK

704. BESTELAKOAK

Euskal artzain txakurra. Emea den euskal artzain txakur bila ari naiz, nik dudana euskal artzain txakurarekin txakurkumeak izan ditzan. 686 50 06 92

8. DENETARIK

806. GALDU

Arrasateko Zigarrola auzoa. Apirilaren 17an, autoko bi buru-euskarri eta maletategi-estalki bat ahaztuta utzi genituen Zigarrola auzoan dagoen Merkaldendaren aurrean. Informaziorik baldin baduzu, jarri nirekin harremanetan: 629 38 59 15.

Pultsera Bergaran. Apiril bukaeran urrezko pultsera bat galdu nuen Santa Marina eliza eta ambulategi artean. Bertan, Saioa izena ageri da. Aurkitu baduzu eskertuko nuke harremanetan jar-tzea. 652 77 13 77

ZORION AGURRAK



ANTZUOLA Aitziber Echezarreta Mugica
Maiatzaren 20an, 11 urte. Urte askotarako, Aitzi! Oso ondo pasau eguna eta disfrutatu! Muxu bat Ainara, Elene, Aitor eta Iratin partetik.



ARRASATE Laida Ullibarri-arana Sagasta
Maiatzaren 18an, 4 urte. Zorionak, Gure Maite txiki politari!




OÑATI Maider Arenaza Arriaran
Maiatzaren 16an, 6 urte. Zorionak, bitxito!

ARETXABALETE

Duna Eskibel Olalde

Maiatzaren 17an, 2 urte. Zorionak, politxo! Gora bi atzamartxo! Patxo potolo bat danon partetik!



ARETXABALETE

Nora Bengoetxea Palet

Maiatzaren 14an, 2 urte. Zorionak, politxo! Jarratxu bazter danak oinarre moduen alaitzen! Pilla bat maite zaitzugu!



BERGARA Oxel Uriarte Sebal
Maiatzaren 13an, 6 urte. Zorionak, Oxel! Ondo pasau zure eguna eta gozatu pilla bat lagun eta familiakoekin. Asko Maite zaitugu!



ARETXABALETE

Marisol Berasaluze

Maiatzaren 13an, Urtebetetzea. Zorionak, amamaxo! Asko asko maitetzugu! 4 patxo potolo!

ZORIONTEKO HIRU BIDE

- Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *Goiena.eus/zorionagurra* helbidea sartu.
- Mezua bidali *zorionagurra@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Zatoz Goienara edo deitu 943 25 05 05 telefonora.



OÑATI Nahia Aramburu
Maiatzaren 12an, 10 urte. Zorionak eta urte askotarako, Nahia! Primeran ospatu zure eguna. Muxu handi bat etxeko denon partetik! Asko maite zaitugu.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguaztenteke 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sarritan daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Korosti
Inmobiliaria

Bergara: San Antonio,
69m² erabilgarri,
2 logela, terraza,
trasteleku eta garajea
igogailuarekin.
203.000€



Bergara: Ibarra,
87m² erabilgarri,
3 logela, ganbara eta
trasteleku. Erabat
kanpoaldekoa.
140.000€



Bergara: Burdiñate,
65m² erabilgarri, 2 logela,
igogailua, trasteleku,
bizitzera sartzeko..
150.000€



Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

Informazio
gehiago:



GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 17 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
 Zapata, 18 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
 Domeka, 19 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
 Astelehena, 20 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
 Martitzena, 21 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30
 Eguaztena, 22 AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15
 Eguena, 23 JUNCAI: Kontzeziño 12 / 943 79 79 99

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 17 ESTELLA: Matxiategi kalea 5 / 943 76 19 63
 Zapata, 18 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
 Domeka, 19 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
 Astelehena, 20 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
 Martitzena, 21 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
 Eguaztena, 22 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
 Eguena, 23 ESTELLA: Matxiategi kalea 5 / 943 76 19 63

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 17 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
 Zapata, 18 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
 Domeka, 19 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
 Astelehena, 20 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
 Martitzena, 21 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
 Eguaztena, 22 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
 Eguena, 23 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

ARRASATE GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)
 SANCHEZ ALVAREZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

BERGARA GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)
 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 19 63

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
 COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

URTEURRENA

Angel Alberdi Zabaleta

"Eluxu"



2023ko maiatzaren 1ean hil zen, 86 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, maiatzaren 19an, 11:00etan, Bergarako San Pedro elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2024ko maiatzaren 17an.

MEZA



Benedicta Lazkanoiturburu Madina



Enrique Anduagaren alarguna

2024ko maiatzaren 4an hil zen, 101 urte zituela.

Ama, amama, amandria,
 Beti egongo zara gure bihotzian.

Haren aldeko ondra-meza larunbatean izango da, maiatzaren 18an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Oñatin, 2024ko maiatzaren 17an.

HILDAKOAK

- **Felisa Loiti Gardoki.** Antzuolan, maiatzaren 15ean. 91 urte.
- **Lucio Ezpeleta Urkia.** Arrasaten, hilaren 10ean. 82 urte.
- **Juanita Aguirrebeña Mugica.** Bergaran, maiatzaren 11n. 95 urte.
- **Rufino Aperribay Mugica.** Bergaran, hilaren 11n. 94 urte.
- **Alejandro Arruti Mazmela "Etxebarritxa".** Bergaran, maiatzaren 15ean. 91 urte.
- **Jose Serrano Torres.** Eskoriatzan, hilaren 12an. 87 urte.
- **M^a Angeles Arana Alcelay "Otxua".** Oñatin, maiatzaren 11n. 96 urte.
- **Jesus Botello Guardado.** Oñatin, maiatzaren 13an. 74 urte.

BABESLEA

Oroilore

Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei esan bidea osatzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiak izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beronenak guzen izan dituzten konfiantzagarri eta maitasunagatik.

Mario, Iban, Mariñi eta Cristian

617 44 21 55

BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OÑATI

BERRI-ZAKUA



Ekain Quintana Rodriguez
 Arrasate. 3,120 kilo. Maiatzaren 1a. Gurasoak: Amaia eta Ion. Argazkian, jaioberria, jaioberria, jaioberria sehaskan.



Gaztela-Mantxan egon dira

Arrasateko Urribarriko erretiratu talde bat Gaztela-Mantxan egon zen maiatzaren 5etik 10era . Guztira, 36 lagunek hartu zuten parte bidaian. "Egun zoragarriak igaro ditugu, giro bikainean", azaldu dute.



Bergarako Elortza-Bolu errota ezagutzen

Bisita gidatua egin zuten San Juan auzoan dagoen errotan, Amaia eta Xabin Zabaleta anai-arrebek gidatuta.



Hirugarren Mailara igo zirenei omenaldia

1993-1994ko denboraldian Hirugarren Mailara igo zen Aloña Mendi. Elkartearen 75. urteurrenaren harira, talde hartako jokalariek, entrenatzaileek eta arduradunek omenaldia jaso zuten Azkoagainen.

ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN

**PENTEKOSTE JAIK**

Bergarako jaietako lehen hiru egunek emandakoaren laburpena egingo dute gaurko saioan.

'Hemen Debagoiena' Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**ARRASATEKO EMAKUMEZKOEN ERRUGBI TALDEAK 30 URTE**

Emakumezkoen taldeak egin duen ibilbidea jasotzen duen erreportaje berezia, protagonisten adierazpenekin.

'Bereziak' Astelehena, 19:30, 21:30 eta 23:30

D2030EN GAINEKO ELKARRIZKETA

D2030eko kide Aritz Ameztegirekin eta Elena Herrarterekin egingo du berba Larraitx Zeberio.

'Hemen Debagoiena' Martitzena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**TABAKOAREN KONTSUMOAZ**

Datuetatik tiraka tartean, tabakoren kontsumoaren gaineko datuak emango ditu Txomin Madinak.

'Hemen Debagoiena' Eguaztena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**PENTEKOSTE JAIK**

Bergarako jaiak barrutik emandakoa erakutsiko dute Oihan Loitik eta Andrea Gonzalezek.

'Jaiak' Eguaztena, 21:00 eta 23:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 17**ESKORIATZA 'Etokizuneko azoka'**

Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleek hiri jasangarrien baitan egingo dute ekintza zuzena. *Santa Marina plazan, 10:00etan.*

ESKORIATZA 'Debagoieneko egoera eta aukera energetikoak' erakusketa
Panelak ipiniko dituzte erdigunean. *Santa Marina plazan, 11:00etan.*

ESKORIATZA Energia-faktoren gaineko azterketa
Goienarren eskutik. Ordua eskatzeko: 674 11 19 71 edo ingurumena@eskoriatza.eus. *Ibarraundi museoa, 11:00etan.*

BERGARA Pentekoste jaiak
Informazio osoa 18. eta 19. orrietan. *Bergaran.*

OÑATI Odol ematea
Aurrez hartu behar da ordua: 943-00 78 84. *Enpresagintzan, 16:00etan.*

ARRASATE Ate irekiak Arrasate Musikalen
Dantza emanaldiak eta musika tailerrak, adinaka banatuta. *Juan Arzamendi Musika Etxean, 17:30ean.*

ELGETA Ipuinen Ordua
Ipuin kontalari taldearen eskutik, eta adinaka banatuta. *Liburutegian, 17:30etan.*

ARRASATE 'Ipuin hegalaria' ipuin kontaketa saioa
Maidar Alcelayrekin, 4 urtetik gorakoendako. Izena, Bibliotekan. *Kulturatan, 18:00etan.*

ARRASATE Lore Gazteak: beteranoen dantza saioa
Hainbat dantza egingo dituzte. *Herriko Plazan, 18:45ean.*

OÑATI Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako saioa
Txapelketako hamabigarren saioa egingo dute. *Santa Ana antzokian, 19:00etan.*

ARRASATE Kea Abesbatza
XX. Udaberriko Musikaldia. Debalde. *San Frantzisko elizan, 19:30ean.*

ARETXABALETA 'La sirenita' antzezlan
Ipuin klasikoa egokitu du Ortzaiz konpainiak, umorez. Sarrerak, bost euro. *Arkupen, 20:00etan.*

ZAPATUA 18

OÑATI 'Txondorraren bueltan' auzolana
Ikazkin-etxola eta txondorra egingo dituzte. Umeek helduak lagunduta joan beharko dute. Eskularruak eraman behar dira. *San Martinen, 09:00etan.*

OÑATI Urgain eguna
09:00etan, muntaia; 11:00etan, pregoia eta kalejira; 12:00etan, trikitilariak Boga plazatxoan; 13:00etan, *Urgain 10 urte* abestiaren dantza, plazan; 14:15ean, bazkaria; 15:45ean, bingo-jokoa; 16:00etan, haur jolasak; eta 18:00etan, DJa. *Oñati Institutuaren aurrean.*

ANTZUOLA San Isidro Eguna
09:00etan, ganadu, artisau eta salmenta postuen azoka; 12:00etan, txistularien eta trikitilariaren kalejira; 12:30ean, gazta eta sagardo dastaketa; 16:30ean, artzain txakur txapelketa; eta 19:00etan, pilota finalak. *Antzuolan.*

ARETXABALETA Ikazkin Trail prestatzeko irteera
Entrenamendu saioa. Aurrez eman behar da izena. *Herriko Plazan, 09:30ean.*

ELGETA Euskal Mendizale Federazioak 100 urte
Informazio osoa 5. orrian. *Elgetan.*

BERGARA Museoen Nazioarteko Eguna
10:30ean eta 17:00etan, bisita gidatua museoa; eta 12:00etan, *Ontzietan gordetako istorioak* hitzaldia. Museorako sarrera doan. *Laboratoriumen.*

BERGARA Pentekoste jaiak
Informazio osoa 18. eta 19. orrietan. *Bergaran.*

ARRASATE 'Birakolore' kale antzerkia
Zurrunka Teatrorren eskutik. *Seber Altube plazan, 11:30ean.*

ARETXABALETA Euskararen Eguna
Bertso-poteoa, herri bazkaria, elektrotxaranga eta erromeria, besteak beste. *Herriko kaleak, 12:00etan.*

ARRASATE Mariatxi festa
13:00etan, Tolin El Mariatxi, Otalora kalean; eta 18:00etan, Txingones De La Rencle, Herriko Plazan. *Arrasaten.*

ARETXABALETA Erretiratuen Eguna
Bazkaria izango dute lehenengo, eta ondoren, dantzaldia. *Ibarra kiroldegian, 14:00etan.*

ARAMAIO Arabako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finala
12 eta 18 urte artekoen finala. *Kultura etxean, 17:30ean.*

ANTZUOLA San Isidro Pilota Txapelketako finala
Ondoren, pilota erakustaldia izango da: Nagore eta Leire Galeano, Olatz Insaustiren eta Irati Betegiren aurka. *Pilotalekuan, 19:00etan.*

ARRASATE Arrasate Musikaleko orkestra eta Goikobalu Abesbatza
XX. Udaberriko Musikaldia. Debalde. *San Frantzisko elizan, 19:30ean.*

DOMEKA 19

ESKORIATZA Zazpi elizateen martxa
31 kilometroko ibilaldia. *Fernando Eskoriatza plazan, 07:00etan.*

ELGETA Aloñari itzulia
Urriagandik, Kantsatzeke taldekoekin. Taldea 08:00etan abiatuko da herriko plazatik. *Mendizaleen plazan.*



LA SEMILLA VOLADORA

ARRASATE 'Udala-Gongetako meatzea-Besaide' ibilaldia
12,2 kilometroko ibilaldia. Izena emateko: 943-25 20 00.
Udala auzoan, 09:00etan.

BERGARA Pentekoste jaiak
Informazio osoa 18. eta 19. orrietan.
Bergaran.

OÑATI Aitzulora irteera, familiendako
Izena emateko: 943-78 28 94 edo 699 33 51 83 edo *arantzazu@gipuzkoanatura.eus*.
Araotzen, 10:00etan.

ANTZUOLA Akinabei erroten bisita gidatua
Joxe Mari Iturbek egingo du: Akinabei erroten Abaro iturburura, eta handik Aldaparera.
Akinabei erroten, 10:00etan.

LEINTZ GATZAGA 2024ko Gatz Eguna
Azoka, mendi-irteera, kontzertuak eta beste zenbait ekintza.
San Migel plazan, 10:00etan.

ARETXABALETA 'Atearen beste aldean' antzezlana, umeendako
Hika Teatroyen eskutik.
Arkupen, 17:00etan.

ARRASATE 'Passport' antzezlana
Yllana taldearen azken lana. Sarrerak, hamar euro.
Amaia antzokian, 19:30etan.

ASTELEHENA 20

ARRASATE Bertso saioa
Aroa Arrizubieta, Manex Agirre, Aitor Tatiegi eta Ane Zuazubiskar bertsotan, Goienagusik gonbidatuta.
Kulturaten, 10:00etan.

BERGARA Pentekoste jaiak
Informazio osoa 18. eta 19. orrietan.
Bergaran.

ARRASATE 'Suteen prebentzioa etxean' hitzaldia
Josu Mañarikua suhiltzaileak egingo du berba.
Kulturaten, 17:30etan.

ARRASATE 'Birakolore' kale-antzerkia
Zurrunka Teatroyen eta La Semilla Voladora taldearen txotxongilo emanaldi ibiltaria. Adineko bi pertsonak "zibilizazioa" eramaten dute jakituriaren ondarea, naturaren parte garena gogorazteko.
Bihar, zapatua, Seber Altube plazan, 11:30etan.

MARTITZENA 21

BERGARA Pentekoste jaiak
Informazio osoa 18. eta 19. orrietan.
Bergaran.

ESKORIATZA Berdintasun diagnostikoa osatzeko talde-elkarrizketak
10:30ean, adineko emakumeak eta emakume pentsiodunak; eta 18:00etan, herrigintzako emakumeak.
Kultura etxean.

OÑATI Txondorra: auzolana
Ikazkin-etxola eta txondorra egingo dituzte. Eskularruak eramatea gomendatzen dute. Umeak, heldu batekin.
San Martinen, 16:00etan.

OÑATI 'Klima aldaketaren nor-nori-nork' hitzaldia
Mundukideko kide Beñat Arzadunek egingo du berba.
Euskaldun Berria gelan, 19:00etan.

OÑATI 'Eguraldiaren euskara. Aro-bidaia Euskal Herrian barrena' liburuaren aurkezpena
Ostean solasaldia egingo dute Kepa Dieguez egilearekin.
Zinema-aretoa, 19:00etan.

ARRASATE 'Arantzazu: 36 zm, 5 mende, herri 1' dokumentala
Pello Sarasuaren lana emango dute martitzenetako emanaldian.
Amaia antzokian, 19:30etan.

EGUAZTENA 22

ESKORIATZA Berdintasun diagnostikoa osatzeko talde-elkarrizketak
Gaur, herrigintzako gizonekin.
Kultura etxean, 10:30etan.

OÑATI Txondorra: auzolana
Ikazkin-etxola eta txondorra egingo dituzte. Eskularruak eramatea gomendatzen dute. Umeak, heldu batekin.
San Martinen, 16:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Siempre nos quedara mañana
Zapatua eta astelehena: 19:30.

Emma y el jaguar negro
Zapatua: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

La casa
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka eta astelehena: 19:30.

GASTEIZ

FLORIDA

Los buenos profesores
Egubakoitza: 17:00, 22:00.

Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 22:00.
Astelehena: 16.45.
Martitzenetik eguenera: 16:45, 19.30.

La casa
Egubakoitza: 16:30, 20:20.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30, 20:20.
Astelehenetik eguenera: 17:15.

Amigos imaginarios
Egubakoitza: 17:00, 19:15, 21:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 19:15, 21:30.
Astelehena: 17:00.
Martitzenetik eguenera: 17:00, 19:30.

Caida libre
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:35, 22:30.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:00, 19:00.
Martitzena: 17:00.

Calladita
Egubakoitzetik domekara: 18:20, 22:15.
Astelehenetik eguenera: 19:00.

El reino del planeta de los simios
Egubakoitza: 16:30, 19:30, 21:45.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30, 19:30, 21:45.

Astelehenetik eguenera: 16:30, 19:30.
Hasta el fin del mundo
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 19:15.
Astelehena: 19:30.
Martitzenetik eguenera: 17:00.

Nina
Egubakoitza: 19:30, 21:45.
Zapatua: 12:00, 19:00, 21:45.
Domeka: 12:00, 19:30, 21:45.
Astelehenetik eguenera: 16:45, 19:00.

Dragon keeper (euskaraz)
Zapatua eta domeka: 12:00.

ARETXABALETA 'Ipuin lotsatiak' kontaketa
Odei Arregirekin, 4-7 urte artekoendako. Izena emateko azken eguna, maiatzaren 20a.
Liburutegian, 18:00etan.

ARRASATE Literatura solasaldia gaztekeraz
Isabel Albaren *La ventana* liburuaren gaineko saioa, Ana Rodriguezek gidatuta. Egileak parte hartuko du.
Kulturaten, 18:00etan.

ARRASATE 'Doke antzerki taldearen historia. 20 urte antzerkia egiten' liburuaren aurkezpena
Ekitaldi irekia.
Amaia antzokian, 18:00etan.

ARRASATE 'Eskuz esku. LAB zabaltzen' dokumentala
LAB sindikatuaren 50. urteurrenaren harira. Ostean, solasaldia.
Kulturaten, 18:00etan.

ARRASATE Aitor Garitano tenorea
XX. Udaberriko Musikaldiaren baitan. Debalde.
Juan Arzamendi Musika Etxean, 19:30etan.

BERGARA 'Puan' pelikula
Zineklubean, jatorrizko bertsioan eta azpitoluekin. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

EGUENA 23

ARRASATE Sasoibide
Bi ibilbide aukeran: Arrasateko balkoia eta Zigarrolako balkoia.
Biteri plazan, 10:00etan.

ARRASATE Sendabelarren tailerra
Zazpi sendabelar ukendua tailerra egingo du Garbiñe Larreak.
Kulturaten, 18:00etan.

OÑATI Ostegun Kontalariak
Odei Arregiren eskutik. Gonbidapenarekin.
Haurren liburutegian, 18:00etan.

ARRASATE Truke hitzaldia
Gipuzkoako biztanleria migratuaren eta LGTBQ+ kolektiboaren egoerari buruzkoa, Ekinen eskutik eta Aniztasun Astearen baitan.
Ekinen, 18:00etan.

ANTZUOLA Irakurle taldea
Lander Garroren *Faith* liburuaren gaineko saioa, Alaine Agirrek gidatuta.
Olaran etxean, 18:00etan.

ARETXABALETA Gazteen mugikorraren erabileraren gaineko hitzaldia
Maitane Ormazabalek eta Telmo Lazkanok egingo dute berba, Altza Burua elkarteak eta Udalak gonbidatuta.
Arkupen, 18:00etan.

OÑATI 'La venganza del campo' liburuaren aurkezpena
Ekitaldian egongo dira: Manuel Pimentel egilea, Xabier Iraola, Batis Otaegi eta Andoni Altuna. Moderatzailea: Xabier Mugarza.
Kultura etxean, 18:30etan.

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Lie Detectors
Arrasaten hainbat alditan egon diren gipuzkoarren kontzertua. Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

Ez galtzeko

Aste batzuk dela Ekuadorren izan nintzen. Bertako lagun batzuek kontatu zidaten beraien aitona-amonak kalean jolasten zirela umetan. Gaur, eta badira urteak, segurtasunagatik, munduko beste leku askotan bezala, neska-mutilek ez dute bakarrik ibiltzerik. Elkartzen dira etxeetan, adibidez. Gainera, lehen ez bezala, etxe asko hormaz inguratuta daude. Aldaketa hori gertatu da, elkarrekin lan egiteko tradizioa badute ere. Guk *auzolana* esaten duguna han *minga* deitzen da.

Behin *minga* zer den aipatuta, beste hitz bat argitzea falta da ondoren datorrena ulertzeko. Azterketetan kopiatzeko ateratzen den txuletari *polla* deitzen zaio Ekuadorren.

Euskadin gertatu zen anekdota. Elkartu ziren hemengo eta Ekuadorko agintari nagusiak. Hizketaldian gureak galdetu zion ea nola egiten zuten zerbait eta Ekuadorkoak erantzun zuen: "Gori *minga*-rekin egiten dugu". Aurrerago daturen bat eskatu zion euskaldunak, eta amerikarrak orduan: "Itxaron, *polla* atera behar dut". Gure lehendakariak ez zekien non sartu.

Guk ere, eta bueltan nator harira, ez dugu jakingo non sartu, esku artean duguna zaintzen ez badugu.

BUKATZEKO

Eskola Bisuala agiria du Arizmendiko umezaintzak

Orange Fundazioak gidatzen duen Eskola Bisuala programan parte hartu eta ziurtagiri hori lortu du Arizmendi Ikastolako umezaintza gunea ikasturte honetan. Irudien erabileraren bidez hezkuntza inklusiboago bat lortzea izan da helburua

Oihana Elortza Gorostiza ARRASATE
Irudien erabileraren bidez eta hezkuntza inklusiboagoa lortzea helburu izanik, gaia lantzen, prestatzen eta praktikan jartzen ibili dira Arizmendi Ikastolako umezaintza gunean ikasturtean zehar, eta Orange fundazioak gidatzen duen Eskola Bisuala programaren ziurtagiria eskuratu du.

Arreta ingurunean jarrita

Eskolako guraso baten bitartez izan dute programa horren berri Arizmendi ikastolako irakasleek, eta aurkeztea erabaki zuten. "Programa gogorra izan da, lan koiziente bat, irakasleok formakuntza jasota. Pozik gaude", dio Arizmendi Ikastolako orientatzaile Arantxa Lejarragak.

Proiektu horren bitartez lan egiteko modua aldatu eta emaitza aberastu egin dutela gaineratu du Lejarragak: "Orain arte beti ibili gara zailtasunak dituzten ume konkretuekin lanean, baina, egia esanda, egoerak, inguruneak, ez du laguntzen askotan, eta lan honekin hor jarri dugu arreta. Hau da, erakina nolakoa den, barruan zer dagoen edo gela bakoitza nolakoa den eta barruan zer egiten den



Seinalizazioarako piktogramak umei erakusten. ARIZMENDI IKASTOLAKO UMEZAINZAKO GUNEA

azaldu dugu irudien bidez, seinalizazioen bidez, eta hori oso lagungarria izan da zailtasunen oztupoak gainditzeko orduan". Helburua hori izanda, egindako lan honek askoren garapenean lagundu duela aitortu du. "Ko-

munikatzeko zailtasunak dituztenendako zein kanpotik etorri eta hizkuntza oraindik ezagutzen ez dutenendako da hau lagungarri. Parte-hartzea handiagoa da, aberasgarriagoa, eta oztupoak presenteko izan ditugu denok".

Hedatzeko asmotan

Hezkuntza inklusiboaren barruan, ikusizko tresnak erabili izan dituzte Arizmendi ikastolan, hizkuntza inklusiboan murgiltzeko. "Ordutegiak, istorioak, sekuentziak edo ipuinak landu izan ditugu aurrez piktogramak erabilita, baina orain, seinalizazioen bitartez, osatu egin dugu lan hori, eta, adibidez, jolastokian edo ortuan zer dagoen adierazi".

Umezaintzako gunean egin dute ekimena, baina ez dela horra mugatu aurreratu du Arizmendiko orientatzaileak, eta adin guztietara zabalduko dutela gaineratu. "Era naturalean egingo dugu hori, ikastola oso hedatzea da asmoa".

50 ikastetxetan aurten

Eskola Bisuala programa Orange fundazioarekin elkarlanean sortutako hezkuntza-proiektua da, Haur eta Lehen hezkuntzetako ikastetxeetako maisu-maistrak prestatzea helburu duena, ikastetxeek ikusmenaren erabileraren bidez gero eta hezkuntza inklusiboagoa izan dezaten. Ikasturte honetan 286 ikastetxe aurkeztu dira eta 50 eskolak eta 1.555 irakasle euren ikasgeletan erraz ezartzeko doako tresna eta prestakuntza jaso ahal izan dute, eta 18.598 ikasle igaro dira bertatik. Eskola Bisualak, gainera, materialen eta baliabideen plataforma baterako sarbidea eman die, bai eta aholkularitza pertsonalizatua ere, eraldaketa horretan laguntzeko. Horien artean, Arizmendi Ikastolako Arrasateko umezaintza gunea dago, programa honetan, oraingoz, dagoen eskola bakarra Euskal Autonomia Erkidegoan.

'ALGARAKA'

BAKARRIZKETA LEHIAKETA LEHEN KANPORAKETA

GOIENA TELEBISTA

ZAPATUAN, MAIATZAK 18, 18:00ETAN

DOMEKAN, MAIATZAK 19, 22:00ETAN

MIREN NOGALESEK AURKEZTUTAKO UMOREZKO SAIOA

NAHERAN
PRIMERAN
STREAMING
PLATAFORMAN

goiena
Zu hemen zaude.

